



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Väsca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

# Euskerazaintza

LXXIV Zenbakia • 2015. urtea-1

## Euskalerriaren edestia III

# Euskerazaintza

## **Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dute-  
nentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu  
zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta  
gure erantzuna au da: “Len”,  
oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmo-  
rik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo  
ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak  
“laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da  
gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta  
gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30  
euro ordaintzea, bealdea aipatzen dogun gure  
kontuen zanbakietan.**

## **Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589**

**EUSKERAZAINTZA**

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2<sup>a</sup> eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)

[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena

(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: **IBEGRAFIK**  
[www.ibegrafik.com](http://www.ibegrafik.com)

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

<i>Atarikoa</i> .....	5
-----------------------	---

## Euskalerrriaren Edestia

### 1<sup>o</sup>go ZATIAN.

<i>1. II.n ataleko idaz lanaren aurkezpen laburra</i> .....	7
<i>1.1. Mauritarren agerkeria ta ezarpena</i> .....	8
<i>1.2. Asturiaseko erregetza</i> .....	13
<i>1.3. Asturias eta Leongo erregetzak</i> .....	16
<i>1.4. Karolinjio kaisar-erregetzaren sorkuntza</i> .....	17
<i>1.5. Akitaniako Dukaterria</i> .....	23
<i>1.6. Baskoniako Dukaterria</i> .....	27
<i>1.7. Gaskuñako Dukaterria</i> .....	33
<i>1.8. Banu Kasitarrak</i> .....	34
<i>1.9. Iruñako erregetzaren sortarazia</i> .....	36
<i>1.10. Iruñako erregetza sortarazteko sortu zana</i> .....	36
<i>1.11. Asturias eta Leongo III.n Alfonsoren alegeinak euskaldunak menperatzeko, eta Euskalerrrian ekintza orren bidetik, Bizkaiko Jauntzaren sorkuntza</i> .....	40
<i>1.12. Bizkaitar Jauntzaren sorkuntza</i> .....	41
<i>1.13. Bizkaiko Jauntza sortarazteko gertatu zana</i> .....	41

### 2n ZATIAN.

<i>2.1. Bigarren zati onen aurkezpena</i> .....	45
<i>2.2. Euskalerrriaren errigizartean jaurkitutako, askatasunaren demokrazizko legeak</i> .....	45
<i>2.3. Bizkaiko batzar nagusiaren baldintzak, Jaunakin elkar aditzeko</i> .....	46
<i>2.4. Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?</i> .....	47
<i>2.5. Eta zeintzuk izan ziran Asturias Leon Gaztela ta franko erregearen katoliko arauetatik Euskalerrrentzako sortu ziran arazoak eta gero Europako erregetegi guztietatik ?</i> .....	47
<i>2.6. Zer sortu jakien mauritarrei ?</i> .....	47
<i>2.7. Zelan geratu zan Euskalerrria errege jaunen antolakuntzazko denbora orreitan, katoliko ta islamen eritzi bi orrein bitartean eta inguruko erregeakaz inguratuta ?</i> .....	48

### 3n ZATIAN.

<i>3.1. Euskal Nafar errege eta Bizkaiko jaunen zerrendagaz, euskal edestia argitzen</i> .....	49
<i>3.2. Nafar errege ta nafar leiñuzko etxeak</i> .....	49
<i>3.3. ARITZAtarren ERREGE-LEIÑUA</i> .....	49



3.4. JIMENOtarren ERREGE-LEIÑUA.....	51
3.5. ARITZAtarren ERREGE-LEIÑUA: .....	51
3.6. Bizkaiko Jauntzaren sorkuntza.....	52
3.7. Bizkaiko lenengo Jauna. ....	52
3.8. Bizkaiko 2n Jauna. ....	53
3.9. Bizkaiko 3n Jauna.....	54
3.10. JIMENO Nafartarren ERREGE-LEIÑUA. ....	54
3.11. Bizkaiko 4n Jauna. ....	55
3.12. Bizkaiko 5n Jauna. ....	58
3.13. III In Santxo onen odorioa.....	60
3.14. Bizkaiko 6n Jauna.....	62
<i>Nafarroako erregetzan, 1.076-1.134ko urte bitartean</i>	
<i>Nafar eta Aragoiko erregetzak. ....</i>	65
3.16. Bizkaiko 7n Jauna. ....	68
3.17. Bizkaiko 8n Jauna. ....	71
3.18. NAFARROAKO ERREGETZA. ....	78
3.19. Emen, gogarketa labur bat egin bear dogu.....	84
3.20. Bizkaiko 9n Jauna. ....	85
3.21. Bizkaiko 10gn Jauna. ....	87
3.22. Itz edo taket artean esan bear dotena.....	87
3.23. Labairu eta Goikoetxeatar Estanislao Jaime. ....	88
3.24. Llorentetar Juan Antonio. ....	88
3.25. TXANPAÑA ko ERREGE-LEIÑUA. ....	94
3.26. Bizkaiko 11gn Jauna. ....	96
3.27. Bizkaiko 12gn Jauna. ....	97
3.28. Oar txiki bat.....	98
<i>Lan onen ondorio labur bat .....</i>	98

#### **Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estatusunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.**

**Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589**

# Atarikoa

Iru gauza aipatuko dodaz aurkezpen aurretik.

**1- Idatziaren,** agiriaren, gaia. Gai garrantzitsua, benetan Atutxa Jaunak, azaldu nai deuskuna: Euskalerriari jagokona alegia. Erri baten istoria edo bizitza gure deusku azaldu: sarrera, garapena, egintzak, garapenak, galtzeak, etorkizuna....

Guzti ori zabal zabalean, zeatazunez eginda. Lan luze eta neketsu ori Atutxatar Pauloren eskutik abiatu da. Bide luzea, aurki, gidatze segurutik eroanez. Zorionak, egille Atutxari. Emen labor bildu batez aipatuko ditut, oar batzuk.

**1.- ZATIAN.** Aurkezpen laborra. Mauritarren agerpen eta ezarketa. Asturiasko erregetza. Akitaniako dukaterria. Baskoniako dukaterria. Gaskuñaiko Dukaterria. Iruñaiko erregetza sortarazaz- teko agertu zana. Bizkaiko Jauntzaren sorkuntza.

**2.- ZATIAN.** Aurkezpena. Bizkaiko Batzar Nagusiaren baldintzak. Zer sortu jakien mauritarrei. Zelan geratu zan Euskalerrria .

**3.- ZATIAN.** Euskal Nafar eta Bizkaiko errege jaunen zerrendagaz 3 euskal edesti argitzen. Nafar ta nafar leñuzko etxeak. **ARIZTARREN ERREGE LEÑUA.** Bizkaiko Jauntzaren sorkuntza. Bizkaiko 2gn Jauna. **JIMENO NAFARTARREN ERREGE LEÑUA.**

Bizkaiko 2gn Jauna. Bizkaiko 3gn. Jauna. **III SANTXO AUNDIAREN ONDORIOA.** Bizkaiko 6gn. Jauna Bizkaiko 7 gn. Jauna Bizkaiko 8gn. Jauna **NAFAORRAKO ERREGETZA.** Bizkaiko 9gn Jauna. Bizkaiko 10gn Jauna, Bizkaiko 11gn. Jauna. Bizkaiko 12 gn Jauna.

## TXANPAÑAKO ERREGE LEÑUA.


**2.- Idazkerari buruz.** Nire uste apalean, sano errez irakurteko ta ulertzeko eran idatzirik dago eskuertean daroan eta azaltzen dauan istoria. Gramatika ta euskal sintaxialdetik ez det ikusi akats nabarmenik. Ikusten danez, gero ta obeki burutzen ditu lanak. Aupa, goraño.

**3.- Istoriatzale aldetik esan bear gai garrantzitsua landuten dakiala:** Euskadiarena alegia, Erriarena, Erri baten sorrera, garapena, gora berak. Batez be Erri baten sena, barrunbea, legeak, bake aldiak, istilluak, anaidi arteko iskanbillak, menperatu aldiak.


Oben da iorakurriaz batera, aogozatzea, mamurtzea, apurka apurka berrikustea, zatikatu bage, alde bat soillik azteretuz, Kontuz erri baten bizitzaren alde bat aztertzeaz.

**4.- Gauza bat oartuko nioke istoria-egille bateri.** Au da istoria egille batek ezer kontaktetan kontatu bear dauela Erriari jagokona eta iñolaz ere ez egillearen iritziari ondo jatorkona. Irakurleari eskuetan utzi bear dana, ez luke norberak atondu edo ipiñi bear.

Txaloak, benetan Atutxa Jaunari, sekulako lan garrantzitsu ta nekegarri egokiro erakutsiagaitik. Geroak geiago ta dotoreago goratu dagiala.



**EUSKERAZALEAK, da  
alkarte euskalduna,  
bazkide jatorrakaz  
egindako andana.  
Bazkideak bear dau  
benekotasuna,  
bai etxe ta kalean  
euskeraz dagina,  
biotzez ama izkuntza,  
maitatzen dauena.**





# 1'go ZATIAN.

## ***1. Euskalerriko Edestian, In ataleko idaz lanaren aurkezpen laburra.***

Euskalerriko edestiaren lenengo ataletik asita ikusten dogu, Euskal izaera ez zala nor-tasundu txantxetako eginkizunekaz, Izadi oneri begirun aundiagaz begituta, berak era-kusten ebazan ezin aldezko legeak onartuta baiño, ta bereztasunaren euskal azturazko oitura orreitan jendekuntzatuta, zelan eldu ziran Paleolítico Neolítico alditan gaur era-kusten dogun Euskal Askatasunezko Demokraziaren edertasunera, euken auzotasun edo lurraldearen batzarrezko antolamenduan.

Ia 28.000 urte goraberako epean zabaldu ziran euskal barri orreik Eskoziatik Kadize-raiño eta Atlant Itsasotik Alemaniaren erdiraiño, Auñamendiak ardatz lez euki ebela, arik eta inguruko erri zarrak salerosketetan asita, lurarteko itsasoaren inguruan euren uriak irasi arte.

Sargonidas ekialdeko kaisar menperatzaileak, ango erri ta izkuntzak milla zati egin eta dana nastuz lokaztuta, gogaituta egon ziranak erri aldan ipinita alan agertu ziran keltiarrak K.a. 2.000 urte ariño, Alemaniako lurraldeak erdigune lez artuta, Europako Ekialde guztian euren leiñuzko auzoetan laterrituta ezarri zirala.

K.a.753ko urtean, Etruskoak Italiako lurraldeetan Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egon ziranak, espartar guda antolamenduan erromatarrak sortu ebezan, eurak irasiten ebazan salerosketako uriak babesteko, eta oraingoan, Europaren barnetik asten dira menperatzailetasunezko larri aldiak, erromatar gudalozteak irasi ta gero.

Guda punikoak eta Fenizioaren aurkezpenagaz amaitu gendun Euskalerriko Edesti onen lenengo atala.

Eta VI-In Mende artean, keltiarren Tene deritxon goimailazko aldian, keltiar leiñuak zabaldu zirana Europako lurralde guztietara.

Euskalerriko lur zabaltasunari, ortik aurrera asi jakozan murrizketak, bere lurraldea Frantziko Loira ibaitik, erdi Ugarte onen Kadizeraiño, eta Atlant itsasotik Akitania ta mendebaleko Alpesaren lurraldeakaz mugatuta euki genduzenetik.

Ortik aurrera, K.o. 325ean I Konstatinon, I Silbestre aita Santua ta Osio Kordobako gotzaiñagaz batera, Nizeako Eleiz batzar nagusia batzeko agindu eben.

-Eta erromatar goitik berako araudian, Kristautasunaren katolikotasuna sortu ta alderdikedetu eben.

-Munduan, norkeriz egin dan lapurkeri aundiena egin eben, erromatar kaizertza eta Aita Santuaren uts ezintasunak dogmaren arauz, eta mendeko eritziak bear dauzan osagarritzko siniskai legeakaz ezarri eben, Jainkoak, bereztu eban Ludi oneri ta oiñarritu eutsozan lege guztiaren aurka.

Orregaitik munduko errigizarteak kontrolpean batzangotzeko kaizar edo Aita Santuaren mende, bizitzeko bear doguzan on guztiaren kontrola euki dabe, gaur agertzen dan lez.

Eta ziñezkintza edo dogmatika bidez olan egin ebenetik, munduko merkantillezko norkeriari edo diru zalekeriaren fazizmoari zabaldu eutsezan ate guztiak, dogmaren arauz munduko gizartearen jakintsu geienak norkerira bideratuz, Jesusek, bereztasunaren buruz emon euskuzan aolku guztien gaiñetik.

Orregaitik ez gara arritu bear gaurko merkantilismo eta diruaren sasijainkotasunagaz, munduko errigizarte guztia mendeko asmakizun orren kontrolpean eukiaz, ta eurak gu bizitzeko bear doguzanakin jabetuta, Jainkotasunaren parean kokatu ziran, mundu onen gazabak sendituta.

Toledoko bisigodoaren kaisertza, godo, ta Franko leiñuen aurkezpena be egin gendun, eta oraiñ jakiteko Euskalerrria zelan geratu zan gero ta inguratuagoa, gure nafar erregetza ta Bizkaiko jauntzak irasi arte, Mauritarren agerkeria, Banu Kasi leiñua, Asturiaseko erregetza, Karolinjio leiñuen sorkuntza, Akitania, Baskoniako dukaterriak, eta askeneko germaniarren sarraldikoak geratu ziralta kokatuta argituko doguz, arik eta mauritarrak etorrita jakin daigun, zelako antolakuntzak egin ziran Europako mendebal onetan, erri zarrak euren jaurkintzan ezartzeko jaun errege lez.

### **1.1. Mauritarren agerkeria ta ezarpena.**

Mauritarren asieran, talde andi bien artean bateratu egiten dira.

Noe aitaleeneko seme Sem´etik datozen *Al-Ariba*, edo *Asieratik Naste bagekoak*, eta *Al-Musa ribah* edo *mauritatortuko arabiarrak*, Abraan eta bere seme Ismaeletak datozenak.

622ko urtean Mahoma eta bere alderdikidearen iges egitea Medinaren auzoko urira deitzen jako Hegira. Eta Mahomaren leen urtea izan zalako erregezko jaurleri erri gizon eta euren erlijiozko buru lez, orduko oitureari ebatuta, urte orretatik azten dabe edestilariak mauritarren egutegi ta urtekaria argitzen.

636ko urtean mauritarrak Persia erasotu eben, eta 640an lortu eben menperatzea.

644ko urtean, Txipre menderatzen dabe.

651eko urtean Tiflis eta Armenia menderatzen dabe.

Eta 654ko urtean, Rodas. Euren jaurkintz berezia Siria, Persia, Palestinan eta Ejipton ezarri eben.

661eko urtean Siriako omeyaren Mohabia jaurleriak, zalantzan ipini eban Ali kalifaren agintarritza, ta Ali il ondoren, omeyaren leiñukoak jaurkitu eben aurrerantzean.



674ko urtean Konstantinopla menderatzen joan ziran, baiña ezin eben lortu ezer.

698ko urtean, Afrikako iparraldearen Kartagoko lurralde aberats´ekaz geratu ziran.

710eko urtean Zeuta menperatu eben.

Eta 711ko urtean erdiugarte onetan sartu ziran.

711ko urtean Uztaillaren 19an Tarik Ibn Ziyad´en Mauritarrak, Rodrigo jaunaren godo gudalozteak ezereztu ebezan Guadalete ibaian, Medina Sidonia inguruan.

Godoak, ortik aurrera aienatu ziran, baiña ez ziran aienatu 325eko urtean Nizean, Mundu au jaurkitzeko katolikotasunezko erlijioan batzangotzeko sortu ziran asmoak.

712ko urtean, Pipinok beste borroka bat euki eban alamandarrakin eta irabazi ondoren, alamandarrak frankoen jaurkintzazko agindutara geratu ziran.

Arnulfidaren eragipenean ez ziran egon Galiaren ego aldeko lurraldeetan baiña, estutu egiten ziran lurralde arteko arremanak askatasun geiagoa eukiteagaitik, Auxerretar Sabariko Borgoñako gotzaia, Probenzako Antenor, ta Akitaniako Eudesez zirikatuta.

713ko urtean, Ebro ibaiaren erdi aldeko Kasi bisigodoaren konderrian agertu ziran mauritarrak, onek Omeyako Kalifatoaren alde kokatuta eta islano erlijioa besarkatu ondoren, Banu Kasiren leiñuari asiera emon eutson, bera lurralde orren jaurlari lez geratuta.

714ko urtean Eristaltar Pipino il zanean, Akitaniako Dukateria frankoen erregetzara lotuta egon zan, eta bakezko itzura emoten ba eben jaurkintz orreik, laster biurtu ziran euren arremanak anai arteko guda zitaletan, mugaldeko lurraldeak, pipinidasen eragipenetik alde eginda.

Pipinok, Teudoaldo euki eban etxezain lez ondorengotuta, bere alarguna Plektrudisen agindupean, IIIIn Dogobertoren aurka agertu zana, Dogobertok, Rajenfrido izendatua gura ebalako etxezain lez merobinjioaren errege guztientzat.

Laster agertu zan irugarren leiakidea, Eristaltar Pepino erregearen sasiseme eldua izan zan Marteltar Karlosegaz Austrasiako etxe zaintza eroateko.

Plektrudis ta Teudoaldo biak baiña, IIn Txilperiko Merobinjioaren errege ta bere etxezain Rajenfridok menperatuta, Marteltar Karlosek<sup>(1)</sup> IIn Txilperikoren aurka kokatuta, bere errege IVn Klotario Merobinjioa igon eban erregetzara.

716ko urtean Iruña mauritarragaitik menperatuta egon zan, euskaldunen alegiñak oso zitalak izanda.

718ko urtean asken baten, Marteltar Karlosek Soissons´eneko borrokan bere etsai guztiak menperatuta, beartu ebazan euki ebezan ardurak bertan izteari.

Eta ondo artuta Txilperikoren etorkizuna errege lez, Martelek bere ardurapean artu ebazan aita Pipinoren ardura nagusiak frankoen erregetza guztietarako, Merobinjioaren leiñuakaz amaitu eban, eta Martel ta bere ondorengo karolinjioak jaurkitu eben ortik aurrera frankoen erregetzak, naita erregeak izan ez arren.

718ko urtetik aurrera Marteltar Karlosek, menpetasun batzuen billa asi zan matxinatutako saioengandik asita, Europaren mendebal onetan bere indarkeria ezartzeko naian.

(1) Marteltar Karlos = "maillua" izen-goiti lez euki ebena, eta 689-741 urte bitartean bizi zana.

718ko urte onetan be, Iruñako urian sartu ziran mauritarrak eta beartuta geratu ziran Iruñarrak zergak ordaintzera mauritar jaurlariai.

719ko urtean Marteltar Karlos, Frisiako mendebalaren lurraldeetatik ibili zan.

720ko urtean In Txilperiko il zanean, Marteltar Karlosek IVn Teodoriko ipini eban errege lez, au baiña ez zan panpabitxi bat baiño besterik, bere eskuetan.

720ko urtean mauritarrak, Asia txikerra ta Turkestaneko lurraldeak Indo ibaiararte menperatu ebazan.

720ko urte onetan, Mauritarrak peninsula onen jabetasun osoa lortu eben, eta Galiasetan aurkako *razzias* edo, azkartasunezko eraso alditan asita, Toulouserri eraso utsoen.

Eudes Aundiak, bere ardurazko lurraldea babestearren, erdi ugarte onen iparraldeko mauritarren Emirra Abinessa zanaren alabeagaz ezkondu zan.

Abd-el-Ramanek baiña, Abinessa baztartuta eta Auñamendietatik aldatuta, Autx eta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauzen ikaragarritzko zarraskiak egin eta gero Toursera joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

723ko urtean, Marteltar Karlosek ostera, matxinatu ziran saioaren aurka joan zan.

724ko urtean Martelek, Neustriaren ariñauko etxezaiña Rajenfrido eta beragaz matxinatu ziranak menperatu ebazan, euki eben anai guda zital ori amaituta.

725eko urtean mauritarrak, Frantziaren Audeko lurraldean eta Karkasonako ibai ondoan dauan Karkasonako uria artu eutsoen bisigodoari.

725-726ko urte bitartean eta guda amaituta, Babierako Ujberto babaroen dukerrirako autakuntza baldintzatu eban, ortik aurrera alemanak beartuta, berari lagundu egiotsien Babierako guda ekitaldietan, IVn Teoderikoren izenean egindako legeak azalkatuta.

730eko urtean Karlosek, Alamania menperatu bear izan eban eta bere Lantfrido dukea il.

730eko urte onetan mauritarrak, bisigodoaren menpean egon ziran Septimaniako lurraldeakaz jabetuta, iparralderantz bideratu ebazan euren erasoak, Akitaniako Eudel dukea, Marteltar Karlosen laguntza eskatzera beartu ebana.

732ko urtean, Galiako lurraldeetatik Poitierseraño joan ziran baiña, Eudes eta Karlo-majnok, bialdu ebazan andik.

732ko urte onetan Karlos Martelek Eudes´eri laguntzen joanda eta Abd al Ramanen mauritarrak euren gudalozteakaz Frantziako ipar alde erasotzen ibilita Poitiersera eldu ziranean, bertan aurkitu ebazan Eudel dukea ta Marteltar Karlosen gudalozteak, eta moruak ondo astinduta gero, betiko igaroazo eutsoen Auñamendia mauritarrai.

Martelentzat gauza ona izan zana, ortik aurrera Frantziaren egoaldeko lurraren jabetasuna lortzeko. Eta batez be, Europak euki eban islamizazioaren arriskutik kanpo geratuz, katolikotasunaren menperatzailetasunezko asmo eritziak jabetu egiezen.

734ko urtean Marteltar Karlosek, Frisiaren ekialdeko gudalozteakaz borrokatu eban eta lortu eban menperatzea.

734-740ko urte bitartean ta euskaldun borrokalariekaz beartuta, mauritarrak guda zainpean ipini bear izan eben Iruñako uria, 741eko urterarte iraun ebana.

735ean Eudon Aundiak, ez eban on artzen iñolako nagusitasunik frankotarren aldetik, eta Karlos Martel Euskalerrian sartu ta Eudon il eban. Eudonen urrengoa, bere seme I Unaldo izanda, frankotarrak zintzotasunezko ziñ-itza<sup>(1)</sup> emon ostean.

735ko urtean, Mauronto dukearen gudalozteak aurkitu ziran mauritarrak eta ekialderuntz bideratu ebazan mauritar gudalozteak Arleseko uria menperatuta.

737ko urtean mauritarrak Abiñon artuta, euren eraso azkarrak<sup>(2)</sup> Lyon eta Akitania-raiño eldu ziran. Eta urte onetan il zan IVn Teodoriko erregea.

739ko urtean mauritarrak, naita Probenzako etxezaiñaren birreraso aldia euki, lonbardoak keiñatu edo ta larderiatu ebazan, ta Marteltar Karlosek lonbardoaren laguntzagaz, ia lortu eban lurralde orren jabetasuna, alde batera eta bestera ibili zana 759ko urtean, IIIIn Pipino Laburra Narbona jabetu arte.

741eko urtean eta Marteltar Karlos il orduko, erregea izan balitz lez, berak lenengo emazteagaz euki ebezan seme bien artean banandu eban erregetza, Grifon seme txikerri iñork ez dakien lur ondasun edo beste gauza batzuk emonda.

IVn Teodoriko il zanetik ez zan egon erregerik, Marteltar Karlosen semeak, IIIIn Pipino Laburra<sup>(3)</sup> eta Karlomanek<sup>(4)</sup> naita erregetzaren ardurazkoak izan, etxezaiñaren ardurak bakarrik auki ebazan, eta errege ordezeko lez, Karlomanek Austrasia, Alamannia eta Turinjiaren arduragaz geratuta, Pipinok, Neustria, Probenza ta Borgoñaren ardurak artu ebazan.

Eta bananduzko ardura orreik erakusten dabe, zelango askatasunak euki ebezan Unaldok bideratzen eban Akitania, eta Odilonek Babieran, banaketa orreitan ez ziralako sartzen.

750eko urtean, iraultza barri bat egin eben iraniar Abasidasek, eta Abderraman izan ezik kalifa guztiak il ondoren, Abul-Abás egin eben kalifa, bere jaurkintza Bajdadeko urian ezarrita, arik eta 945eko urtean Selyuzidas edo mauritar turkiarrak, kalifatoa euren agindupean artu arte. Ekitaldi oneitan, Kordoba, Ejipto ta Marruekostarrak alde egin eben Bajdadeko eragipenetik.

751ko urte onetan, Karlos Martelen seme Pipino Laburragaz ikusten dogu, zaldunai laguntza eskatuta, zelan IIIIn Txilderiko bota ebenean merobinjioaren erregetzatik lortu eban karolinjioaren onespina, ekintza orregaz, berak irasi ebalako Karolinjioaren errege leiñua.

756ko urtean IIIn Marwan´egaz, anai arteko irugarren guda euki eben islam´darrak eta ia Omeyaren leiñu guztia ilda, danetatik Abd al-Rahman edo Abderraman gazteak lortu eban iges egitea, eta erdiugarte onetara eldu zanean, Askatasunezko Emiratoa irasi eban Kordoban.

909-926ko urte bitartean, kalifaren batasuna apurtu zan Islam guztirako.

909ko urtean Magreb´eko fatimitarren matxinada sortu zan mahdi Udayd Allah´ek bideratuta, berak kalifaren izena artuta.

929ko urtean gure erdiugarte onetan ta ego aldeko al-Andalusen, Abderraman da berentzat Kalifaren izena artzen aduana.

(1) Zintzotasunezko ziñ-itza = juramento de obediencia, fidelidad, rectitud, honradez. (2) Eraso azkarrak = razzias. (3) IIIIn Pipino laburra = 715-768ko urte artean bizi zana. (4) Karloman = 715-754ko urte bitartean jauregiaren etxe-zaiña, Marteltar Karlosen semea, 747ko urtean Sorakte mendian lekaretxe bat egin ebana eta gero bera 750eko urtean Kasino mendiko abat-etxean sartu zana.

## ***Emen, oarkizun berezi bat.***

Mauritarren etorreragaz, euskerearen mintzotasuna galdu zan Ebro ibaitik Kadizeraíño, mauritarrak euren izkuntzara aldatu ebazalako, erreka erri ta lur zabalaren euskal toki izenak, adibidez: *Arriaka = Guadalajararen izenagaitik aldatuta, Ispalis = Guadalkibirren izenagaitik, Salduba = Zaragoza'gaitik* eta abar. Erri ta toki izen guzti orreik euskerazko eragipenez etorrira egon ziran Paleolítico Neolítico bitartetik aurrera aldatu ebazan.

Eta Ebro ibaiepeko lurralde orreitan katolikoasunezko meperatzail eritziak, euren garaienak lortzen joan ziran bidez, gaztelar latín-kumera aldatu ebezan leen euskerazkoak izan ziran erri ta toki izenak, askenean mauritar-gaztelako naste baten geratu diranak.

*Ata guzti, ez jakie aín erreza egingo euskerazko aztarnak aienatzea, euskerearen milla urte askotako eragipenak Europaren mendebaleko lur zabal onetan oraindiño or aurkezten diralako ugari, bai ta Ebro ibaitik Kadizeraíño euskerazko toki izenak eta euren gaztelarazko latinkumean, euskerazko berbak non nai aurkitzen dozuzelako apurbat arduratu ezkerro. Or alegindu bear dira gure gaurko edesti ta izkuntzalariak, eragipenezko indar aundia izan zalako euskereak euki ebena ainbesteko milla urtetan.*

Katolikotasunezko menperatzail erlijioaren estalkipean ondo ostonduta ekarri dabena, euren sasi-jainkotasunaren itsutasunezko asmakizunean, *euskal edestiari ezereen aipamen egin barik eta guzurrean, espainaren bir jabetzazko edestia izan balitz bezala ekarri gura izan dabelako.*

Baiña Europaren orduko denboran, agintari jakintsu orreik eurak be ez eben jakin *katolikotasunezko aberrian asmatutako espain, frantzez, aleman* eta abar erri asko orreik, zer izango ziran, eta gitxiago, egiz noraiño elduko ziran.

*Katoliko menpekotasunean batzangotzeko*, lenengo asmakizunezko katoliko itz eta eritzi ori, berezko lege aurrean guzurra izanda, berezko egiegaz ezin dalako elikatu.

Eta gaur argi ikusten dogu, ainbeste guzur bata besteen gaiñean berezko errigizarteak kontrolatzeko, euren eskuetan geratu dirala diru ta mozkin guztiak, mundu onen berezko errigizarte guztia, joputasunaren morroitasunezko beartasunera bideratu dabelako, euren sasijaintasunezko diru gosean.

Jainkoaren lege ta Europaren berezko erriaren aurkako borrokan alegindu dira gaurko egunerarte, eta naikoa dala uste dot gagozan jakitunezko denboratan, Jainkoak izadi oneri ipini eutsozan legeetara aldatu gindezen, ez dagoelako iñungo eskubiderik, gaur batzuen sasi jainkoaren eritizko buru gogorkerietatik urten ez egiteagatik, munduko erri ta errigizarteak, ainbeste morroirtasunezko nekaldietatik urten ezinik egotea.

Jainkoaren lege bidetik argi agertzen jakuna, zor-eskubidearen eragille edo arduradunak jaioten garela, eta Jainkoak ipinitako lege orreitara aldatu bear gara len bait len, ez dagoelako eskubiderik, gaur, Jainkoaren izena lapurtuta egiten doguzenak egiteko

*-Ez zan arrazoibagekoa Aita Santi Onaindiak esaten ebena: "Jainkoari begira, egiz bizi arren be, Euskalerrriak, etsai asko edo larregi eukezala".*



## 1.2. Asturiaseko erregetza.

I Rodrigo<sup>(1)</sup> jauna izango zan urrengo errege erdiugarte onetan, Bitiza<sup>(2)</sup> bisigodoaren erregetza ostean, Bitizaren seme Akilari<sup>(3)</sup>, I Rodrigo beren seme ta aditsu<sup>(4)</sup> batzuen laguntzarekin alkartuta, Akila baiño geiago zalakoan, erregetza lapurtu eutsen Akilari, eta anai arteko guda sortuta, I Rodrigok mauritarren sarrera erreztu ebala diño batzuk.

Edestiko arauz baiña: **Erregeak, Zeutako gobernari edo guda jaurlari Julian kondearen alaba Florinda<sup>(5)</sup> bortxatu egin ebalako**, onek gaztelua, Mauritarren eskuetan itxi ebala diño, gero Bitizaren semeakin batera Mauritarrai lagunduta erdi ugarte oneitan sartu zitezen.

589-711ko urterarte egon ziran bisigodoak Toledoko errege edo kaisertzan.

711ko urtean Uztaillaren 19an, Muzaren mauritarrak Tariken agindutara erdi ugarte onetan Kadizetik sartuta, Rodrigo bisigodoaren gudaloztea ezereztu eben.

Dana dala, 711n Uztaillaren 19an Tariken Mauritar indarrak Guadaletoko ibai inguruan, Rodrigo jaunaren godo gudalozteak ezereztu ebezan.

Gaurko edestilari batzuk esaten dabe, Barbateko ibai inguruan egin zala borroka ori, eta kondairak Guadaletoko ibai inguruan.

Kadizeko lurraldean dagoz biak, leenengoa auntzen mendietatik jaio eta beren urak Atlant itsasora botaten dabezanak, eta bigarrena Mugako Jerezen<sup>(6)</sup> ondolik joaten dana eta beren urak Kadizeko ur golkoan botaten dabena.

Eta bisigodoak borroka orreik galdu arren, ez ziran ezereztu, Konstantino<sup>(7)</sup> ta Reka-redok<sup>(8)</sup>, Nizean sortu ta Toledotik katoliko aolkularitzan bideratu ebazan erromatar godo lege bilduma orreik, 711n Pelayo jauna sasilegedi **rex gratia dei** guzti orreikaz Asturiasen kokatu zalako.

Pelayok Kobadongako guda mauritarrai irabazi ondoren, eta erromatar katolikotasunezko menperatzail kaisertza ori eskuratuta, 718ko urtetik aurrera eta Obiedoren Kan-gas de Oniseko errege aulkitik, jarraitasunean ipini ebalako.

711ko urtean Mauritarrak erdi ugarte onetan sartu ziranetik, bost urte baiño besterik ez izan bear ebazan erdiugarte onen lurraldeak menperatzeko, Auñamendikateak izan ezik.

714ko urterarte egon zan Pelayo Toledoko kaisertzan babestuta, arik eta mauritarrak menperatu arte.

714ko urtean Pelayo Toledotik iges eginda, Asturiasera joan zan.

Asturiaseri izena, zekulabe ez jako aldatu, ta izen ori beren erreka nagusitik Asturias ibaitik<sup>(9)</sup> artuta dauka. Gaur Esla ibaia esaten dautsoenei.

718ko urtean Pelayo Asturiaseko nagusia izenduta, batu ebazan asturiarrekaz matxinatuta zan, eta Munuza mauritar jaurlariak Pelayo atrapauta Kordobara bialdu eban, Pelayo andik iges eginda.

(1) Rodrigo = ?- 711ko urte bitartean bisigodoaren errege zana. (2) Bitiza = 701-709ko urte bitartean bisigodoaren errege zana. (3) Rodrigok, Bitizaren beste seme batzukin (?). (4) nobles. (5) Florindak euki enban gaitz-izena = la Caba. (6) Jerez de la Frontera. (7) Konstantinok 325eko urtean I San Silbestre Aita Santuagaz egin eben Nizeako eleiz batzar nagusia. (8) I Reka-redok 589ko urtean egin eban Toledoko eleiz-batzar nagusia. (9) Asturias = atz-ur, Aitzetik urtetan dauan ura esan gura aduana.

722ko urtean Munuza mauritar jaurlariak, bere Al Qama guda nagusia bialdu eban Pelayo egon zan Bres Piloñako<sup>(1)</sup> errira, eta Pelayok beren taldeagaz Piloñako errekea aldatuta, Auseba menditik Kangaseko ibarrean Kobadongako leize zulo baten geratu eta andik erasotuta, Al Qama mauritarren gudalozteak ezereztu ebazan, eta Gigiara<sup>(2)</sup> joanda, Munuza jaurlaria il eban.

737ko urtean il zan Pelayo eta bere seme Fafila edo Fabila igon eban erregetzako aulkira.

739ko urtean Fabila onek baiña, eizan ibili zala beste lagun batzuekaz, artz batek il eban, urrengo errege, Pelayoren Ermenesinda alabeagaz ezkondata egon zan I Alfonso katolikua<sup>(3)</sup> izanda, Asturiaseko erregetzara igon ebena, ta erromatar ta godoen aria ostera artuta, bera izan zan Nizeako katolikotasunezko menperatzaileari indarra emon eutsoena, erromatar godoen lege fazizta orreik, beti etorri diralako katolikotasunaren aolkularitzapean.

Frantzia eta espainak ortik aurrera, eleiztar katolikuaren aolku aginduan bideratuta euki ebezan aldiko erregeak, ez eben iñungo errukirik euki, Jaungoikoak Bereztutako Legearen aurka, berezko eta sinismen aundiko kristau erri zintzoak sarraskitzen, naita errien iltzailleak<sup>(4)</sup> dirala entzun arren. *Nungo Jainkoari asi ote ziran gurtzen ?.*

*Errigizarteak arkume lez artuta eta Katolikotasunean euki ebezan batzangotzeko asmoak aurrera eroateko, eta berezko ezberdiñaren erritar bizitzak euren eritziaren ekanduzko oreka baten ezartzeko, zor ordainezko ardurak eskubidez orekatzeko egin ziran tresneri guztiak, euren kontrolpean bear zituzen, eta ortik asita dirua da, urrezko zekor lez ipinita, mundu onetan geienak gurtzen dabena leen, gaur zoritzarrez sortzen jakun lez.*

Kristautasunaren ekandua ta katolikotasunaren norkerizko asmakuntza, alkartuta ote leikez eroan ?.

Jainkoari begira Kristautasuna, Jesusen aolkularitzatik agertzen jakuna da. Zer da, zeri begira edo ta noren eritziakin eginda ote dago menperatzailetasunezko katolikotasun sakratu ori ?.

Argi ikusten da, biak batera ekarri ezkeru, txinpartak atara egiten dabezela edestian, gaur sortzen dan lez.

Gure *Arimak* ez dira gizatzen mundu onetara *morroi* izateko, *nor* izateko baizik.

Eta egunen baten danok batzangotzen bagara, danon borondatezko sinisteak ulermen batera elduta alan eskatzen daualako izango da.

Frankotar-Asturias-Leon-Gaztela eta Aragoiaren aldiko erregeek ortik aurrera, ez eben eukingo iñungo errukirik, eleiztar katolikuaren aginduz bideratuta, Jaungoikuak bereztu ebazan legeen aurka joateko, eta ez berezko ta sinismen aundiko kristau erri zintzoen izkuntz eta aberriak sarraskitzeko, nai erri iltzaillezkoetan biurtu arren, Jainkoaren ordezkotzan ezarri ziralako.

757ko urtean il zan I Alfonso katolikoa eta bere seme I Fruela<sup>(5)</sup> igon eban Asturiaseko erregetzaren aulkira. Obiedoko uri nagusiaren sorkizuna emoten dautsoe berari.

(1) Bres´eko Piloña (piloña ibaia) = Obiedoko gotzainpean dagoena eta Kangas de Onis´en Auzi barrutikoa. Kangas de Onis izan zan Asturiaseko erregetzaren lenengo uri nagusia. (2) Gigia = gaurko Gijon dana. (3) I Alfonso katolikua = 693-757ko urte bitartean bizi zana, eta 739-757ko urte bitartean Asturiaseko errege lez. Kantabriako Pedroren semea eta Pelayoren suñe. (4) Erri-iltzailleak = genocidas. (5) I Fruela = 722-768 urte artean bizi zana eta bere Kantabriako etxeoak il ebena.

768ko urtean il zan I Fruela, eta bere urrengo errege Asturiaseko Aurelio<sup>(1)</sup> izango zan, Pedro Kantabriako etxearen billoba zana.

774ko urtean Aurelio il zanean, Silo<sup>(2)</sup> igon eban Asturiaseko erregetzara, gorte edo erregetxea Prabiara eroan ebana.

783ko urtean Silo il zanean ondorengo barik, II Alfonso Nasgabeari<sup>(3)</sup> egin eben errege, baiña I Alfosoren sasi seme Mauregatok kendu eban erregetzatik eta ez eban berrezkuratu 791ko urterarte.

842ko urtean II In Alfonso nasgabeari il zanean, I Ramiro<sup>(4)</sup> Bermudoren semea ipini eben erregetzan anaien arteko guda baten ostean, eta beragandik asita, aldikada aundi baten beintzat ez eben bakerik euki mauritarrekaz.

850eko urtean I Ramiro il zanean bere seme I Ordoño<sup>(5)</sup> ipini eben erregetzan eta onek maltzurkeri aundiagaz mauritarren aurkako laguntza eukitearren, Saldubako<sup>(6)</sup> Banu Kasiren sendi eta Iruñako euskal erregetza barriagaz be arremandu zan, eurakaz be sarritan borrokatuta, katolikotasunezko nagusitasun ori lortzeko, eleiza aldetik baldintzapatuta egon zalako, Europako errege katoliko guztiak lez.

Dana dala, Obiedoko Asturias, Santillanako Asturias ta Kantauritar Liebanako lurak dira len asi zirenak mauritarrengandik katolikotasunezko siñezkintza berrezkuratzen.

***Espainar edestilari maltzur batzuk, espainaren bir-jabetzaren berrezkuratzea esaten dabe zala, orduko denboratan baiña, iñundik iñora ez zan jakitzen zer izango otezan espainitarren izen ori.***

856ko urtean, I Ordoño izan zan Leoneko uria Asturiaseko erregetzara alkartu ebana, bera inguratzen ebazan ormak ostera eraikita.

866ko urtean I Ordoño il zanean, bere seme III In Alfonso<sup>(7)</sup> Aundia igon eban erregetzako aulkira.

909ko urtean itzi eban erregetza III In Alfonsok eta bere iru semearen artean banandu: Garziak, Leon eta Gaztela; II In Ordoñori Galicia; eta II In Fruelari Asturiaseko erregetza.

982ko urtean II In Bermudok alkartuko ebazan Leongo lurralde bi orreik.

---

(1) Aurelio = 768-774ko urte artean Asturiaseko errege izan zana. (2) Silo = 774-783ko urte bitartean Asturiaseko errege zana. (3) II Alfonso Nasgabeari (el casto) = 759-842ko urte bitartean bizi zana eta errege lez 791-842ko urte bitartean. Bere erregetzan aurkitu eben Santiago apostoluaren arrillobia, eta berak antolatu eban eleis jai Jakobeoak edo Santiagoren gurketak baita Santiagoren bidaiak sortu ebazanak, berea izanda ipini eben lenengo irudia Santiagotik-Europarako bidaiak zabaltu ebanean. Geiago Karlomajnogaz lotzeko bidaiak egin ebana. Bere ama euskalduna zan eta Muniaren izena euki eban. (4) II In Alfonso nasgabeari ondorengo I Ramiro au = 791-850eko urte bitartean bizi zana, eta errege 842-850ko urte bitartean. Bere erregetzako denboran 844ko urtean egin zan Klavijoko borroka ospetsua Kordobako Abderraman emigraren aurka, Santiago apostolua zaldi zuri baten gainean euren alde borrokatuta, edestiak esaten dauan lez. (5) I Ordoño Asturiaseko errege = 850-866 urte bitartean errege, I Ramiro eta ama Paternaren semea, Errioxan, Zaragozako Muza mauritar erregeari irabazi eutsona, Salamanca eta Korria artu ebazanak eta Astorga, Leon, Tuy eta Amaya erdiugarte onen iparraldeko gizon-emakume kristauekin bir-eritu ebana, Nafarroako errege normandoagaitik baituta egon zan Garzia Iñigezeri be askatzen lagundu eutson, eta Saldubako Banu Kasigaz be arremandu aundiak euki ebazan. Ainbeste borroka egin eban gizona eta beren ondorengo, bere seme III In Alfonso zan. (6) Salduba = Zaragoza. (7) III In Alfonso Aundia edo Majno = 838-912ko urte bitartean bizi zana, eta errege lez 866-909ko urte bitartean.

### 1.3. Asturias eta Leongo erregetzak.

791ko urtean, I Bermudoren<sup>(1)</sup> seme I Ramiro igon eban Asturiaseko erregetzaren aulkira, erriak euki eban anai arteko guda ostean.

844ko urtean itsas lapur normandoak be agertu ziran Jijonen itsasoaren bazterretatik, eta ezeren aurkako barik, Koruñako *Faro de Brigantinarraio joan ziran, an aurre egin eutsoenak al-Andaluz edo egoalderantza bialduta.*

844ko urte onetan Kalaorrako gotzai-barrutiko Logroñon dauan Klabijoko errian egin zan borroka ospetsuan, I Ramiroren gudalozteak, Kordobatik Abderraman emirrak eroan ebazan mauritar gudalozteak birrindu ebazan, *Santiago apostolua be, Asturiarren alde borrokatzen ibilita bere zaldi zuriagaz.*

856ko urtean I Ordoñok Leoneko uria Asturiaseko erregetzagaz alkartu eban, eta bera inguratzen ebazan ormak zarrak berriz konponduta, Leon garrantzi aundiko lurraldea biurtuko zan Asturiarrentzat.

882ko urtean Asturiaseko errege IIIn Alfonsok, Leoneko ingurua<sup>(2)</sup> Mauritarren eskuetatik askatu gero, ta Xn gizaldian beren seme IIn Ordoñok lurralde biak erreñu baten alkartzeko, Asturiaseko erregetzaren uri nagusia Leonera eroan eban<sup>(3)</sup>, eta 1.230ko urtean Nafartar erreñupetik alde eginda, biak Gaztelako erreñuagaz bat eginda geratuko ziran.


914ko urtean I Garzia ondorengorik bage il zanean, IIn Ordoño<sup>(4)</sup> Leonera joan zan, eta bertan errege lez goraldu ebenean, ekintza orregaz Galizia eta Leongo errege lez geratu zan.

Eta Asturiasen erregetzazko uri nagusia Obiedotik Leonera aldatu ebenean, or sortu zan Leongo erregetza.

Gero IIn Fruelak<sup>(4)</sup> nai ta Asturiasen geratu arren, Asturiasen gaiñetik ipini eban Leongo erregetza, arik eta 1.230eko urtean IXn Alfonso<sup>(5)</sup> ilda eta bere erregetza alabari emon ondoren, Gaztelako IIIn Fernando<sup>(6)</sup> IXn Alfonsoren semeak, bere arrebarengandik lortuta, eukan Leonen erregetzazko eskubideak beren mesede iztea, gaztelarrakaz erreñu bat egingo eben.

*Eta emen ikusten da iñun baiño argiago, zela irauten dauan katolikotasunaren aberri-tasunezko batzangotasun ari ori aundiagotzen, gero Europa, lurralde zabaleko laterri-tasunetan aberrituko ebana. Jaungoikoak bereztutako lege, eta bereztasunezko legeagaz sortutako erri ta erritarren aberritasunezko eskubideak zapaldu ondoren.*

(1) I Bermudo Diakonoa, Asturiaseko erregea = 789-791 urte bitartean Asturiaseko errege. (2) Leonen izena, bertan kokatuta egon ziran erromatarren VIIn lejiñoaren izenetik artuta dagoena da, Sil ibaitik ataraten eben urre gorria zaintzeko zana. (3) Garrantzi aundia emon eutsona. (4) IIn Ordoño = 914-924ko urte bitartean Asturias eta Leongo errege zana, IIIn Alfonso Aindiaren semea zana. (4) IIn Fruela, Asturias, galicia eta Leongo erregea = ? - 925eko urte artean bizi zana, IIIn Alfonsoren seme, eta bere anai IIn Ordoñoaren ostean errege izan zana. (5) IXn Alfonso Leongo erregea = 1.171-1.230ko urte artean bizi zana, eta errege lez 1.188-1.230ko urte bitartean, IIn Fernandoren seme eta IIIn Fernandoren aita, 1.220ko urtean Salamankako Ikastetxe Nagusia irasi ebena. (6) IIIn Fernando Santua = IXn Alfonsoren semea eta Gaztelaren Balladolizeko errege izendatu ebena.



*Aingeruaren Gurutzeari ordextu eutsen. Garaipeneko Gurutzearen aurreko aurpegiaren irudia.*



*Arrigarria da emen ikusten doguna: "Jaungoikuaren esana bidetik egiten dabezela gauza guzti oneik esan", "Jainkoak Izadi oneri Bereztu Eutsozan Lege guztiak zapaltzen dabezan bitartean".*

*Alango gauza arrigarriagorik ikusi leike ?.*

*Euren batzangotasunaren burutakizuna, erreljioaren politikazko bidetik egitea zan.*

Gero, 1388an II In Juanek<sup>(1)</sup>, bere seme Enrike Lankasterreko Katalinagaz ezkondu zanean Asturias printze erri sortu eben, eta andik ona espainako erregearen leenengo semeak errege izatearen aurretik, Asturiaseko Printze izena izaten dau.

#### **1.4. Karolinjio kaisar-erregetzaren sorkuntza.**

*Karolinjioaren erregetzazko aurkezpen labur bat egingo dogu, Akitaniako Baskoi dukaterrria ta Asturiaseko erregetzagaz egingo dogun lez, konturatu gindezen Euskalerrriak, zelako ingurutasuna euki eban denbora aietan.*

Metz'eko Arnlful ta Pipino Zaarraren<sup>(2)</sup> leiñuzko semeagandik agertzen jaku karolinjioaren Austrasiako erregetzaren leiñua, Fredegariok<sup>(3)</sup> esaten dauskun lez.

714ko urtean Eristaltar Pipino il zanean, Akitaniako Dukaterrria frankoen erregetzagaz lotuta egon zan, eta bakezko itxura emoten ba eben jaurkintz orreik, laster biurtu ziran euren arremanak anai arteko guda zitaletan, mugaldeko lurraldeak, pipinidasen eragipenetik alde eginda.

Pipinok, Teudoaldo euki eban etxezain lez ondorengotuta bere Plektrudis alargunaren agindupean, III In Dogoberto erregearen aurka agertu zana, Dogobertok, Rajenfrido izendatu gura ebalako etxezain lez merobinjioaren errege guztientzat.

Laster agertu zan irugarren leiakidea Eristaltar Pipino erregearen sasiseme eldua izan zan Marteltar Karlosegaz<sup>(4)</sup>, Austrasiako etxe zaintza eroateko.

715eko urtean jaio zan Pipino laburra, Marteltar Karlosen semea eta Karlomajnorean aita izan zanak.

719ko urtean Marteltar Karlos, Frisiako mendebalaren lurraldeetatik ibili zan.

720ko urtean II In Txilperiko il zanean, Marteltar Karlosek IV n Teodoriko ipini eban errege lez, au baiña, ez zan panpabitxi bat baiño besterik, bere eskuetan.

723ko urtean, Marteltar Karlosek, ostera matxinatu ziran saioiaren aurka joan zan.

724ko urtean Martelek, Neustriaren ariñauko etxezaiña Rajenfrido eta beragaz matxinatu ziranak menperatu ebazan, euki eben anai guda zital ori amaituta.

725eko urtean mauritarrek, Frantziaren Audeko lurraldean eta Karkasonako ibai ondoan dauan Karkasonako uria artu eutsoen bisigodoari.

---

(1) II In Juan Gaztelako erregea = Bizkaiko jauna be izan zana, eta beragandik aurrerantzean, Gaztelako erregearen eskuetan egongo zana Bizkaiko Jauntza. (2) Landen'eko Pipino, edo Pipino Zarra esaten eutsiena = 580-640ko urte bitartean bizi zana eta Austrasiako Merobinjioaren II In Klotario erregearen etxe-zaiña izanda, bere alaba Begga Arnlful'en semeagaz ezkondu zanean karolinjioaren leiñua irasi ebena, eta indar edo eragipen asko galduarren I Dagoberto frankoen erregetzara igon ebenean, 639an I Dagoberto il zanean ostera berrezkuratu ebana. (3) Fredegario = VII-VIII In gizaldi artean bizi zan frantzez kronikalari bat. (4) Marteltar Karlos = "maillua" izen-goiti lez euki ebena, eta 689-741 urte bitartean bizi zana.

725-726ko urte bitartean eta guda amaituta, Babierako Ujbertok, babaroen dukerri-rako autakuntza baldintzatu eban, alamanak ortik aurrera berari laguntzeko beartuta geratu zitezen Babierako guda ekitaldian, eta onetarako IVn Teoderikoren izenean egindako legeak azalkatu ebazan.

730eko urtean Karlosek, Alamanian menperatu bear izan eban eta bere Lantfrido dukea il.

730eko urte onetan moroak, bisigodoaren menpean egon ziran Septimaniako lurraldeakaz jabetuta, iparralderantza bideratu ebazan euren mauritar eraso azkarrak, Akitaniako Eudel dukeari, Marteltar Karlosen laguntza eskatzera beartu eutsonea.

732ko urtean Karlos Martelek Eudeleri laguntzen joanda, eta Abd al Ramanen mauritarrak euren gudalozteakaz Frantziako ipar aldea erasotzen ibilita Poitiersera eldu ziranean, bertan aurkitu ebazan Eudel dukea ta Marteltar Karlosen gudalozteak, eta moruak astintasan ederra artu ta gero, Auñamendiak igaro ebazan.

Martelentzat gauza ona izan zan, ortik aurrera Frantziaren egoaldeko lurraren jabetasuna lortzeko. Eta batez be, Europak euki eban islamizazioaren arriskutik kanpo geratuta, katolikotasunaren menperatzailetasunezko asmo eritziak jabetu egiezen.

734ko urtean Marteltar Karlosek, Frisiaren ekialdeko gudalozteakaz borrokatu zan eta lortu eban menperatzea. Emen asi ziran euskaldunen arremanak, Banu Kasitarrakin.

734-740ko urte bitartean ta euskaldun erasoakaz beartuta, mauritarrak guda zainpean ipini bear izan eben Iruñako uria, 741eko urterarte iraun ebana.

735ean Eudon Aundiak, ez eban on artzen inñolako nagusitasunik frankotarren aldetik, eta Karlos Martel Euskalerrian sartuta Eudon il eban. Eudonen urrengoa, bere seme I Unaldo izan zan, frankotarra zintzotasunezko ziñ itza<sup>(1)</sup> emon ostean.

735ko urtean, Mauronto dukearen gudalozteakaz aurkitu ziran mauritarrak eta ekialderuntz bideratuta, mauritar gudalozteak Arleseko uria menperatu eben.

737ko urtean mauritarrek euren eraso azkarrakaz<sup>(2)</sup> Abiñon artuta, Lyon eta Akitaniaraiño eldu ziran. Eta urte onetan il zan IVn Teodoriko erregea.

739ko urtean mauritarrek, naita Probenzakako etxezaiñaren birreraso aldia euki, lonbardoak keiñatu edo ta larderiatu ebazan, eta Marteltar Karlosek lonbardoaren laguntzagaz, ia lortu eban lurralde orren jabetasuna, lurralde orreik alde bateko ta beste aldeko jaurkintzan ibilita, 759ko urtean Pipino Laburrak, Narbonagaz jabetu arte.

741eko urtetik aurrera Pipino Laburrak bere anai Karlomanogaz batera, naita bere eskuetan erregezko ardurak eroan, etxezain nagusi ta jauregiko alkate lez bakarrik aginduten eban, arik ta Karloman Sorakte mendian lekaidetxebat jasota, bera Kasinoren Mendiko lekaidetxean 747ko urtean lekaide sartu arte, eta ortik 754ko urterarte etxezain eta alkate lez bakarrik lan eginda.

741eko urtearen Urrian Marteltar Karlos il orduko eta bera erregea izan balitz lez, lenngo emazteagaz euki ebezan Pipino Laburra eta Karloman seme bien artean banandu eban erregetza, Karlomanek Austrasiako etxe zain nagusi lez geratuta eta Pipinok Neustriako etxe zainzagaz, Grifon seme txikerrari inñork ez dakien lur ondasun edo ta beste gauza batzuk emonda.

(1) Zintzotasunezko ziñ-itza = juramento de obediencia, fidelidad, rectitud, honradez. (2) Eraso azkarrak = razzias.

Marteltar Karlos bide batez, Baskoniako dukaterrian bizi zan, sarri izaten ziran euskal matxintasunak geratzeko.

742ko urtean Neustrian jaiotako Karlomajno, Marteltar Karlosen biloba ta Pipino Laburraren seme au.

742-743ko urte onen bitartean Karloman eta Pipino anai biak euki ebazan errege alperreak kentzeko, eleiz batzar nagusiak ospatu ebazan Bonifazio gotzai santuen laguntzagaz errege izen ori euren aldera erakarteko, Kalomanek Austrasian urte auetan, eta 744ko urtean Pipinok, Neustriako Soissons'en, Neustriako batzar aukeratu Austrasian erabagitu ziran eritziekaz ospatuta.

747ko urtean Karloman, mendi kasinoko lekaidetxean sartu zan eta Austrasiako lurralde geienak bere Pipino anai gazteagori emonda, au frankoen erregetzan, bakarrezko agintari lez agertu zan.

IV Teodoriko ilzanetik ez zan egon erregerik, Marteltar Karlosen semeak Pipino Laburra<sup>(1)</sup> eta Karlomanek<sup>(2)</sup> erregetasuneko ardurazkoak izan arren, etxezaiñaren ardurak bakarrik euki ebazalako, eta errege ordezkari lez, Karlomanek Austrasia, Alamannia ta Turinjiaren arduragaz geratuta, Pipinok, Neustria, Probenza ta Borgonaren ardurak artu ebazan.

Eta bananduzko ardura orreik erakusten dabe, zelango askatasunak euki ebazan I Unaldok bideratzen eban Akitania, ta Odilonek Babierako dukaterriak, banaketa orreitan ez ziralako sartzen.

***Emen ikusten dan lez, ezertxo be ez zan egiten katolikotasuneko eleizaren kontrolpetik kanpo, eta Pipinok ordaingo talde bat bialdu eban Erromara, Zakarias Aita Santuagaz egonda, maldaberan joan zan merobinjioaren errege leiñua, bere agintezko jaurkitzatik kendu eta bere leiñua erregetzazko aulkian ezarri egien.***

***Or ikusten da nondik agertzen jakien erregeari "Jainkoaren eskubidea", gero Jainkoaren eskubide orreikaz, asmatu eben katolikotasuneko aberritasunean laterrituta jaurkitzeko.***

751ko urte onetan ikusten dogu Karlos Martelen seme ta Karlomajnoaren aita Pipino Laburrak, Zakarias Aita Santu ta zaldunai eskatu eutsan laguntzagaz, zelan IIIIn Txilderiko bota ebanean merobinjioaren errege aulkitik, lortu eban karolinjioaren onepena, ortik aurrera Karolinjioaren errege leiñua irasi ebalako, eta Bonifazio Santuak Pipino igurtze eban bitartean errege izateko, IIIIn Txilderikoren ulea<sup>(3)</sup> koroí antzera moztuten ibili ziran, Saint Omer inguruan San Bertinen lekaidetxean sartzeko.

Fredegariok esaten dauan lez, Metzko Arnful ta Pipino Zarraren<sup>(4)</sup> leiñuzko semeagandik

(1) Pipino laburra = 715-768 Marteltar Karlosen semea eta Karlomajnoaren aita, 741-751 urte bitartean etxe-zaiña eta 751-768 urte bitartean frankoen errege bere anai Karlomanegaz batera 747ko urterarte, eta orren ostean Zakarias Aita Santuaren laguntzagaz, Merobinjioaren IIIIn Txilperiko erregea bere aulkitik botata, frankoen erregetza lortu eban eta Bonifazio Santuaren eskutik errege igurtzita 751ko urtean, Esteban Aita Santuak ostera igurtzi eban errege 754ko urtean ortik aurrera bere erregetza Akitania eta Septimaniako lurraldeetatik zabaldu, eta /68ko urtean il zanean, bere erregetza euki zituzten semebi Karloman eta Karlos, gero Karlomajno izango zanakin banandu eban. (2) Karloman = Marteltar Karlosen semea eta Pipino Laburraren anaia, Austrasiako etxe-zaiña. (3) IIIIn Txilderikoren ulea koroí antzera moztuten = tonsurando. Frankoen artean ule luzea eukitea, agintaritzazko ikurra zan. (4) Landen'eko Pipino, edo Pipino Zarra esaten eutsien = 580-640ko urte bitartean bizi zana eta Austrasiako Merobinjioaren IIIn Klotario erregearen etxe-zaiña izanda, bere alaba Begga Arnful'en semeagaz ezkondu zanean karolinjioaren leiñua irasi ebana, eta indar edo eragipen asko galduaren I Dagoberto frankoen erregetzara igon ebanean, 639an I Dagoberto il zanean ostera berrezkuratu ebana.

agertzen jakula Austrasiako erregetzan karolinjioaren leiñua, eta beste ikerketako az-tarnak, Kataluñako Sarriaren sendiak euki eban eragipenetik al izan ebela, euren esana azaldu ondoren 200 urtetako jabetza euki ebelako.

752ko urtean San Zakarias Aita Santua il zanean, Bizanzioren ekialdeko erromatar kaisertza makal egoteagaitik, ta lonbardotar Astolfo erregea Erromari keiñatzaile ibili zalako, II In Esteban Aita Santuak Lonbardotar Astolfo erregearen aurka egiteko, Alpes mendikateak igaro ebazan Pipino laburrarengana joateko, gudarako laguntza eske.

753ko urtean Urtarrillako 6an Txanpañako lurraldearen ego aldean dauan Pontioneko jauregian, Pipino erregea II In Estebanen aurrean belaunikatu zan bedeinkapena artze-ko ta gero Aita Santuaren zaldiko gidari ugela artu eta bere lekuraiño eroanda batzartu ziranean, II In Estebanek, euren arteko alkargo bat egiteko eskatu eutson Pipinori, Pipino bera bigarrenez igurtzeko eskeintzagaz eta sakratuzko **Goi-Eskerrak** bere erri eta sendiarentzat II In Esteban Aita Santuaren aldetik emoteko aginduan.

753ko urtearen Jorrrillako 14an eta Parisen iparreko Quierzy-sur-Oisen itzarmendu ziran biak, Pipinok eserleku edo bizileku Santua ondo babestuta egoteko lur naiko zabalak eskeñita Aita Santuari, II In Estebanek bere gogozko laguntzagaz ordaintzeko aginduagaz.

754ko urtean Uztaillaren 28an San Denniseko Eleiz Nagusian II In Esteban Aita Santuak, ostera igurtzi eban Pipino Laburra **frankoen errege** ta **erromatar erriguraso aundiki lez**.

Eleizkizun orreitan, Berta beren ama ta iru semeak bedeinkatuta, bedeinkapen orregaz karolinjioaren leiñuzko erregetzak zabalduz, merobinjioarenak amaitu ziran, eta III In Pipinoren erregetza ortik aurrera **Jainkoaren aginduz** babestu ondoren, eun eta amai-ka urtetan iraungo eben karolinjioaren ondorengotasunak, bedeinkatuta geratu ziran.

Aurrerantzean bere erregetza Akitania eta Septimaniako lurraldeetatik zabaltzen asi zan.

754ko urtearen Urrillako 14an eta Aita Santuari emon eutson itza bete naian, lonbar-doarengana joan zan berba ori betetako, baiña ez eban artu erantzun onik.

755eko urtean Pipinok, lonbardoak erasotu ebazan eta garaipena lortu arren, berak alde egin ebanean ostera bardin garatu ziran, 756ko urtean lombardoak Erroma erasotu ebelako.

756-758ko urte bitartean Pipinok, lonbardoaren aurka iru ekitaldi egin ostean, Rabenaren inguruetaraiño bialdu ebazan lonbardo oneik.

758ko urtean ta buruzbide edo gudaldi onen ostetik, Pipino Aita Santuarengana joan zan, Rabena, Perusa ta Italiaren erdiko 22 uriaren lurralde oneik emoteko eta Emilia Romajna ta Pentakol lurraldeak Erromakin batuta, Pipino lonbardoak erromatarrakaz alkartzeko alegiñean iraun eban.

768ko urtearen Iraillako 24an Pipino laburra il zanean, bere erregetza, euki zituzen seme bi Karloman eta Karlos, gero Karlomagno izango zanakin banandu eban eta ondorengo lez anai biak igon eben erregetzazko aulkira.

771eko urtean Abenduaren 4an il zan Karloman, ta urte orretik aurrera bakarrik eroan eban Kalomajnok frankoren erregetza, asi ta bereala Akitano, lonbardo, babaro, saioiak ta Abaroak, euskaldunak izan ezik jarraian menperatuta.



778an Karlomagnoen gudaloztea, bere loba ta zaldun bioztoi Roland aipagarrien agindutara Salduba mauritarrengandik askatzera joan zan.

778ko urtearen Dagonillako 15ean Karlomagnok, Auñamendiak igaro ebazan, ta egiten egoan bidea Saldubara eltzeko bitartean, Iruñari ikutu eutson eukezan ormak botata, itzuli zan orduan be bardin eginda.

Karlomajnok Salduba edo ta Sarakustako<sup>(1)</sup> arresi ormatara eldu zanean Bartzelonako Balien laguntzagaz uri orregaz geratzeko. Bartzelonako Bali au Kordobako emirra izan gurean, I Abderramanen aurka ibili zalako.

Soliman Ibn-al-Arabi mauritar onek, Karlomagnori emon eutson laguntzazko berbea I Abderramanen aurka egiteko damutu ondoren, I Abderramanek Karlomajnorri egin eutson jazargo gogorragaz, baita Frantziko lurraldeetan saioiak matxinatuta ibili ziralak, Karlomagnok Soliman Ibn-al-Arabi atrapauta itzuli bear izan eban.

Eta Frantzira joaten egoala, Orreaga<sup>(2)</sup> ondoren Ibañetako aitz eta Luzaidearen errimendiko aizbitartean euki ebazan itzaroten iruñako euskal minduak In Luporen aginduz ta Banu Kasi sendiaren laguntzagaz, frankotarra emon eutsoen astiñaldiekien, or agertu ziran Roldaneri<sup>(3)</sup> egin eutsoen gudu eresia eta 1.624ko urtean Balbuenak<sup>(4)</sup> Orreagako “El Bernardo ta Garaipena” idatzi ebazanak 40.000 itz neurtu edo bertsuakaz.

Soliman Ibn-al-Arabi ori, emen askatu eban.

Gero, 1.090an Rolanden abestiagaz betikotu egin zana. Eta Frantziako elerti lanen artean aundienetariko lez daukiena.

*Denbora onetan, arrizku aundiak euki ebezan euskaldunek, Auñamendiko alde bietatik erasotzen euskuelako, eta sendi bien buruzagi edo agintaritzazko taldetik sortu jakuzan Inigo ta Belaskotarrak, biak bata bestearen aurka kokatu ziran, Inigotarrak Banu-Kasi mauritarrakaz senidetuta, eta Belaskotarrak frankotar Karolinjioarekin.*

Karlomagno<sup>(5)</sup> euskaldunak askotan matxinatu egiten ziralako arduratuta, Asturiaseko In Alfonso nasgabeko erregeagaz alkartu zan, baiña onek beste premiatasun batzuk euki ebazan lez ego aldean kokatuta egon ziran mauritarrakaz, ez eutson laguntzarik emon.

Eleizak naita alegin asko egin, euskaldunak Frantziko erregetzagaz alkartu zitezen, Baskoniako dukaterrian matxinada ugari euki ebazan.



*Orreagan egin zan borrokaren oroikarria*

*Karlomagno, Europaren mendebaleko  
Kaisar Sakratua*

(1) Salduba edo Sarakusta = Zaragoza. (2) Orreaga = Roncesballes. (3) Roldan edo Roland = 778ko urtean il zana. La Chanson de Roland. (4) Balbuenatar Bernardo = 1.568ko urtean Baldepeñasen jaioa, gero Mexi-kon bizi eldua izan arte eta 1.604an Mexikarren aunditasuna ta 1.607an “Urrezko-Gizadia Erifлеко-Basartean” idatzi ebazanak, gero 1.619ko urtetik asita Jamaikako abatea ta Aberats-Kaiaren edo Puerto Rikoren gotzia eta 1.624ko urtean “Ronzesballeseko El Bernardo edo Garaipena” (El Bernardo o Victoria) “Bernardo del karpio” erdiko idatz-gai lez 40.000 itz-neurtu edo bertsuak daukazanak, eta 1.625eko urtean Olandesak egin eben itsas-lapurketako erasoan euki ebazan idatzitako libu geienak galduta, 1.627ko urtean Aberats-Kaian il zana. (5) Karlomajno = 742ko urtean Neustrian jaioa eta 814ko urtean Akisgranen il, frankoen errege eta Europaren mendebaleko kaiserra izan zana.

Aita Santuak kaisertzazko domiña aundiagaz danbalaka euren eskuetan eta eleiz katolikoaren aldeko jokuan, erregeen artean onena aukeratzeko almenekuak izan ziran, bata edo besteari indarra emonda, kaisar sakratuaren kaiserra izendatzeko. Danak baiña, azken gaiztoa euki dabenak, berezko lege ta erriak kontuan ez eukiteagaitik.

781eko urtean Karlomagnok, bere iru urteko seme I Luis Errukitsua<sup>(1)</sup> ta aurrerantzean errege izaten ikasi egian, Akitaniako errege izendatu eban euskal berezitasuna ezereztu naian, euskaldunak baiña euren nortasunagaitik tematsuak izan ziran lez, beti berrezkuratu ebezan euren azkeneko lurraldeak, gaur gagozan lurraldeetan geratu arte.

798ko urte inguruan Iruñak, franko ta mauritarren erasoak euki ebazan, eta Banu Kasiren sendikoa izan zan jaurlaria il ebenean, euskaldun bat aukeratu eben jaurlari, Banu-Kasi sendiaren baimenagaz.

799ko urtean Iruñako jaurlari izan zan Mutarrif Ibn Musa mauritarra, Belasko edo karolinjioaren aldekoak il ebenean, Iñigotarrak Banu-Kasiren laguntza eskatu eben Iruñaren kontrola eukiteko euskal eskuetan.

799ko urtean erromatarrek, IIIIn Leon Aita Santua arrapau egin gura eban, begiak ta mingaiña kentzeko keiñuagaz, eta iges eginda Paderbor´era joan zan Karlomagnoren babesean kokatzeko eta Karlomagnok Erroma bakeztu egian.

800go urtean Azaroan III Leon Aita Santuak deituta, Karlomagno Erromara joan zan.

800go urtean Abenduko 1ean Karlomajnok batzar bat egin eban, ta 23an IIIIn Leonek ziñezpena<sup>(2)</sup> artu eutsonean, bera errugabekoa aurkeztu zan.

Eta 800go urtean Abenduko 25ean, iparraldeko itsasotik Italia erdian dagon Garigliano edo Liri ibairarte, erdiugarte onen Ebro ibairaña eta Mendebaleko Atlant Itsasotik ekialdearen Boemiarañoko Erromatar Kaisal Erri Sakratuaren Inperator edo Augusto Kaizar-Jaun Erromako San Pedroren Eleizan koroatu eban IIIIn Leon Aita Santuak.

Eta amen emoten jako ostera asiera katolikotasunaren joputasunezko batzango askuntzari, edo katolikotasunaren kaisartzazko lengo ariari barriri oratuta Erromatar Kaisal Erriaren inperatore edo kaisar agintaritzari.

800eko gabonetan, Karlo Majno, Erromako Pedro Santuaren Eleizan, IIIIn Leon Aita santuak Erromatarren Kaisar-Sakratuaren Augusto-kaiserra izendatuta etorri zanean, iparraldeko euskaldunak matxinatuta egon ziran.

803ko urtean Aristatar Eneko izan zan euskal jaurlari barria, ta Banu Kasiren sendiaz alkartuta, Kordobako erregearen aurka borrokatu ziran, Muzkariako<sup>(3)</sup> gazteluagaz jabe eginda.

806ko urtetik aurrera eta bizanziotarrak erromako kaisertza makaldu egin ebelako, Karlomagnok, bere burua koroatu eban Erromako ekialdearen kaisertzazko jaurlari lez, franko eta italiarrentzat ez zana lapurketa bat baiño besterik izan, eta Konstantinoplan bai bizanziotar Irene ta bere ondorengo I Nizeforo auek jazarraldi gogorrek egin arren, Karlomagno bere izenburu orregaz geratu zan.

812ko urtean Karlomagno Iruña menperatzeko alegiñetan asi zan.

Eta urte onetan Ludobiko Pio ta I Al Akan mauritarren emirrak, bakeune edo gudarte bat egitea erabagi eben, Iruñako uria karolinjioaren kontrolpera aldatuta Belasko gasalkiren agindutara.

(1) I Luis Errukitsua edo "el piadoso" ta Ludoviko Pio be deitu egiten eutsoen 778-840ko urte bitartean bizi zana. (2) Ziñezpena artu eutsonean = cuando le tomò el juramento. (3) Muzkaria = Tudela.

813ko urtean Azaroaren 1ean Karlomagnok, Akitaniako errege ta bizirik geratu jakon askeneko semea Ludobiko Piori deitu eutson bere jauregira joateko eta bertan koroatu eban kaisar-laguntzaille lez, Akitaniara ostera bialduta.

814ko urtean Urtarrillan anderrai miñagaz<sup>(1)</sup> gaisotu zan Karlomajno eta 21eko egunean ezautza barik geratuta, Urtarrillaren 28an eta goizeko 9etan il zan, euskaldunak menperatzeko gogo aundiak euki ebanak.

814ko urtean Karlomagno il zanean, Akitaniako errege I Pipinok<sup>(2)</sup> bialduta, non agertzen dan IIIIn Pipinogaitik 30 urte ariñago baitua izan zana, Santxo Otsoa, II Otsoaren semea.

816ko urtean bake gune edo gudarteko aldia amaitu zanean, I Al Akan´ek gudaren bideak ostera artu ondoren, Iruñako uriagaz jabetu zan.

824ko urtean Ludobiko Piok euskaldunen aurka bialdu eban gudalozte indartzu bat, Garona ta Ebro ibaiaren bitarteko lurraldeak menperatu gura ebazalako, eta euskal gudalozteak Ludovico Pioen gudalozteak ezereztu ondoren, Aristatar Eneko Nafar errege izendatu eben, 852ko urtean zendu zan arte, or jaiota alde bietako euskaldunaren nafarroako euskal erregetza.

Santxo Otsoagaitik zuzenduta egon ziran Nobenpopulania zaarreko euskaldunak, gero beren seme nagusi Aznar Santxogaitik bideratukoak izan ziran, eta au I Pipinok il eban orduan, 836an bere anaia Santxo Mitarrak artu eban jaurkintzaren ardura.

Santxo Mitarra, beren aitagaz ibili zan Nafarroan eta Aragoiko goi aldean, guda eta politikarako trebetasun aundiak artuta.

838ko urtean Akitaniako I Pipino erregeak, gudara beartu eutson Santxo Mitarrari, eta onek Pipinoren gudaloztea Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda, irabazi eutson.

Karlo Magnoren 68 urteko nagusikeritik geroago, Euskaldunak ostera jabetu ziran betiko edo antxiñako mugakaz.

840ko urtean frankoen errege I Luis Errukitsuak<sup>(3)</sup>, Santxo Mitarraren jaurkintza baieztu eban, bera il zanean baiña, Frantziako kaizartza beren iru semeen artean banandu eban, eta Frantziako mendebal aldea Akitaniagaz Karlos buru soillen<sup>(4)</sup> ardurapean geratu zan.

840-843 urte inguruan asten da Karlomagno leiñuen eragipena anai arteko gudan asi ziranetik.

## 1.5. *Akitaniako Dukaterria.*

Erromatarrak euren politikaren antolamendurako, Frantziko Galia esaten eutsonari, lau lurraldeetan banandu eben. Akitania, banaketa orren zati bat da.

Eta euren jaurkintzazko zeregiñean Narbona, Autx ta Daxeko lurraldeak osotzen eban zanak, Frantziko egomendebaleko lurraldeakaz Bizkaiko itsasgolkoa, Lur Arteko itsasoa ta erdiko mendi taldetik Loira ibairarte besarkatzen eban.

Bere lurraldea, Loira ibaitik, Zebenes mendi kateak, Auñamendiak eta Gaskuña edo Bizkaiko itsas golkoagaitik mugatuta dagoena da.

(1) Anderrai-miña = pleuresia, pleuritis. (2) I Pipino Akitaniako errege =803-838ko urte bitartean bizi zana. Luis Errukitsuaren = “el Piadoso” bigarren semea, Akitania´ko errege izendatu eben, eta beren anai Lotarioren menpekoa zan, au kaizar izenaren ondorengoa zalako. (3) I Luis Errukitsua edo “el piadoso” ta Ludoviko Pio be deitu egiten eutsoen 778-840ko urte bitartean bizi zana. (4) Karlos “Buru Soilla” = el calvo, 823-877ko urte bitartean bizi zana.

418ko urte ingurutik Bisigodoak egon ziran zabaldua Akitaniako lurraldeetan<sup>(1)</sup> alkar zaletasun antzeko baten.

476an erromatar kaizar sakratua menderatu eben godoak, naita Dalmazian<sup>(2)</sup> Nepotetar Juliogaz 480ko urterarte iraun.

477ko urte onetan Akitaniako erregetza zati bitan banatzen da, Akitania ta Gazkuña, gero Guyena deituko zirenak, 1.058ko urtean biak alkartuta.

Eta bisigodoak euren kaizertza zabaldu naian, erdi ugarte onetara be etorri ziran.

486an frankoak Klodobeoren<sup>(3)</sup> agindutara, Siagrijo Godoaren jabetasunean egon ziran Loira ibaitik gorako galiaren iparraldeko lurraldeak menderatu ebazan.

Eta Siagrijo bere burua babestu naian Tolosara joanda, IIn Alarikok bidean arrapatuta Klodobeori eskuratu eutson, eta onek il ondoren, Frantziko lurralde guztian bisigodoak eta frankoak auzo lez geratu ziran jabe.

507ko urte onetan, Mendebaleko erromatarren kaisertza ezereztu zanean, Frantziaren erdi aldeko egoaldea Gaskuña eta Septimaniagaz batera, bisigodoaren Tolosako erregetzan egokituta egon ziran, arik eta Klodobeok, Gundebaldo borgoñatarragaz alkartuta, Boille, Poitiers ondoan egindako borroka nagusian IIn Alarikori irabazi arte, berau bertan ilda.

Eta 508an Teodoriko ostrogodoa, Gundebaldori Narbonan egindako borroka irabazita, frankoak ta ostrogodoak geratu ziran garaille, ostrogodoak Septimaniako lurraldeak geratu ziralako.

Euskaldunak borroka orren bidez Akitania<sup>(4)</sup> ta Nobenpopulania añaamendietaraiño-ko lurraldearen jabetasuna galdu eben, frankoak eta gero ostrogodoagaitik menperatuta geratu zanean.

Ostrogodoak erromatarren antzera, euren norberizko guda indarrarekin, lurralde guztietatik ibili ziran berezko erritarren legeak kontuan artu gabe, erritarrak euren borroketan peoi lez ibilteko ta zergak ordaintzeko baiño besterik ez ebalako gura.

Emen kontuan artu bear da, merobinjioaren erregetza sendotzen asi zanean, Akitania

Neustria eta Burgundia edo Austrasiaren erregetzara egokitua egon zala, beti dukeagaitik jaurkituta.

574ko urtetik asita, Nafarroa, Aragoi eta Kataluñako euskaldunak lenengo, eta Bizkaitar, Arabar eta Kiputzak gero, Añaamendi kateetatik zabalduz zirikituta ta oztu egiten eutsen godoai, euren gorde tokietara ostera joanda.

Eta 582an Bisigodoak erdi ugarte onen euskal lur batzuk menperatzen asi ziranean, iparraldeko euskaldun asko alkartu jakiezan godoari aurre egiteko.



(1) Nobenpopulania ta Akitania sekundan. (2) Dalmazia = Yugoslavia. (3) Klodobeo 481-511 urte bitartean frankoen erregea izan zana, bere emazte Klotildek, katolikotasunera aldatu ebana. (4) Akitaniako Dukeria, kontuan euki bear da Ebroraiño zala.

587ko urtearen ostetik Astrobaldo dukea ibili zan euskaldunak menperatu naian, eta eziñean, erabagi batera eldu zan, Euskal bizitza aurrera bakez eroateko: *euskaldunek zergak ordainduko ebezala, batera baiña, bizi ziran lurraldeetan, euskal legeekaz jau-rrituko ebela.*

602an Austriako II In Teudoberto eta borgoñako II In Teodorikok, euskaldunaren aurka joan ziran, eta beartu ebazan eurak agindutako kondea on artu egien.

629ko urtean I Karibertok, 631ko urtean bere anai orde I Dagobertogaz sinatu eban alkargo bat, Neustria Akitaniako erregetza barria izan egian.

Neustria edo Akitaniako lurralde orreik, Gaskuña eta bere osaba Brodulforen Tolosako lurraldeak be besarkatu egiten ebazala, Brodulfo osaba ori Dagobertok il ebelako bere seme Txilderikok errege izan zedin. Au be illabete gitxi ondoren il eben.

Bertrandok, Txilderikoren beste semea menperatu ondoren, I Dagobertoren esanetara ipini zan merobinjioaren erregetzako jaun eta jabe izan zalako, eta bere ezagutza Akitaniako duke lez aurkeztu eban Boggiosekin batera, biok merobinjioarekin senidetuta Akitania edo Gaskuñako zaldunak izan zirelako.

635ko urtean I Dagoberto<sup>(1)</sup> frankoaren osotasunezko erregetza euki eban bere agindutara, eta Boggiok zirikituta euskaldunen eraso gogorrak artu ebazan, Boggio onek Akitania eta Gaskuñako erregetzaren atzean ibilita askenean lortu ebalako berak gura ebana, naita dukearen izenagaz izan.

639ko urtean eta 638ko urtean I Dagoberto il ondoren eta agertu zira merobinjioaren errege alperakin, Boggiok askatasun naiko lortu eban eukitea, merobinjioaren erregetzatik.

675ko urtean II In Txilderiko il zanetik urte bi beranduago uste dabe batzuk sortu zala Akitaniako dukerria, ta ondo jakin barik, erregetza edo dukaterri lez jaio bazan.

715eko urtean eta Felix ta Luporen jaurkintza ostean, I Luporen seme Odon Aundiak Neustria eta Austrasiaren arteko gudakin baliotuz, Akitania frankoen erregetzatik kanpo, askatasunezko erregetza zala aldarrikatu eban, bera errege izendatuta.

718ko urtean Neurtsiako II In Txilperiko eta bere etxezain<sup>(2)</sup> Rejenfridok on artu eben Odon Aundiaren errege izatea, baldintza bategaz baiña, eurei laguntzeko Austrasiako etxezain Marteltar Karlosen aurka egiteko.

719ko urtean eta Marteltar Karlosen aurkako Soissons´eneko borroka ostean Odon Aundiak bakeak eginda Marteltar Karlosekin, II In Txilderikori emon eutsoezan, ararte bere ardurean euki ebazan altxor guztiak.

720ko urtean Odon Aundia ortik aurrera, erdiugarte onetatik Frantzian sartu ta Septimania, Narbona, Akitaniako lurraldeak menperatuta eta Tolosa inguratuta euki ebazan Mauritarren aurka joan zan.

721eko urtean Bagillaren 9an Odonek Tolosako borrokan, As-Samh ibn Malik al Jawlani al Andaluseko jaurliaren aurka ustegabeko eraso gogor bat egin eban eta mauritarrak menperatu ebazan.

(1) I Dagoberto = 600-638 urte bitartean bizi zana, II In Klotarioren semea eta bere ondore 623ko urtean Austrasiako erregetza artu ebana. 629ko urtean Borgoña ta Neustriaren erregetzak be artu ebazan, frankoen erregetza osoa esku baten egotea lortuta. (2) Etxe-zain = senescal o mayordomo.



III In Gregorio Aita Santuak garaipen ori ospatzeko, Odon berari bialdu eutsoezan atsegiñezko sari batzuk, eginkizun orreik ospatzeko, eta frankoaren erregetzatik kanpo bere askatasuna legeztuteko.

726ko urtean, Odonek berak il eban Anbasa ibn Suhaym al-Kalbi, al Andaluzeko Jaurlari barria borroka orreik bideratzen egoala.

731ko urtean Marteltar Karlosek aurka egonda, III In Gregorio Aita Santuak legeztu eban Odonen Akitaniako aginteagaz, Akitania erasotu eban eta Abd Allah al-Gafiq emirrak edo mauritar printzeak Gaskuña erasotzen joan zan.

732ko urtean, mauritarrak garaipen aundi bat lortu eben Garonako borrokan.

Odonek aukera auek eukinda, lenegoetan mauritarrarekin alkartzea gura eban, moruek eleizaren aurka egiten ebazan ikusita baiña, Marteltar Karlosekin<sup>(1)</sup> alkartu zan, Poitiersen lortu eben garaipen aundian biok alkar egonda.

735eko urtean Odonek baztatu egin zan lekaidetxe baten sartuta, euki ebazan ardurak bere seme Unaldoren eskuetan itzi ondoren.

741eko urtean Marteltar Karlos il zanean, Unaldok ostera aldarrikatu eban bere askatasuna eta Babierako I Idilon eta bere seme Grifonekin alkartuta, aurrera egin eban frankoaren aurka.

744ko urtean Pipino eta Karlomagnok, Unaldori beartu eutsoen bere seme Gaiferoren eskuetan itzi egien Akitaniaren dukerriko jaurkintza.

768ko urtean Gaifero baiña, eritziz bere aita Unaldo lez askatasunezko gizona izan zalako, Pipino Akitaniara joan zan eta Burdeos menperatuta, bere ama, arrebak eta Gaiferoren lobak baitu ondoren, Gaifero il eban urte orretan.

Gaifero il ostein, bere seme II In Unaldo ipini eban Akitaniako duke lez eta eritziz bere aita lez, askatasunaren arikoa zalako, III In Pipino laburraren<sup>(2)</sup> seme Karloman<sup>(3)</sup> eta Karlomagnogaitik menperatuta geratu zan, oneri Akitaniaren mendebal eta ekialdeko errege lez izendatuta.

II In Unaldo, bere amaren aldetik Baskoniako dukerriaren kondea zan II In Lope aitona- ren babesera joan zan.

769ko urtean Karlomagnok baiña, beartu eban II In Lope bere illoba II In Unaldo ta emaztea berarengana eroatea, berari menpetasunezko begirunean ipinteko.

Menpetasunezko begirune ori egin da gero, II In Unaldoren Torsone lengusuari, Baskoniako dukerria, Akitaniaren egoaldea ta Septimaniako zati baten Tolosako konde edo arduradunezko agintari izatekoaren truke emon eutsoezan.

Iñork ez daki Torsone zelan il zan, eta ondorengo bage aienatu zan lez, Akitaniako lurralde orreik ostera karolinjiaren eskuetara aldatu ziran.

(1) Marteltar Karlos = 689-741eko urte artean bizi zana eta Karlomagnoaren aitite. 732ko urtean Poitiers'en Odonekin batera garaipena lortue bena mauritarren aurka. (2) Pipino laburra = 715-768 Marteltar Karlosen semea eta Karlomajnoaren aita, 741-751 urte bitatean etxe-zaiña eta 751-768 urte bitartean frankoen errege bere anai Karlomanegaz batera 747ko urterarte, eta orren ostein Zakarias Aita Santuaren laguntzagaz, Merobinjioaren III In Txilperiko erregea bere aulkitik botata, frankoen erregetza lortu eban eta Bonifasio Santuaren eskutik errege igurtzita 751ko urtean, Esteban Aita Santuak ostera igurtzi eban errege 754ko urtean ortik aurrera bere erregetza Akitania eta Septimaniako lurraldeetatik zabaldua, eta /68ko urtean il zanean, bere erregetza euki zituzen semebi Karloman eta Karlos, gero Karlomajno izango zanakin banandu eban. (3) Karloman = 751-771eko urte bitartean bizi zana, III In Pipion Laburraren semea, eta Probenza, Septimania, Borgonya, Alsazia eta Akitania erdiare arduraduna izan zana.

781eko urtean, Karlomagnoaren jaurripean egon ziran lurralde guzti orreik, arik eta urte onetan bere seme Ludobiko Pio<sup>(1)</sup> Akitaniako errege izendatuta iru urte bakarrik euki ebazanean, Torsote, Tolosako kondea ipini eban Karlomagno bere semearen lenengo errege orde lez, eta au Baskoniako Adelrikok baitu ebenean errege ordezkotzatik kenduta, bigarren Tolosako konde barria aukeratu eben I Guillermo ipini eban errege orde lez, biak Dukearen izenakaz ipini ebazanak. I Gillermo onek, ainbat borroka eginda euskaldun eta mauritarren aurka.

793ko urtean I Abd al Rahmanen seme Kordobako printze edo agintari nagusi I Hisham ´ek gudalozte aundi bi batu ebazan eta iparreko kristauen auka joanda, Asturias eta Akitania erasotu ebazan, Narbona onduan Tolosako I Gillermo menperatuta.

801eko urtean baiña I Gillermo erasotzera aldatuta Barzelonaren askatasunean be kide izan zan Narbonako Ademarogaz, eta Ispaniako mugaldearen<sup>(2)</sup> jaur-laria izatera eldu zan. 803ko urtean, Narbona askatuta.

814ko urtean Ludobiko Pio kaiserrak, Akitaniako erregetza emon eutson bere seme I Pipinori.

817ko urtean I Pipino Akitaniako errege izendatu eben, eta Baskoniako Garziatar dukeari ta bera ilda III In Loperi 818ko urtean, beren ondorengoari agindu eutsoen on artu egiala Akitaniako nagusitasuna Baskoniaren gaiñetik.

819ko urtean Baskoniako dukeak ez ebelako onartzen menpetasun ori, I Pipinok erasotu eta menderatu ondoren, bere aolkulari ta Tolosako konde izan zan Berenguer Jakintsuari, gero Berenger kaiserraren osaba izango zanari emon eutson Baskoniako jaurkintza.

830eko urtean I Pipino, bere aita Ludovico Pio ´ren aurka matxinatu zan, bere anai I Lotario ta Luis Germanikoagaz, bai Neustria ta gaskoien laguntzagaz, eta Paris ´erantz joanda Konpiegnen aurkituta bere aitagaz, aita menderatu eta arrapau eban, baiña ez eban balio ezer matxintasun ori, iru anaien artean borrokan asi ziralako.

834ko urtean azken baten eta borroka ugari ostean, Ludovico Pio aita, ipini eban ostera be Kaisertzazko aulkian, eta Pipino osterita itzuli eban Akitaniako errege lez.

838ko urtean Azaroaren 13an Ludovico Pio k, Babierako Judit bigarren emazteagaz euki eben Karlos Soilla seme ondorengotu eban frantziko kaisertzaren aulkira.

## 1.6. *Baskoniako Dukaterria.*

Or agertuko zan lenengoz bere gortegaz euskal askatasunaren Baskoniako Dukerria, merobinjoren erregetzatik aginduta.

418ko urtean bisigodoak, Erromakin elkargotuta ezarri ziran Baskoniako lurralde orreitan.

(1) I Luis Errukitsua edo Ludobiko Pio = 778-840ko urte bitartean bizi zana, 3 urteagaz 781-814ko urte bitartean Akitaniako erregea, 812ko urtean Iruñara etorri zan euskaldunak astintzen, baiña uts egin eban, eta 814-840ko urte bitartean, Jermania ta Erromako kaisar Santu edo Sakratuko kaiserra, bere seme Lotario, Pipino eta Jermaniako Luisagaz borrokatu zan, bere bigarren ezkontzako seme Karlos Soillaren erregetzako eskubideak babestuteko, eta askenean eta urte asko guda-bidez, bere erregetza banandu bear izan eban Lotario ta Karlos Soillaren artean. (2) Ispaniako mugaldearen jaur-laria = gobernadoer de la Marca Hispànica. Marca = distrito fronterizo.

507ko urtetik aurrera eta merrobijioakaz guda indarrez neurtuta, bisigodo orreik alde egin bear izan eben, I Klodobeok Bouilleko borrokan, ondo astindu egin ebazalako.

511ko urtean eta I Klodobeo il ostean, merobinjioak lurralde orreik euren antolamendu bidez, Neustria eta Austrasiaren zuzenezko jabetasunean ipini ebazan, beste lurraldeak konde, duke, erriguraso eta zuzendariakin jaurkitzen zirala, merobinjioak banandutako agintaritzan jaurkitzen eban lez.

581eko urtean Benanzioren kondairak esaten dabe, Txilperiko frankoagaz ta Burdeoseko Galatorio agintariaren bidetik, Baskoniako konderriak gudueraso asko eukiten ebal.

587ko urtean bestaldetik baiña, Tourseko Gregoriok aipatu egiten dauzanez, Austrobaldo dukeak eraman bear izan ebazan erasoak bakarrik.

Dana dala, orduko leiñu barri orrein menpetasunezko egarri bidetik, euskaldunak eraso asko ta aundi eroan bear izan ebela bai, euren baitan Euskalerrriaren askatasunezko eritzi demokratikoakaz oituratuta, euken euskal nortasunezko izatasuna babesten ebalako.

602-626ko urtetan, IIn Teodoriko ta IIn Teodoberto erregetzan, Baskoniako duketerriaren mugaldea irasi gura eben, ango lurraldeak obeto jaurkitzeko, Jenial galo erromatar dukea ipini eben ardura orretan lenengo dukea lez, eta ortik aurrera aukera barri bat agertu jakien iparraldeko euskaldunai, euskal nortasunaren izaerazko oituran bizitzeko.

626an Genial kondea il zanean, euskaldunak matxinatu ziran bere ondorengo Aighina zanaren aurka.

629an baiña, I Dagoberto agertu zanean, frankoaren agintaritzaz sendotu zan lurralde guztian.

635ean euskaldunak, frankotarren agintaritzari aurka egin eutsoen denboraldi baten, eta I Dagobertok etenbageko ekitaldi aundi bat asi eban euskaldunen aurka, auek erabat menperatuz.

Lenengoetako borroka auek Garona ibai inguruan egin ziran, baiña laster zabaldu ziran Auñamendiko mendikaterarte.

Eta 638an I Dagoberto il zanean, ondorengo ziran errege fardelakaz, frankotarra eze-reztu jakien Augustoren mugatara itzultzea, Eurikoren erreñua osteraz osotzeko.

Baskoniako dukerria indartzen joan zan euskal erritarrak feudoan eta geien gotzaintegian finkatu ziran bitartean, eta denbora gitxian euskal dukerriko agintaritzaren erabagiak, orduko frankotarren errege alperren gainetik jaurkitzen ebezan.

Eginkizun oneik, Akitaniako andimandien eta euskal erritarren artean, ezin obetoko ulermenean ezarrira egon ziran, eta euskaldunentzak laster emongo ebazan emaitza onak.

Ebrinok, frankotarren erregetzazko etxe zaiñak, gorteko denbora onen larri aldian, Felixeri emon eutson Euskalerrriko uri guztien nausitasuna Auñamendirarte.

Felixek baiña, frankotarren alde jokatu barik, Baskoniako Dukerriaren alde jokatu eban, euskaldunen politika indartzeko.

Eta gero ikusiko dogun lez, Felixen ondorengoa Lupus<sup>(1)</sup> izango zanak, aurreratuko ebazan eginkizun oneik, frankotarren aurka zuzen borrokatu ta Wanba bisigodo erregearen aurka, Septimaniako<sup>(2)</sup> iraultzari lagunduta.

(1) Lupus = Otsa. (2) Septimaniako lurraldea = Erromatarrak Rodano ibaia, Auñamendiak eta itsasoaren bitartean dagoan lurraldeari esaten eutsen. Eta Frankoak, Garona ta Rodano ibai artean eta Auñamendi ta Zebenez mendikateen arteko lurraldeari Galia gotikaren izenagaz esaten eutsena.

660ko urtean Felix Toulouseko errigurasoa izendatu eban Akitania ta Baskoniako konderriaren dukea, Neustria eta Austrasiako merobinjioaren erregetzatik urrunduta.

660-670eko urte artean gauzak olan zirala, Toulouseko erreñu zarra bizkortzen asi zan, eta Akitaniako Felix dukearen ondorengo I Otsoa edo Lupus<sup>(1)</sup> euskalduna izan- go zan Baskoniaren dukerriko jaurkintzaren buru 673-710eko urte bitartean.

700eko amarkadan, Eudon aundia izan zan Baskoniako agintaria.

Ondoren eta 710-735eko urte bitartean, Eudon Aundia izango zan Baskoniako duke- rriaren agintaria.

711ko urtean, Muzaren mauritarrak Tariken agindutara erdi ugarte onetan Kadizetik sartuta, Rodrigo bisigodoaren gudaloztea ezereztu eben.

714ko urtean Eudon Saldubara<sup>(2)</sup> eldu ta menperatu eban.

Salduba ta Logroño arteko eremu zabal baten buruzagi nagusia izan zan Kasio, eta bere ibar orreitan kokatuta geratu ziran kasiotarrak ondorengo lez.

Kasio kondea, bisigodotarren errege leiñukoa zan, eta 714an bere lurraldearen agin- teari eustearren musulman biurtuta, kalifaren serbitzura aldatu zan, ortik artuta Banu Kasiren<sup>(3)</sup> izena, garrantzi aundikoa izango zana nafartarren erregetza sortzeko.

718an Akitaniako lurraldea, Eudon Aundiaren jabetasunean izanda, euskal eragipe- na iparraldetik Loira ibairaino, Ego aldetik Ebroraino, ta mendebaleko kantabrietik, Auñamendiren ekialdeko Jirona Lleidakako Aran ibarrerarte laterrituta geratu zan<sup>(4)</sup>.

Orduko denboretan Eudonen printzerri au, Galia guztiko eredu lez geratu zan, Aus- trasia<sup>(5)</sup> ta Neustriaren<sup>(6)</sup> arteko borrokatan, antolatzaile edo artekariaren<sup>(7)</sup> lanak al egiteko bakarra izan zalako.

Eudoni askatasunaren eragipenezko ekintza orreik, eskerron<sup>(8)</sup>, onespeneko<sup>(9)</sup>, ta erre- gearen<sup>(10)</sup> izena balio eutsozan.

718-721eko urte bitartean Eudonen jaurkintzagaz, Baskoniako dukateria bere askata- sunezko aldi aundiena euki eban, erasoan ibili ziran mauritarrak be menperatuta, arik eta Karkasonako borrokararte.

Berak baiña, euskaldunaren laguntzagaz lortutako askatasunak sendotzen joan zan, ta bere ondorengo Unaldo ta Gaiferosek, Marteltar Karlosegandik karolinjioaren aurka borroka gogorak egin arren, aurrera eroan ebezan.

734ko urtean I Otsoa edo Lupusek, Banba<sup>(11)</sup> bisigodoari urten eutson bidera, au Baskonian sartu zalako, euskaldunai laguntzen eutsoen Septimaniako bisigodo matxinatuak zigortzeko.

Urte onetan Banba Iruñian sartu zan, euskaldunak ata guzti baiña, askatasun aundiak asi ziran lortzen bisigodo ta merobinjioarengandik.

741ean Marteltar Karlos il zanean, euskaldunak alperrik asi ziran frankotarrak euki eben agintaritzaren aurka; 768ko urtean euskal dukaterrian Unaldoren urrengo Wai- fre<sup>(12)</sup> zanak aurre egin eutsoelako, IIIIn Pipino Martelen semeak il ebalako.

(1) Lupus edo Otso oneik, Aragoiko Iaka edo Jakakoak ziran. (2) Salduba edo Sarakusta = Zaragozak euki eben euskal izena. (3) Banu Kasitarrak = baleiteke euskaldunak izatea. (4) Dentro del estado franco, el estado vasco. (5) Austrasiako lurraldea = Klodobeok eraiki eban ekialdeko erregetza, eta Frantziaren eki alde, Ale- maniko mendebal eta Olandako lurraldeakaz osotzen zan. (6) Neustriaren lurraldea = Merobijioaren den- boran sotu zan erregearen lurraldea, eta ipar-mendebaleko Loira ibai, Mosa ibai, ta Bretañako lurraldeakaz osotzen zana. (7) Antolatzaile edo Artekari = arbitro. (8) Eskerron = gratitud, reconocimiento. (9) Onspena = aprecio, buena acogida, aplauso. (10) Regnun = reino. (11) Wanba. (12) Waifre = Wafarius.

Martelen seme II In Pipino laburra, Karlomagnoaren aita eta orain Frankotarren erregeak, II In Otsoari, Akitaniako euskal jabetasuna ta askatasunaren truke, berak euskaldunen artean aukeratzen ebazan esku aundiko zaldunak beragaz baituran<sup>(1)</sup> lez eroate ta beartu eutson, eta bere semea baitura orreitan sartzen zan lez, zigor ori izan zan II In Otso edo Lupok I Eudonen askeneko semeak, Frankotarrari ordaindu bear izan eutse-na, Akitaniaren askatasunagaitik.

Jatorrizkoak ziran erregetzazko leiñu bi onen artean, politika arloan nor geiago izateko leian, Akitaniakoa: I Eudon, I Unaldo, Waifre eta II In Unaldo. Eta karolinjotarrena: Karlos Martel, Pipino laburra, eta Karlomagno izan ziran.

760ko urtean Pipino Laburra errege egin eben orduan agertu zan askatasun orren erantzuna, Pipino Gaiferosen aurka etorri zalako Akitani ta Baskoniako dukaterriak euki eben askatasuna menperatzen.

10 urtearen odoljariozko gudak izan ziran Pipinok egin ebazanak, Gaifero, Akitani ta Baskoniako dukea menperatzen.

Euskaldunak eta Frankoak, kideasunean jokutzen eben geienetan, baiña oneik menpeko asmakuntzazkoak ziran lez, beti asarratzen ziran, erabagiak euskaldunen alde agertzen ziranean.

Frankotarrak, mauritarrak dirala ta, artu emon aundia euki eben Baskoniako Dukerriagaz, Karlo Magnok, ardua aundia euki ebalako mauritarrak bere erreñutik kanpo egon zitezen.

Bide batez Baskonian bizi zan, sarri izaten ziran euskaldunen matxinadak geratzeko.

Eta bitartez, erdi ugarte onen iparraldeko Emirrekin lan edo gudarako kidetu egiten zan, auek Kordobako Kalifaren aurka matxinatzen ziranean.


768ko urtean Pipino il zanean Akitania eta Baskoniako dukea II In Unaldok, Karloman eta Karlomajno Pipinoren semeak ez ebazan onartu karolinjioaren erregetzazko ondorengo lez, eta oneik bereala asi ziran gudalozteak antolatzen II In Unaldoren aurka.

769ko urtean Karloman eta Karlomagnok Akitaniako dukeari irabazita eta frankoak Girona ibai ingurura joanda, guda keiñadagaz Baskoniako duke II In Loperi eta I Santxo, Zentollo, Jimeno eta Garzia, jarraian Akitaniako dukeak izango ziranei eskatu eutson, bertan babestuta euki eben Akitaniako duke sendia eurei eskuratu eutsiela, eginkizun orrekaz karolinjioaren leiñu lapurrezko Pipinoren seme biak, onartuz frankoaren errege lez.

671eko urtetik 781eko urtera Baskoniako Dukerria, frankoen agintzatik aske bizi zan, eta bera izan zan lenengoz, euskaldun guztiak politikazko jabetasunean alkartu ebazanak.

Euskaltasuna eta Euskerea sendotu ziran. Batera baiña, beste zoritxarreko gauza sortu jakon gure izkuntzari.

Euskerea sendotu zan gitxi erromatartuta egon ziran euskaldunen artean.



(1) Baituran = en rehenes.



Geien erromartuta egon ziranen artean **Gaskon** latinkumea agertu zan, ortik aurrera gaskoien erritarrak izendatuz.

Gero, gizaldiak aurrera doiazelata Gaskoi izkuntza zabaltzen joan zan, Euskerea neurri bardiñean gitxituz, XII-XIIIIn gizalditik aurrera, Araneko ibarreraiño.

Dana dala, Baskoniako Dukerria Frantzian, zabaltasun aundia artzen joan zan eta bere lurraldea, gaur Gaskaña lez ezagutzen dan lurraldea osotzen eban.

Akitaniarentzat keiñadura gogorra izan zan mauritarrena, erdi ugarte onen lurralde guztiagaz jabetu ziralako.

778ko urtearen Dagonillako 15ean Karlomajnok, Auñamendiak igaro ebazan, ta egi-ten egoan bidea Saldubara eltzeko, Iruñari ikutu eutson eukezan ormak botata, itzuli zan orduan be bardin eginda.

Salduba edo Sarakustako arresiormatara eldu zanean baiña, Soliman Ibn al Arabi mauritarrak I Abderramanen aurka egiteko, berari emon eutson laguntzazko berbeagaz Kordubako emirra izateko damutu ondoren, Karlomajnorri egin eutson eraso aldi gogorragaz beren aurka agertu zan.

Eta baita Frantziko lurraldeetan saioiak matxinatu ziralako, Karlomajnok Soliman Ibn al Arabi atrapauta itzuli bear izan eban, eta Frantzira joaten egoala, Orreagan<sup>(1)</sup> euki ebazan itxaroten iruñako euskal minduak, eta Karlomajnoreen gudalozteari emon eutsoen astiñaldiekin ikaragarritzko zarraskintza eginda, 1.090ean agertu zan Roldan betikotu egingo eban gudu eresia eta 1.624ko urtean Balbuenak<sup>(2)</sup> Orreagako “El Bernardo ta Garaipena” idatzi ebazanak 40.000 itz neurtu edo bertsuakaz.

Emen askatu eben Soliman Ibn al Arabi ori.

Urte orretan eta Karlomagnok Orreagan ikusi zanagaz, Baskoniako IIIn Unaldoren beldur, Burdeoseko lurraldearen konde barri bat izendatu ondoren Unaldo bera, jokoz kanpo geratu zan eta bien arteko eztabaidak asi ziranen, Karlomagnok ziñauskerian edo ta fedea ukatzean sartuta egon zalako aitzakiarekin il eban, bere seme Akisgranen Karlomagnoren semeagaz batera ikasten egon zan I Santxo onartuta euskaldunaren lurraldeko duke lez.

Karlomagnok, Euskaldunak askotan matxinatzen ziralako arduratuta, Asturiaseko IIIn Alfonso nasgabea<sup>(3)</sup> esaten eutsoen erregeagaz alkartu zan, baiña onek ego aldeko mauritarrakaz bere premiñtasunak euki ebazan lez, ez eutson laguntzarik emon.

Katolikotasunezko eleizak berezko errigizartearen eskubideak kontuan artu gabe, ale-gin asko egin ebazan Frantziako erregetzan batzangotu zitezen lurralde ta erritar erreik, eta neurri erreitan ugaritu ziren euskaldunen matxinadak Akitaniako lurraldetan.

Aita Santu guztiak katoliko joko orretan sartuta, beti ibili ziran euren arteko errege indartsuena aukeratzen, kaizar sakratuaren inperatore edo agintari izendatzeko.

(1) Orreagan = Roncesvalles. (2) Balbuena = 1.568-1627ko urte bitartean bizi zana. Baldepeñasen jaio zan eta Aberats-Kaian il (Puerto Rico). Erdi-ugarte onetan bizi zan adiñetan eldutasunera eldu zan arte, gero Mexikoko Nueva españan bizi zan. Jamaikako Abate ta 1.619ko urtean Aberats-Kaiako go-tzaia izan zan, eta emen egon zala 1.625eko urtean Olandarrak erasoan sartuta eta Uria saskildu ondo-ren bere ainbat elerti-lanak galduta. 1.604ko urtean “Mexikoren Aunditasuna”, 1.607ko urtean, “Urrezko Gizaldia Erifeko Basartetan”. Eta 1.624ko urtean “Orreagako el Bernardo edo Garaipena” 40.000 oitz-neurtu edo bertsuakaz. (3) IIIn Alfonso Nasgabea = Alfonso II el Casto. = 759-842ko urte bitartean bizi zana, 791-842ko urte bitartean Asturias eta Leongo erregea, bere jaurkintzako jauregia Obiedon eukena eta bere erregetzan aurkitu eben Santiago Santuaren arnabar edo arbiziko arrilobi aundia.

Danak baiña azken gaiztoa euki dabe, lenengoetatik mendeko bide okerretan sartzen ziralako, berezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

781eko urtean Karlomagnok, bere ondorengo seme Ludobiko Pioren eskuetan izteko Akitaniako erregetza Baskoniako dukerriagaz batera ibili zan, euskaldunak baiña aurre egin eutsoen Burdeos, Fezensak eta Toulousen egon ziran karolinjioaren ordezkoeri.

Eta Adalriko, II In Lope Baskoniako dukearen semeak Toulous erasotuta, Torson karolinjioaren dukea atxilotu eta gero aske itzi eban, eta karlomagnok, askatasun ori Baskoniako dukearen aldetik berentzat lotsagarrizkoa zalakoan, Torson kendu eban kondeztazko arduratik eta bere giroko Gelloneko Gillermo ipini eban.

790eko urtean Gelloneko Gillermo onek euskaldunak menperatu ebazan.

800 urteko gabonetan Karlomajno, Erromako Pedro Santuaren eleizan III In Leon Aita Santuak, erromatar kaizar sakratuaren Augusto kaizerra izendatu ebenetik itzuli zanean, Akitaniako euskaldunak matxinatuta egon ziran.

801eko urtean Gelloneko Gillermok, menperatuta euki ebazan euskaldunak, beartu ebazan Bartzelonara eurakaz menperatzera joatea.

812ko urtean Karlomagnok geiegi zirikituta leku guztietako euskaldunak matxinatzen ziralako, Iruña menperatzeko alegiñetan asi zan.

814an Karlomagno il zanean, I Pipino Akitaniako erregeak<sup>(1)</sup> bialduta agertzen da, III In Pipinok ainbat urte ariñago baitua<sup>(2)</sup> izan zan Santxo Otsoa, II In Otsoaren semea.

Nobenpopulania zarreko<sup>(3)</sup> euskaldunak, Santxo Otsoak zuzenduta egon ziran. Gero, bere seme nagusia Aznar Santso, eta au Akitaniako errege I Pipinok il ebenean, 836an bere anai Santxo Mitarrak artu eban jaurkintzaren ardura.

Santxo Mitarra, Nafarroa eta Aragoiko goi aldean ibili zan bere aitagaz, guda ta politikako zeregiñetan trebetasun aundiak lortuta.

817ko urtean euskal matxintasun orreik indarra artzen asita gorantza joan zan eta ainbat duke kendu eta ipini ondoren, Orreagako bigarren borroka nagusiaren antolamendua baiño besterik ez zan izan, Nafarroako erregetza sortuko ebena.

Eta 824ko urtearen Ludobiko Piok euskaldunen aurka bialdu eban gudalozte indartzu bat, Garona eta Ebro ibaiaren bitarteko lurraldeak menperatu gura ebazalako eta Euskaldunak ezereztu ondoren, Aristatar Eneko Nafarroako errege izendatu eben, 852ko urtean zendu zan arte, or jaiota alde bietako euskaldunaren Nafarroako euskal erregetza.

836ko urterate iraun eben matxintasun orreik, ainbesterarte ugarituta lokaztu egin ziralako karolinjioaren katolikotasunezko kolonizazio ta menperatzailetasunezko feudo lege barriekin, eta ortik aurrera esan leike, Auñamendiaren alde bietako euskaldunak banandu gintzazala, naita egia izan ez.

Euskaldunak sendi on bat lez, arremman onak euki doguzelako beti.



(1) I Pepino Akitaniako erregea 803-838, Luis errukitsuaren ( el piadoso) bigarren semea, Akitaniako errege izendatu eben, bere anai Lotarioren menpean, au, kaizar izenaren ondorengoa zalako. (2) Baitua = rehen. (3) Novempopulania = Galia erromatarrek 17 lurraldeetan banandutako bat, Aquitania lurraldeko geien osotzen ebana.

Baiña aldebietako euskaldunak, jendekuntz edo aldebiren menperatzailetasunezko kolonizazioaren era ezberdiñ bi aurrean agertu gintzazala bai, jendekuntz bidetik begituta, oso ezberdiñak izan ziralako beti, frantzez eta Asturias-Leon-Gaztela ta Aragoitarren artean, naita ez izan aberri katolikoan batzangotzeko zaleak, eta mauritarren Isladar batzangotzeko zaleak.

España izango ote da aberritasun ori ? . Aita nun daukien baiña, itandu bear antza.

838an I Pipinok, Santxo Mitarrari borrokara beartu eutson, eta onek Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda Pipinoren gudalozteak, ezereztu ebazan.

Karlomagnoaren nagusikeritik 68 urte geroago, Euskaldunak ostera jabetu ziran euren lurralde osoakaz.

Frankoaren errege I Luis errukitsuak<sup>(1)</sup>, Santxo Mitarraren jaurkintza baieztu eban, 840an bera il zanean baiña, Frantziako kaizertza bere iru semeen artean banandu eban, eta mendebaleko lurraldea Akitaniagaz batera, Karlos buru soillen<sup>(2)</sup> ardura-pean geratu zan.

Euskalerrria, naita gero murriztuta geratu, beti danik izanda Euskaldunen Aberria.

853eko urterarte ondorengo anai arteko gudatik urten ezinik ibili ziran II n Pipinok Santxo Santxizen Baskoniako dukearen babespera joan arte, onek baiña Karlos Soillari eskuratu eutson bien bitartez umajea egitea erabagi eban, eta umaje ori izan zan askenekoa Euskal duke batek egin eutsona, karolinjio errege bateri.



## 1.7. Gaskuñako Dukaterria.

Gaskuñaren itza, **Baskoniako** euskal itza, latinkume frantzezak **Gaskogne** itzan biurtu ebenetik da, lurralde orreitan euskaldunak baiño besterik ez ziralako egon.

Lurralde au, Frantziko egomendebalean Garona eta Aude ibaiak, Auñamendiak eta Atlant Itsasotik mugatuta dagoena, eta nai Paleolítico Neolitiko aldietatik euskaldun lurra izan arren, euskerea ta oitur euskaldunak Baiona inguruan bakarrik geratzen dira.

Erromatarrak deitu eutsoen lenengo Akitaniako izenagaz, gero euren antolaketarako Nobenpopulaniaren izena ipinita.

601eko urterako bisigodo ta frankoek menperatuta, urte onetan irasi ziran Gaskuña ta Baskoniako dukaterriak, 1.058ko urterarte Akitaniako dukerriaren menpe egon ziranak, gero XII-XV n gizaldi bitartean ingelesaren menpean egonda, arik eta Nafarroa ta Frantziko IV n Enrrike errege euskaldunak Frantziako koroara aldatu arte.

781eko urtean sortu eben Karlomagnok Gaskuñako Dukaterria Akitaniako lurraldetan, eta beren seme Ludobiko Piok bere aita Karlomajnok aginduta artu ebanean Gaskuñako dukaterria, Baskoniako dukaterriaren legepean artu eban, eta laster oituratu zan Euskalerrriaren oiturasunagaz.

(1) I Luis errukitsua = el piadoso, o, Ludovico Pio 778-840. (2) Karlos buru-soilla = karlos el calvo, 823-877ko urte artean bizi zana.

785eko urtean Karlomajnok Paderboneko jaurkitegira deitu eutsonean, euskal oituran aurkeztu zan bere aitaren aurrean, Praka luzeakaz, oiñetan zaldia zirikatzeke burdiñezko orkatxekin eta eskuan aiztamakilla eroan ebala.

Konderri au, Adur ibaiaren ibarrean eta Baionako uriaren inguruan sortu zan, Auñamendiaren alde bietan beti ondo arremanduta egon diran euskal sinismenak ondo zainduta, gaur be euskal izatasunetik zeozer baiño geiago geratzen jakielako.

1.032ko Urrillaren 4an il zan Garziatar Santxo semebarik, eta Iruñako erregea bere jaurkintzagaz geratu gura izan eban, baiña Akitaniako duke eta Poitierseko konde Guillermo Aindiaren seme Eudeseri emon eutson.

1.033ko urtean artu eban Eudeseke Gaskuñako jaurkintza.

1.063ko urtean VIII In Gillermok batu eban batzarrean artu zan erabagia, gaskoi konderria, Akitaniako dukaterriagaz bat egitea.

Gero, Akitaniako Leonor, Ingalaterrako Plantagenet´tar Enrikegaz ezkondu zanean, Ingalaterrako feudojaun morroitasunera aldatu zan.

### **1.8. Banu Kasitarrak.**

713ko urtetik aurrera, Banu Qasi, Banu Kasi, Beni Casi edo Banu Musaren senidetasuna, euskal edo bisigodoaren zalduneko Kasio kondearen senidetasunetik datorrena da, Tudela, Tarazona, Zaldunen Ejea ta Najerako lurraldearen inguruetatik agintzen ebana.

Eta 714ko urtean mauritarren agerkeria sortuta Islam´era aldatu zana, Omeyatarren zergapeko edo morroi biurtuta, ortik agertuta Banu Kasi edo Kasioaren seme alabak.

734ko urtean asi ziran Banu Kasi ta euskaldunen arteko arremanak, euren artean be senidetuta, eta batek edo besteak zeozer bear ebanean, an agertzen ziran alde bietakoak laguntzeko prest.

784ko urtean eta euren arteko ezkontza orreititik, Onneka nafarra, nafar Jimeneztar Iñigorekin ezkondu eban zan ta bien artean Iruñako euskal erregea izango zan Jimeneztar Iñigoren gurasoak izanda, Jimeneztar Iñigo aita il zanean eta bere emazte Onneka alargundu, Musa ibn Fortunegaz eskondu zan, ezkontza orretatik Musa ibn Musa jaiota, Jimeneztar Iñigoren ugaz anai edo anai ordea izan zana eta gero I Musaren izenakin, Saldubako jaurleri aundi lez ezagutuko zana.

851ko urtean Albeldado borrokan I Musak, katolikoak menperatu ebazan.

852ko urterarte, goi aldeko muga borroka ugarikoa izaten zan franko ta mauritarren artean, eta eztabaida ugari orreitan Banu Kasiren sendia sendotu egin zan lez, I Mohamed emirrak, Musa ibn Musa izendatu eban lenengo Tudela ta geroago Saldubako jaurleri lez I Musaren izenakin, geroago euren senditasuna indartzeko Arista tar Iñigoren alaba, I Musagaz be ezkondu zana.

852ko urte onetan Tudela ta Saldubako lurraldeak jaurkituz gain, Kalatayuz eta Daroka Kalamotxaraiño lurraldeak jaurkitu ebazan, gero goialdeko mugalde guztia jaurkituta.

Ueskan be, artu emon aundia euki eban, eta bere seme Lope ibn Musa, Toledoko jaurleri lez ipini eban.

862ko urtean I Musa il zanetik, bere semeak Kurtubako Omeyaren aurka matxinatu ondoren, onek euren aurka asi ziran Tuyibieseri lagunduta, Xn gizaldian, Banu Kasiren jaurkintza lortuta.

### ***Euskalerrriaren aurkezpena, orduko denboratan.***

Euskalerrriko edesti onetan eta Nafarroako erregetzaren sorkuntza baiño len, euskal askatasunezko demokraziaren eragipenean geratzen ziran lurraldeak eta Euskalerrriak euren ingurutasuna aurkeztuko dautsuet, adibidez euskal lur lez Auñamendiko alde bietako: iparrean, Akitania, Baskonia, ta Gaskuñako dukaterriak. Eta ego aldean: lau euskal lurraldeak Aragoiko lurraldeakaz osotzen zana.

Frantziko euskal luraren gaiñetik frankoak, erdiugarte onen mendebalean barri sortu edo jaiotako Asturiaseko erregetza eta ego alde guztian azkenez sartutako mauritar indartsuekin inguratuta geratu giñan.

Au da jakin bear doguna zentzuz, zelango larritasunean aurkezten zan gure Euskalerrri maite au jakin degun, eta batez be, zergaitik agertu ziran beartuta jaurkintzazko antolakuntzak egiten, askatasunezko erri lez aurrera egiteko.

Bi izan ziran garrantzi aundienekoak baiña, Nizean 325ean jaiotako katolikotasunezko ziñeskintza, eta gure erdiugarte onen Ebro ibaitik Kadizeraiño zabaldu ziran mauritarak, 622ko Uztaillaren 16ko egunean Arabia Saudiko erdiugartean Mekan Maomaga sortu edo irasi eben euren Islam ´en ziñeskintzagaz, mundu onetan nor jabetzeko leian, bata bestearen aurka prest atondu edo antolatu ziranakaz.

***Katolikotasuna iparraldetik,*** 325eko urtean Nizean irasi eben ziñeskintzagaz, munduan egin dan lapurketa aundiena egin jakon kristautasunezko erri edo Europa ta munduak euren kristau erri guztiari, katolikotasunezko kaisertzan batzangotzeko ziñeskintza orregaz, Jainkoaren eskutik mundu onetara kudeatzaille edo egipidearen arduragaz jaioten ziranai, katolikotasunean asmatutako eritzi orrek kendu egiten eutsozelako kudeatzaillezko arduraren egipide orreik, danak bere morroi biurtzeko.

Euskalerrriko sinismenaren guztiz aurkakoa zana, milla urte askotan ondo baiño obeto baituta euren askatasunezko demokraziaren aurkakoa zalako.

Ezin da askatasunezko eritzia, morroitasunarenagaz zorro baten batera ekarri, bere emaitza borroka utza dalako ekarriko ebena, eta alan sortu izanda edestiko asken 2.000 urte onetan.

***Eta mauritarren Islam ´tarrakaz ego aldetik,*** katolikotasunaren bardiñ antzeko zentzuan koraneko ziñeskintzagaz, Euskalerrria bien artean ogitarteko bat lez larri estututa geratu zalako, bere askatasunezko demokraziagaz ziñeskintz bien orren aurka bultzatzeko premiñan agertuta, berari egokitzen jakon eukal lur zabalean nasai agertzeko.

Lapurrezko mamutzar aundi bi orrein aurkako bultzakada orreitan, beste erregetza asko sortuko ziran, Euskalerrriari miñ asko egingo eutsenak, baiña ez daukenak ardura aundirik, euskal askatasunezko demokraziaren izartasuna, garbi ta argi aurkeztuko dogulako, edesti onen kondairan emoten doguzan oinkadakaz.



## 1.9. *Iruñako erregetzaren sortarazia.*

778 ta 824ko urtetan euskaldunak Orreagan, Frantziko errege Karlos Aindiaren aurka euki genduzan borroka bi ostean, Jimenez ta Aritzatar Iñigogaz jaiio zan gure Iruñako erregetza, Tudelako jaurkintza eroaten eben Banu Kasi sendia ta Iruñako gotzaiaren laguntzagaz.

## 1.10. *Iruñako erregetza sortarazteko sortu zana.*

711ko urtean erdiugarte onetara mauritarrak sartzen asi ziranean, bisigodoen errege Rodrigok, euskal Eudon Aindiaren aurka ibili zan borrokan Iruña inguruan, konturata baiña mauritarren sarrerakin eta bertora joanda, Guadaletako ibai ondoan egin eben borrokan, bertan il eben Rodrigo, Tarik´en gudaizteak.

714ko urte orretan, Tuterako Kasi kondea Ebro ibaiaren lurraldeak jaurkitzen ebazan, islamnera aldatu zan.

716ko urtean mauritarrak sartu ziran Iruñean eta bertatik Narbona aldera joan ziran.

720ko urte onetan, Mauritarrak peninsula onen jabetasun osoa lortu eben, eta Galiase-tan aurkako *razzias* edo azkartasunezko eraso alditan ibili ziran.

720an Mauritarrak Auñamendiak igarota, Toulouserri eraso eutsoen, eta Eudesez, bere ardurazko lurraldea babestearren, espainaren iparraldeko Mauritarrak emirra izan zan Abinessaren alabagaz ezkondu zan.

Alperrik baiña, Abd-el-Ramanek Abinessa baztartuta eta Auñamenditik aldatuz, Autx ta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauzen ikaragarritzko zarraskia egin ta gero Toursera joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

721eko urtean mauritarrak Okzitaniako Toulouserri eraso eutsoen, eta Akitania ta Bas-koniako euskal dukea Eudonek euren aurka joadu, menperatu ebazan.

Eudes Aundia, bere ardurazko lurraldea babestearren, erdiugarte onen iparraldeko mauritarren Emirra Abinessa zanaren alabeagaz ezkondu zan.

Abd-el-Ramanek baiña, Abinessaren ezkontza kontuan artu bage ta baztartu ondoren, Auñamendietatik aldatuta, Autx ta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauzen ikaragarritzko zarraskiak egin eta gero, Toursera joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

730eko urte onetan mauritarrak, bisigodoaren menpean egon ziran Septimaniako lurraldeakaz jabetuta, iparralderantza bideratu ebazan euren erasoak, Akitaniako Eudel dukeari, Marteltar Karlosen laguntza eskatzera beartu eutsona.

732ko urtean Karlos Martelek, Eudesez laguntzen joanda ta Abd al Ramanen mauritarrak euren gudaizteakaz Frantziako ipar aldea erasotzen ibilita, Poitiersera eldu ziranean, bertan aurkitu ebazan Eudel dukea ta Marteltar Karlosen gudaizteak, eta moruak astintasun ederra artu ta gero, Auñamendiak igaro ebazan.

Martelentzat gauza ona izan zana, ortik aurrera Frantziaren egoaldeko lurraren jabetasuna lortzeko. Eta batez be, Europak euki eban islamizazioaren arriskutik kanpo geratu, katolikotasunaren menperatzailletasunezko asmo eritziak jabetu egian.

734ko urtean Marteltar Karlosek, Frisiaren ekialdeko gudalozteakaz borrokatu zan eta lortu eban menperatzea. Emen asi ziran euskaldun arremanak, Banu Kasiren sendiagaz.

734-740ko urte bitartean ta euskaldun erasoakaz beartuta, mauritarrak guda zainpean ipini bear izan eben Iruñako uria, 741eko urterarte iraun ebana.

735ean Eudon Aundiak, ez eban on artzen inñolako nagusitasunik frankotarren aldetik, eta Karlos Martel Euskalerrian sartuta Eudon il eban. Eudonen urrengoa, bere seme I Unaldo izan zan, frankotarraizintzotasunezko ziñ itza<sup>(1)</sup> emon ostean.

735ko urtean, Mauronto dukearen gudalozteakaz aurkitu ziran mauritarrak, eta ekialderuntz bideratuta, mauritar gudalozteak Arleseko uria menperatu eben.

737ko urtean mauritarrek Abiñon artuta, euren eraso azkarrakaz<sup>(2)</sup> Lyon eta Akitania-raiño eldu ziran. Eta urte onetan il zan IVn Teodoriko erregea.

739ko urtean mauritarrek, naita Probenzako etxezaiñaren birreraso aldia euki, lonbar-doak keiñatu edo ta larderiatu ebazan, ta Marteltar Karlosek lonbar-doaren laguntzagaz, ia lortu eban lurralde orren jabetasuna, eta lurralde orreik alde bateko eta beste aldeko jaurkintzan ibili ebazan, 759ko urtean Pipino Laburrak, Narbonagaz jabetu arte.

741eko urtean Karlos Martel il zanean, Euskaldunak alperrik asi ziran Frankoen agintaritzaren aurka, Waifre<sup>(3)</sup>, IIIIn Pipino Martelen semeak 768an il eban arte, aurre egin eutsuelako.

IIIIn Pipino Laburrak<sup>(4)</sup> Martelen semea, Karlo Magnoren aita ta orain frankoren errege IIIn Otsoari, Akitaniaren jabetasunezko askatasun trukez, esku aundiko Euskaldunen artean berak aukeratzen ebazanak, beragaz baituran<sup>(5)</sup> eroatera beartu eban. Eta ori izan zan IIIn Otsoak edo Lupok, Eudesen edo Eudonen azkeneko semeak, frankoai ordaindu bear eutsona Akitaniaren askatasunagaitik.

Politikan norgeiago izateagaitk errege leiñu jatorrizko<sup>(6)</sup> bi auek. Akitaniakoa: Eudon, I Unaldo, Waifre ta II Unaldo. Eta Karolinjioarena: Karlos Martel, Pipino Laburra ta Karlomagnoren arteko leian, Pipino Laburrak erabagiko eban, 9 urte luzeetan arau bideko<sup>(7)</sup> gudaldia eroan ebanagaz, garaille urten ebalako.

Frankoak ta euskaldunak geienetan kidetasunean jokutzen eben, baiña beti asarratzen ziran, erabagiak euskaldunen aurka joaten ziran, frankoen erabagiak gaiztoak izaten ziran beti, lenengoetatik okerreko bidean sartzen ziralako, berezko erri eta erritarrak kontuan ez eukitearren.

Frankoek Baskoniako Dukerriaren bitartez, euskaldunekin artu emon aundia euki eben, Karlomagnok ardura aundia euki ebalako Mauritarrak bere erreinutik kanpo eukiteko.

Eta orretarako espainaren Iparraldeko emirrekin lankidetu egiten zan, au Kordobako Kalifaren aurka matxinatzen zanean.

(1) Zintzotasunezko ziñ-itza = juramento de obediencia, fidelidad, rectitud, honradez. (2) Eraso azkarrak = razzias. (3) Wifre = Wafarius. (4) IIIIn Pipino laburra = 715-768 Marteltar Karlosen semea eta Karlomajnoren aita, 741-751 urte bitartean etxe-zaiña eta 751-768 urte bitartean frankoen errege bere anai Karlomanegaz batera 747ko urterarte, eta orren ostean Zakarias Aita Santuaren laguntzagaz, Merobinjioaren IIIIn Txilperiko erregea bere aulkitik botata, frankoen erregetza lortu eban eta Bonifasio Santuaren eskutik errege igurtzita 751ko urtean, Esteban Aita Santuak osteria igurtzi eban errege 754ko urtean ortik aurrera bere erregetza Akitania eta Septimaniako lurraldeetatik zabaldua, eta /68ko urtean il zanean, bere erregetza euki zituzten semebi Karloman eta Karlos, gero Karlomajno izango zanakin banandu eban. Eta Karloman = Marteltar Karlosen semea eta IIIIn Pipino Laburraren anaia, Austrasiako etxe-zaiña. (5) Baituran = en calidad de rehen. (6) Leiñu jatorrizko = de familia originaria. (7) Laborado en sistema legal.

Karlomagno bide batez, Baskonian bizi zan, sarri izaten ziran euskaldunen matxinadak geratzeko.

742ko urtean Neustrian jaio zan Karlomajno aundia, Marteltar Karlosen billoba eta Pipino Laburraren seme au.

755eko urtean Iruñako jendartea eta euskal sendi aldun batzuk alkartuta, islamnen aurka kokatzen dira.

768ko urtearen Iraillako 24an Pipino laburra il zanean, Karloman eta Karlos<sup>(1)</sup>, euki ebazan seme bien artean banandu eban bere erregetza, eta anai biak igon eben ondorengo lez erregeen aulkira.

771eko urtean Abenduaren 4an il zan Karloman, eta Karlos edo Karlomagnok, urte orretatik asi ta jarraian asi zan akitano, lonbardo, babaro, saioi ta abaroak, euskaldunak izan ezik menperatzen. Aurrerantzean Kalomagnok, bakarrik eroan eban frankoren erregetza.

778ko urtearen Dagonillako 15ean Karlomagnok, Auñamendiak igaro ebazan, ta egi-ten egoan bidea Saldubara eltzeko bitartean, Iruñari ikutu eutson eukezan ormak botata, itzuli zan orduan be bardin eginda.

Karlomagnok Salduba edo ta Sarakustako<sup>(2)</sup> arresi ormatara eldu zanean Bartzelonako bali´en laguntzagaz uri ori menperatzeko, au Kordobako emirra izan gurean ebili zalako I Abderramanen aurka.

Soliman Ibn-al-Arabi mauritar onek, Karlomajnorri emon eutson laguntzazko berbea I Abderramanen aurka egiteko damutu ondoren, I Abderramanek Karlomajnorri egin eutson jazargo gogorragaz, baita Frantziko lurraldeetan saioiak matxinatu ziralako, Karlomagnok Soliman Ibn-al-Arabi atrapauta itzuli bear izan eban.

Eta Frantzira joaten egoala, Orreaga<sup>(3)</sup> ondoren, Ibañeta aitz ta Luzaideko aizbitartean euki ebazan itxaroten iruñako euskal minduak II In Luporen aginduz ta Banu Kasi sendiaren laguntzagaz, eta frankotarra emon eutsoen astiñaldiekin, or agertu ziran Roldaneri<sup>(4)</sup> egin eutsoen gudu eresia eta 1.624ko urtean Balbuenak<sup>(5)</sup> Orreagako “El Bernardo ta Garaipena” idatzi ebazanak 40.000 itz neurtu edo bertsuakaz. Soliman Ibn-al-Arabi ori, emen askatu eban.

***Denbora onetan, arrizku aundiak euki ebazan euskaldunak, Auñamendiko alde bietatik erasotzen euskuelako, eta euskal sendi bien buruzagi edo agintaritzazko taldetik sortu jakuzan Iñigo ta Belaskotarrak biak aurka kokatuta, Iñigotarrak Banu Kasi mauritarraz senidetu ziran eta Belaskotarrak frankotar Karolinjioarekin.***

781eko urtean Karlomajnok, bere iru urteko seme I Luis Errukitsua<sup>(6)</sup> aurrerantzean errege izaten ikasi egien, Akitaniako errege izendatu eban euskal berezitasuna ezerez- tuteko naian, euskaldunak baiña, euren nortasunagaitik tematsuak izan ziran lez, beti

(1) Karlos = gero Karlomagno izango zana. (2) Salduba edo Sarakusta = Zaragoza. (3) Orreaga = Roncesballes. (4) Roland, Roldan edo Erroldan = Karlomajnorenen loba maitagarrienetarikoia. (5) Balbuenatar Bernardo = 1.568ko urtean Baldepeñasen jaioa, gero Mexikon bizi eldua izan arte eta 1.604an Mexikarren aunditasuna ta 1.607an “Urrezko-Gizadia Erifлеко-Basartean” idatzi ebazanak, gero 1.619ko urtetik asita Jamaikako abatea ta Aberats-Kaiaren edo Puerto Rikoren gotzaia eta 1.624ko urtean “Ronzesballeseko El Bernardo edo Garaipena” El Bernardo o Victoria” “Bernardo del karpio” erdiko idatz-gai lez 40.000 itz-neurtu edo bertsuak daukazenak, eta 1.625eko urtean Olandesak egin eben itsas-lapurketako erasoan euki ebazan idatzitako libu geienak galduta, 1.627ko urtean Aberats-Kaian il zana. (6) Luis Errukitsua = Luis el Piadoso, o, Ludovico Pio, 778-840ko urte artean bizi zana, eta Frantziko errege ta Erromatarren Kaisertzazko Sakratuaren agintari lez 814-840ko urte bitartean arik eta il zan arte.

berrezkuratu ebezan euren askeneko lurraldeak, gaur gagozan lurraldeetan geratu arte.

798ko urte inguruan Iruñak, franko ta mauritarren erasoak euki ebazan, eta Banu Kasiren sendikoa izan zan jaurlaria il ebenean, euskaldun bat aukeratu eben jaurlari, Banu Kasi sendiaren baimenagaz.

799ko urtean Iruñako jaurlari Mutarrif Ibn Musa, Belasko edo karolinjioaren aldekoak il ebenean, Iñigotarrak Banu Kasiren laguntza eskatu eben, Iruñaren kontrola euskal eskuetan eukiteko.

799ko urtean erromatarrek, IIIIn. Leon Aita Santua arrapatu naian ibili ziran, begiak eta mingaiña kentzeko itxaropenagaz, eta IIIIn Leon Aita Santuak iges eginda, Paderbarrera joan zan Karlomagnoaren babesean kokatzeko, bai eta eskatzen bide batez, Erroma bakeztu egiala.

800go urtearen Azaroan, III Leon Aita Santuak deituta, Karlomagno Erromara joan zan. Eta Abenduaren 1ean asita Karlomagno, deitutako eleiz batzarretara joanda, 23n egunean IIIIn Leonek ziñezpena<sup>(1)</sup> artu eutsonean, bera errubageko lez aurkeztu zan.

800eko urtearen Abenduko 25ean eta Erromako San Pedoren eleiz orretan, IIIIn Leon Aita Santuak: Iparraldeko itsasotik Italia erdian dagon Garigliano edo Liri ibaitik, erdiugarte onen Ebro ibairano ta mendebaleko Atlant Itsasotik ekialdearen Boemiaranoiko Erromatar Kaisal Erri Sakratuaren Inperator edo *augusto kaisar jaun koroatu* eban.

Eta amen emoten jako ostera asiera katolikotasunaren joputasunezko batzangotasun zitalari, edo katolikotasunaren aberritasunezko kaisartzazko lengo ariari barriro oratuta, *erromatar kaisar erriaren inperatore edo kaisar agintaritzari*.

Karlomagno arduratuta euskaldunak askotan matxinatu egiten ziralako, Asturiaseko IIIn Alfonso nasgabeko erregeagaz alkartu zan, baiña onek beste premiatasun batzuk euki ebazan ego aldean kokatuta egon ziran mauritarrakaz eta ez eutson laguntzarik emon.

Eleizak naita alegin asko egin, euskaldunak Frantziko erregetzagaz alkartu zitezen, Baskoniako dukaterrian matxinada ugari euki ebazan.

Aita Santuak kaisertzazko domiña aundiagaz danbalaka euren eskuetan eta eleiz katolikoaren aldeko jokuan, erregeen artean onena aukeratzeko almenekuak izan ziran, bata edo besteari indarra emonda, kaisar sakratuaren kaiserra izendatzeko.

Danak baiña, azken gaiztoa euki dabe, lenengoetatik okerreko bidean sartzen ziralako, bereztasunezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

803ko urtean Aristatar Eneko izan zan euskal jaurlari barria, ta Banu Kasiren sendiaz alkartuta, Kordobako erregearen aurka borrokatu ziran, Muzkariako<sup>(2)</sup> gazteluaen jabe egin ziran.

806ko urtetik aurrera eta bizanziotarrek erromako kaisertza makaldu egin ebelako, Karlomagno bere burua koroatu eban Erromako kaisertzaren jaurlari lez.

Eta franko ta italiarrentzat ez bazan lapurketa bat izan, Konstantinoplakoarentzat bai, or egon ziralako bizanziotar Irene ta bere ondorengo I Nicéforo Santua eskubide, eta oneik nai jazarraldi gogorak egin, Karlomajno izenburu orregaz geratu zan.



*Orreagan egin zan borrokaren oroikarria Karlomagno, Europaren mendebaleko Kaisar Sakratua*

(1) Ziñezpena artu eutsonean = cuando le tomó el juramento. (2) Muzkaria = Tudela.

812ko urtean Karlomagno Iruña menperatzeko alegiñetan asi zan.

Eta urte onetan Ludobiko Pio ta I Al Akan mauritarren emirrek, bake une edo gudu arte bat egitea erabagi eben, Iruñako uria karolinjoaren kontrolpera aldatuta Belasko gasalkiren agindutara.

813ko urtean Azaroaren 1ean Karlomagnok, Akitaniako errege eta bizirik geratu jakon askeneko seme Ludobiko Piori deitu eutson bere jauregira joateko eta bertan koroatu eban kaisar laguntzaille lez, Akitaniara ostera bialduta.

814ko urtearen Urtarrillan, anderrai miñagaz<sup>(1)</sup> gaisotu zan Karlomagno, eta 21eko egunean ezautza barik geratuta, Urtarrillako 28an goizeko 9rak zirala, euskaldunak menperatzeko gogo aundiak euki ebazanak il zan.

816ko urtean bakegune edo guda arteko aldia amaitu zanean, I Al Akanek gudaren bideak ostera artu ondoren, Iruñako uriagaz egin zan.

Eta 824ko urtean Ludobiko Piok, Garona ta Ebro ibaiaren bitarteko lurraldeak menperatu gura ebazalako, gudalozte indartzu bat bialdu eban euskaldunen aurka.

***Euskaldunak baiña prest euki ebazan bere aurka, eta Ludovico Piok eukezan gudalozteak ezereztu ondoren, Aristatar Eneko Nafarroako errege izendatu eben, 852ko urtean zendu zan arte iraun ebena. Eta or jαιο zan Auñamendiaren alde bietako Euskal Nafar erregetza. Ez omen zala Euskalerrria, laterritu<sup>(2)</sup> ?***

**1.11. Asturias eta Leongo III In Alfonsoren alegiñak, euskaldunak menpean artzeko, eta Euskalerrriaren erantzuna, Bizkaiko jauntzaren sorkuntza.**

Paleolítico Neolítico alditik gure Euskalerrriko batzar nagusiek, euren eginkizunetan zaldikatuta, azturaz etorten ba ziran oituratzeko berezko legearen antolamenduak<sup>(3)</sup>, leenengo aldi orreitan lortu ziran askatasunezko batzar demokratikoen nortasunak izan ziran ederrenak, euren barnean baituta egon ziralako Izadiak daukan berezko legeen ulermenagaz, ta orregaitik jabetu ziran amaibako askatasun orregaz, lortu eben benetako demokrazi ederrarekin.

Bizkaitarrak baiña, Nafartarren antzera eta eurengandik kanpo, jauntzaren jaurkintza artu ba eben be, ez eben artu beste euskaldunekaz banatzeko, Paleolítico Neolítico jendekuntza bidetik, Europa guztia euskaldun ta griegoen antolakuntzaren antzera, lurraldeko batzar nagusiekin jaurkitzen ziralako, nai danak sendi batekoak izan arren.

Orregaitik eta leku guztietatik ainbeste erasotatik urteteko, erlijioz eta jaurkintzan Europaren katolikotasunezko ezarpena ikusita, bizkaitar lurraldekoek nafartarrak lez, beartuta agertu ziran beste aukerazko antondu bat sortzen, eta Europaren erri artean erri lez bizitzeko, errege jauntzaren antolamenduan ezartzea erabagi eben.

Berezko antondu ori izan zan katolikuak ezereztu gure ebena, munduko lurraldearen errigizarte guztiak, katolikotasunezko alderdikeriaren eritizizko agindupean batzeko.

Ezinezko asmakizuna da baiña, mundu onetan iñork ez daukalako Jainkoaren ordezkorik, eta gutxiago bereztu eban gaimugatu oneri ipini eutsoezan legearen gaiñetik agintzeko. ***Gaitasun berak erakusten dauan lez.***

(1) Anderrai miñagaz = pleuresia, pleuritis. (2) Laterritu = estatalizarse en nación, en este caso de lógica natural, por agruparse ombres y mujeres poseedores de un mismo idioma, religión y costumbres con las que debe configurarse un pueblo. (3) JAUNGOIKOA ta LEGE-ZARRAK



Euskal askatasunezko demokraziaren eritxikoarentzat ez zan egon beste aukerarik, *irasi eben katolikotasunezko arrano aundi orren indarrezko gerizpea aundia zalako*, eta naita, errege jauntzazko antolamendu ori beti, batzar nagusiaren agindupean ezarri: *griegoen jakintzan, erromatar kaisar legedian eta Erroma katoliko sakratuaren antolamenduzko baldintzatan* ezarri bear genduzan naita nai ez, gure errege ta jauntzazko antolamendu barri orreik.

Zelan ezkondu ote leikez baiña: *Griegoen jakitza, Euskalerrriaren berezko askatasunaren oitura eta Kristautasunaren Demokrazizko aolkularitza, erromatar kaisar katoliko sakratuaren menperatzaille legediakaz ?.*

Euskal eritxizkoak, len eta gaur alkartzen gara sendi edo aberri bat lez, benetako askatasunaren demokrazian ulermenduta, euskaldunak Jainkoak berezkotu ebazan legeak daukaguzelako *elburu*.

### 1.12. Bizkaitar Jauntzaren sorkuntza.

Durangoko Jauna eta Nafarroako erregearen ordezkoa izan zana Eztegitzar Santxo il da, Bizkaitarrak euren batzar nagusiaren lege jaurkintzan babesteko eta antolabideak epaintzeko bearkuntzan agertuta, guda buru ta epaillea aukeratzeko prestatzen asi ziran.

Eta 888ko urtean Paduran Asturiarrakaz egin gendun borrokan ta gero Arrigorriaga deituko zan errian, Busturiako gazte bat borroka orreitan egin ebenagaitik aukeratu eben Bizkaiko leen jaun lez.

Abizenez *Lope* euki ebena, eta bere amaren bidetik Eskoziako erregearen bir seme edo billoba zana.

Eztegitzar Santxoren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaiaren leenengo Jauna: *Jaun Zuriaren izenagaz* ezagutu zana, arik eta 909an il zan arte.

### 1.13. Bizkaiko Jauntza sortarazteko gertatu zana.

*838tik 882ko urte bitartean* Asturias eta Leoneko errege IIIIn Alfonso, borrokalari sutu, andi edo magnoren izen goitikoagaz ezagutu zanak, beren lurraldeak Mauritarren eskuetatik Duero ibaiaren beko alderarte berrezkuratuta, eta bere jabetasunaren zabal-kuntza andiagotu naian, ekialdeko erriak mendean artzeko antolatzen asi zan.

Arabatik asi zan IIIIn Alfonso, eta Arabarrak euren jaun Elionegaz asarratuta egon ziralako, IIIIn Alfonsok, Elion kondea arrapatuta, Araba, borroka barik eskuratu eban.

Gero, gaur baiño askoz aundiagoa izan zan Bizkaia menperatzera etorri zan, onen lurraldeak *sartaldetik* asita, Kastro Urdiales eta Menako ibarrak, *sortaldeetik*, Deba erre-kak ureztatu egiten dauzan lurrak ta *eguerdi edo egoaldetik* Aramaiona ta Ayalako ibarrakaz osotzen ziran.

Bizkaitarrak aurre egin eutsoelako, Alfonsok beren bigarren seme Ordoñori deitu eutson, eta guda indar askogaz Orduña Amurrio ta Luxaondoko bidetik, Bizkaiara sartu zan.

Bizkaitarrak, Durangoko Jaun Eztegitzar Santxoren agindupean ipini ebazan guda indarrak, eta onek, Ordoñoren guda losteari Paduraraiño sartzen itxita, bertan eta beardan eran astindu ebazan, Alfonsok ekarten ebazan guda lozte indartsu orreik, geiago ez zitezen agertu.

Bizkaitarrak, bizirik geratzen ziranai atzetik erasota, auek jakin ebelako Euskaldunak Bizkaiaren Luxaondoko errian dagon “Malato” zuaitz mugatik ez zirala joango euren atzetik, Ayalako Gorobel menditik goiko mendietara igon ebanean, *a salvo somos* esan eben, ta orregaitik esaten jako lurralde orreri *tierra salvada*.

Padurako erriari ortik aurrera *Arrigorriaga* deitu eutsoen, borroka orretan inguruko lur ta arri guztiak odolez margoztuta geratu ziralako.

Borroka orreitan il zan Ordoño, eta beren gorpua Arrigorriagako eleizaren sarreran illobiratuta dago.

Eztegitzar Santxo be, bertan il zan, eta beren gorpua Durangoko Tabiran San Pedroko eleizan illobiratuta dago.

Borroka au, 888an San Andres jaia ospatzen dan egunean Azaroko 30ean egin zan, eta ortik aurrera orregaitik, Bizkaiko Askatasunaren itxurapenez artuta dago Ander deunaren kurutzeta gure ikurriñarako.

Or sortu zan Bizkaitarren jauntza, Gipuzkoa, Araba, Nafarroako erreñuaz alkargotuta, 1.224n urterarte iraun ebana.

Eta ez espainiarrak esaten daben lez: *bizkaitarrak askatasuna lortu arte*, nafar, bizkaitar, arabar, gipuzkoar, benafar, lapurditar ta zuberotarren euskal askatasuna, bere izkuntza beste antziñakoa dalako.

*Asturias Leongo Alfonsotar erregeak eta frantziko Karlomagnoren artean ondo baiño obeto konpontzen ziran Aita Santuaren laguntzagaz, euren katolikotasun sakratuzko batzango zaletasunak beteteko.*

*Eta orregaitik bereiztu egin bear dogu emen ondo baiño obeto: euskaldunak euki gendun askatasunaren demokrazizko jaurkintza, ta espaindar eta frantzezak euren katolikotasunezko sasijainkotasunean euki dabez goitik berako kaisertutako jaurkintzak, jakin degun, Jainkoak bereiztu ebazan legeak, noren aldetik zaintzen diran obeto danon mesede.*

Aita Santuaren ustez, Europa ta mundu osoarentzat izan bear zirenakaz, orduan bizirik ezagutzen ziran nai berezkoak edo ta norkerizko erri guztiak, lege orren barruan atrapata urten ezinik geratu ziran, Europako erigizarteak euren jaurkintzarako antolatu ebazan tresneriak, danak jaio ziralako iru baldintza onen legepean:

- a).- *Erromatarren sakratuzko kaisertza ta legeakaz.*
- b).- *Norkeriz asmatuta judu-katolikotasunaren aberritasunezko batzangotasunean.*
- d).- *Eta Griegoen jakintzagaz.*

*-Leenengo biak, menperatzailletasunezko baldintzak dira, biak diralako Jainkoak Izadi oneri ipini eutsoezan berezko legearen aurkakoak: “nai daukazan legediarenak”, “bai Omosapiensien gizakiak azturaren oiturazko bidetik, baitu ebazan “Arimarenak”.*

*-Irugarrena alderantziz, askatasunezko demokraziaren emaitzak emonez gain, guri gaiezeko antzerki onetan berez eskubidetuta daukagun "asmatzaillearen" antzezlaritzan kokatzen gaitu, mundu onetako gizon emakumearen "nortasunezko zentzu ederrenean".*

*Orregaitik euskaldunen Euskerea eta euskal Askatasunezko Demokraziren zentzuak, ez daukie alderdikierietan izan gaitasunik, bere bizitzako azturan oiturratu dauan euskal demokraziaren ulertza baiño, askatasunezko demokraziak ez daukelako alderdikieririk.*

*Frankoak eta Asturiarrak alderantziz, lenengo bietan sortzen dan lez, kaisertzaren lanterrizko lillurkeriaren ametsean, katolikotasunezko batzangotasunean ezarri gurean.*

Bai eta aurrerantzean katolikotasunezko sinismenaren itsukeria sartuta, badakigu berezko ekanduaren jokuan noraiño eldu ziran maltzurrezko errege lapur aiek, Europaren giza ta errigizartearen eskubide guztiak zapaltzeko.

1.450ko urteetik aurrera, katolikotasunaren ziñeskintzazko jakintza bidetik Europako erritarrak oraindiño guztiz bildurrez ta menperatuta egon arren, errege maillan ta bai gortekoak be, jakin eben katolikotasunezko eritzian ipinitako tresneri guzti orreik guzurrezkoak zirala:


-Bulda edo eleizako berun idazkiak euren alde eskerniatuta<sup>(1)</sup>, eurak lortu gura ebazan mesedeetan ibiltan ebalako, eta orduan bolboratik asita ekintzaren lanetarako sortu ziran erreztasun guztiak, errege orreik ez ziran izan gai errigizartearen serbitzura ipinteko, eta gudalozteak indartzeko ibili ebezan, euren norkerizko ameskeriak bete al izateko.

1.450eko urte onetan, espainitar frantzez katoliko oneik batikanoko aberriaren laguntzan ta eukezan maltzurrezko legeekin, gure jaurkintzazko arduratan larregi sartzen ziralako, beartuta agertu gintzazan euskaldunak gure askatasunezko demokraziaren lege ederrak idatzitako liburuetan ezartzea, gurekin artu emonetan sartzen ziranetik, iñork zalantzarik ez egian euki zelango ezaupideakaz berba egin bear izan eben.

Eta orretarako bigarren zatian aurkeztuko dautsuet, gure jaurkintzarako zeintzuk ziran askatasunaren demokrazizko euskal legeak, Europako katolikuak espainolakaz batera, euki eben erromatar kaisertzazko legearen aurka.

Ⓔ

(1) Eskerniatu = falsificar.



## 2. ZATIA.

### 2.1. *Bigarren zati onen aurkezpena.*

Nafar erregetza eta Bizkaiko jauntzaren sorkuntzara eldu garanean, eldu gara gure azkeneko edestiaren sorkuntzara, emendik aurrera sartzen garelako gure edestiaren askeneko ekiñaldietan.

Eta bear diran zatietan bananduko dogu, jakin bear dogunetik kanpo ez daiten geratu ezer, egarri aundiak daukaguzelako arlo orretan gure Euskalerra maite au askatu daigun, gaur ikusten dogun lez, satorraren antzera gabizelako arlo auetan, gure erri maite onek daukazan arazoetatik atarateko.

Eta Araba ta Gipuzkoa euren batzar nagusiakin jaurkitzen ba ziran, naita aunditzen joan zan maltzur batzangotasunezko arranoa Asturias, Leon ta gaztelaren erregetzazko bidetik, eta euren gandik eragipen aundiak euki bagenduzan gure askatasunaren aurka:

-Nafartar erregetza eta Bizkaiko jauntza baldintzapetu egin gendunetik, beste itxura bat edo indar barriak artu ebezan gure nortasunezko ekintzek, euren katoliko ta Islam´tar fazizta ekintzaren aurrean erri lez irauteko.

-Baiña euren norkerizko asmakuntzaren ekintzan, Jainkoa baztartuta sasijainkotu egin diralako etenbagekoak izanda, gaur ostera gagoz Nizea ta Ejidaren asierazko arazo bardiñakin.

Zertarako ote gara etorri bizitz onetara ?.

Danak jaioten gara narru gorri edo ta billoxik, eta kontu aundian euki bear dogu, gure *Arimak* ostera itzultzen dirala *narru gorri edo ta billoxik Jaungoikoaren aurrera.*

Orregaitik eta edesti onen azalbidea ulerterrezekua izan zedin:

-Gure Euskalerra maite onek Paleolítico denboratik lortuta daukazan demokrazizko askatasunaren zentzuzko baldintzak, aberri batzango zaleak Nizean eta Ejidan erabagitutako katoliko ta koranaren aberritasunezko legeakaz berdinduko doguz, jaki degun, noren legeak dira Jainkoak Izadi oneri bereztu eutsoezan legearekin jokatzen dabenak.

### 2.2. *Euskalerrairen errigizartean jaurkituteko, askatasunaren demokrazizko legeak.*

Euskalerra osoko zentzuan eta Bizkaiko gizarteetan batez be daukan milla urteko edestiluzean, beti izan gara gure *nortasunak* bear dauan *askatasunaren* jabe, naita etsaiak esan, sekula ez garela laterrituta egon.

Euskalerra, beren sinismeneko demokraziaren askatasunik bage, eta nortasunaren zentzua galduta, gaur egun ez zalako ezer izango.

Alderantziz, bereztasunean sortutako *euskal nortasun* orren antolakuntzazko zabal-kuntza, gizon emakumeetatik asita: etxean, auzoko zuaitzpean, eta kristautasunaren



sorkuntzatik eleiz aurrean batzartuta, demokrazizko mailla aundian, zentzu ederreneak lortu ebazan.

Batzar auek aritz, artea eta leizarraren zuaitzpean egiten ziran batez be.

Eta Bizkaiko Jauntzaren sorkuntzan bost merindade izan baziran: Arratia, Bedia, Busturia, Uribe eta Zornotzagaz, 1.355eko Loraillaren 6an Tello bizkaiko Jaunak, gipuzten erasoaldiak geratzeko, Markiñako Billabiziosa erria sortarazita, Durangoko ibararren alkartzeagaz, zazpi ibar edo merindadetan osotuta geratu gintzazan.

Batzar nagusiak egin bear ziranean: Ganekogorta, Gorbea, Kolutza, Oiz eta Solluberen, dei adarrezko bost mendietatik, su, adar edo tronpakaz deituta, leku ezberdinetan batzartzen ziran, adibidez: Gernikako zuaitzpean, Aretxabalaganean ta abar, baiña azkenez beti Gernikan egiten ziran.

Durango ta enkarterriko erri aldeak, Bizkaiatik bananduta ibili ziran arik eta Durango XVIIIn gizaldi asieran, eta Enkarterria XVIIIn gizaldearen azkenetan alkartasunezko politikan Bizkaiagaz bat egin arte.

### ***2.3. Bizkaiko batzar nagusiaren baldintzak, Jaunakin elkar aditzeko:***

Bizkaitar batzar nagusiak, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak artekari lanak egin egiezan:

- a).- Gudal-buru izateko.
- b).- Zuzenbidearen buru nagusia izateko.
- d).- Bizkaiako errigizartea ta ondorezko lur zabalak zaindu egiazan.

Eta Jaunaren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun egian, ain almen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia<sup>(1)</sup>, itzalgarritasunean<sup>(2)</sup> ezarri dagian emoten eutselako.

Orregaitik, erabakitasunean, egilletasunean eta lege egilletasunetik apurbat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra *errian egoala* erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan: beren gauzatarako izaten zanean eta *gudarako gizonen laguntza bear ebenean*, gure *batzarra* beartuta geratu zalako bere guda taldea gure mutillakaz osotutea, naita esan dogun lez, beren gauzatarako izaten zanean, *aurretik ordaintzeko beartuaz*.

Ortik aurrera eta erromatarrak Euskalerrian sartu ziranean bezela, gure lurraldearen jabetasunezko jaurkintzak eta gureak diran askatasunezko demokraziaren eritziak babesteko, Bizkaiko Jaunak eskatutako baldintza orren erruz, Euskaldunak beartuta, beti borrokan agertu gara gure artean.

Orreik izan dira ordaindu bear izan doguzan sariak, Jainkoaren legeari begira Paleolítico Neolítico bitartean lortu genduzan askatasunezko demokrazi ederrak zentzu aundiz zaintzeko.

(1) antolarazia = arbitraje. (2) Itzalgarritasuna = respetabilidad.

## **2.4. Bizkaiko batzar nagusiak, izendatutako Jaunak kendu ekiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?.**

Euskal batzarrak almen guztia euken, jaunak ziñez ez ba ebezan artzen batzarraren agindutako baldintzak, edo eta ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba ebezan eukiten, emon jakien arduretatik kentzeko.

Bizkaiko batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna.

Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauna ipini ta kentzeko.

## **2.5. Eta zeintzuk izan ziran Asturias, Leon, Gaztela ta franko erregearen katoliko arauetatik Euskalerrirentzako sortu ziran arazoak eta gero Europako erregetegi guztietatik ?.**

325eko urtetik aurrera mundu onen jaurkintzarako oraiñarte ikusi dogun lez, Nizean katolikotasunezko ziñeskintzan artu ziran arauetatik ez dabelako ezer aldatu, beti izan dira Aita Santuaren uts ezintasunezko almenagaz, goitik beerako agintaritzan, erritar ta agintari guztien erantzupidearen almenezko ardura guztiak, Aita Santuaren eskuetan batu egin ziralako.

Ortik aurrerantza eta edozein agintaritzazko mailla guztietan bardiñ sortu daiten, odoljariozko alegiñekaz ibili dira beti, eta gaur be sortzen dan lez, or dabiz katolikotasun aberritar asmatzailleak laterrituta euren norkerizko guda indar guztiagaz, Europa ta mundu guztiko errigizarteak morroitzeo alegiñetan.

Gaur norkeri orregaz jokatzen ba dabe, zer ez egingo ote eben Fernando katolikuaren denboran ?.

*Adibidez: Nafarroako erregetzagaz geratzeko, maltzurrezko guzurtasunean Aita Santuaren buldak, amaitu ezinezko ekintza baten eskarniatuta<sup>(1)</sup> ibiliten ebazanean, onek nafar erregeak eskomunikatu<sup>(2)</sup> egiezan, orduko denboran eta nik uste dot beti izan dala, Aita Santuak errege edo jaun baten bat eskomunikatu ezkeru, Europako edozein printze edo errege katoliko batek euki ebala baimena, eskomunikatuko errege jaunak euren ezar lekuetatik kendu eta eurak ipinteko.*

*Argi ikusten da emen, Aita Santuak ibilten ebazan katolikotasunezko legeak, ez ebela zer ikusirik Jaungoikoak bereztu ebazan legeakaz, katolikotasunezko legearen lenengo aizkorakadagaz, berezitasunezko errigizarteak nortasun barik izten ebazalako.*

*Joko ori izan zan merkantil katolikotasunezko araupidean gaur lez ibili zana,*

## **2.6. Zer sortu jakien mauritarrei ?.**

Mauritarrak be katolikotasunari sortu jakien antzera, errigizartearen controla eukiteko menpeko batzango baten laterrituta Koranen ezarri ebezan euren oiñarrizko ziñeskintzakaz, sinismeneko itsutasunera bideratu ebazala euren mauritar errigizarteak.

Eta bateri ta besteari euren erritarrakaz daukiezan arremen estuak apurbat eztitu, edo goxoagoatu egin arren, ez dautse balio izan ezer, eurak be ziñeskintza orreik Aristote-

(1)Eskarniatu = falsificar. (2) Eskomunikatu = para excomulgar a los reyes de Navarra.

lesen askatasunezko demokraziaren zentzuakaz nastu ebezalako, eta menperatzeko ta askatzeko eritzi bi orreik zorro baten sartuta ekarri ezkerro, *estanda utsean etorten diran lez, bion benetako edestiari begitutea baiño ez dago, eurak erakusten dabelako zer sortzen dan aurkako indar bi orreik batera ekarri ezkerro.*

## ***2.7. Zelan geratu zan Euskalerria errege jaunen antolakuntzazko denbora orreitan, katoliko ta islammnen eritzi bi orrein bitartean eta inguruko erregeakaz inguratuta ?***


Euskalerrriaren orduko ezarpena, iparraldetik karolinjio leiñuaren frankoak, ekialdetik erromatarren kaisertza, mendebal edo ta sartalidetik Asturiarrak, danak katoliko aberkidetasunean ziñeskintzatutako batzango zaleakaz, eta ego aldetik Islamneko Koranagaz ziñeskintzatutako mauritarrekin, baten bat konturatu al da, zelango bereztasun aurkako al osokeriaren ziñeskintza bien artean, ogitartetuta geratu giñan ?.

Or ikusi leike argi, norkeriz asmatuta zelako ziñeskintza bien artean estukuntzatuta geratu zan Paleolítico Neolitiko alditan, euskaldunak lortu eben askatasunezko demokrazi ederra.

Orregaitik eta katolikotasunezko ari ori ez galtzeko, Nafartar erregetza ta Bizkaiko jauntzaren edestia aldiberetasunean bateratuta eroango dodaz, argi konturatu gaitezen, zelako alegiñak egin bear izan ebezan gure arbasoak, guk gaur daukagun askatasunezko demokraziaren baitan edo siñespenean agertu gaitezen.

Orretarako:

- a).- Nafar errege ta Bizkaiko jaunaren zerrendak eroango dodaz batera.
- b).- Inkizizioaren, gero ta geiagoko estukuntza.
- d).- Sakratuzko gurutzadak zer gura izan eben euskaldunentzat.



## 3. ZATIAN.

### 3.1. *Euskal Nafar errege eta Bizkaiko jaunen zerrendagaz, euskal edestia argitzen.*

778 ta 824ko urtetan ikusi dogu, euskaldunak zelan Orreagan Frantziko errege Karlos Aundiaren aurka euki genduzan borroka bi ostean, Jimenez ta Aritzatar Iñigogaz jaio zala gure Iruñako erregetza, Tudelako jaurkintza eroaten eben Banu Kasi sendia ta Iruñako gotzaiaren laguntzagaz.

Eta 888ko urtean Paduran edo ta gero Arrigorriaga deituko zan errian, Asturiarrakaz egin gendun borrokan, zelan Busturiako gazte bat borroka orreitan egin ebenagaitik aukeratu eben Bizkaiko jaun lez.

Abizenez *Lope* euki ebena, eta bere amaren bidetik Eskoziako erregearen bir seme edo billoba zana.

Eztegiztar Santxoren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaiaren leenengo Jauna: *Jaun Zuriaren izenagaz* ezagutu zana, arik eta 909an il zan arte.

Ortik aurrera eta naita Nafarroako errege ta Bizkaiko jaunaren autakuntzak batzarreko agintaritzatik bideratu, eta Asturias, Leon, Frantzi, mauritarrak, eta gero sortuko ziran erregeak katolikoaren al osokerizko jaurkitzakaz zuzendu, sendi orren artean gure jaun erregearen seme alabak ezkontzen ziran bakearen truke euren esanetan, edo ta batzangotasunaren txeberazko sare orretatik urten ezinik, esango neuke nik.

Orregaitik ortik sortzen zan emaitza, eritzizko lokatzarte bat zan, menpekotasun eta askatasunezko eritziak ezin leikezelako batera ulertu.

Or daukagu beste ezaupide gogor bat, konturatuz, zelango borondatea euki bear izan eben orduko euskaldunak euren edestian, norkerizko al osokeri orretatik, gure betiko askatasunaren demokrazizko eritzi ederragaz urteteko.

### 3.2. *Nafar errege ta nafar leiñuzko etxeak.*

### 3.3. ARITZAtarren ERREGÉ-LEIÑUA.

1<sup>a</sup>. - *Jimenez ta Aritzatar Iñigo Bigorrako kondea, edo Enneko Ennekoiz latíñez*, Fortuneztar Iñigo ta Onnekaren semea zana, 770-851eko urte bitartean bizi zan eta 824-852ko urte bitartean Nafarroako leenengo errege ta Iñigotarren leiñua sortu ebena.

Auek, Jimenatarren leiñukoa baiño ezberdiña izan zan naita senidetuta egon arren.

Bata, Fortun Kasi bisigoarengandik datorrena, eta bere senidetasunetik Onnekaren bigarren senarra izan zana.

Eta bestea, Eudon Akitaniako kantabriko kondearen leiñutik agertzen dana.

Iñigori aita il jakonean, Onneka bere ama Muzkaria edo Tudelako Banu Kasi Musa ibn Fortunezag ezkondu zan, ta euren ezkontzatik Musa ibn Musa ospetsu izan zan semea jaiota.

Banu Kasitarrak, Tafallako Ebro ibarretatik, ia Saldubaraiñoako lurak kontrolatzen ebazan. Eta ezkondu oneik, lur zabal aundiak itzi ebazan Arista tar Iñigoren ardurapean, Añañamendiaren Iratiko ibarrak eta Aragoiaren Egiñeko<sup>(1)</sup> ibar guztiagaz.

Aritzatar Iñigo au erregetuteko, ez zan arazo ugari barik egin zana, batzuk oso latzak izanda.

Len esan dogun lez, Nafar erritarrak bananduta egon ziran, batzuk Karlomajnoreen alde ta gero I Luis Errukitsuagaz<sup>(2)</sup>, talde onen buru Belasco sendikoarenak izanda.

779ko urtean, franko karolinjoaren aldeko batzuk, Aritzatar Iñigoren senide ta Casio kondearen ere illoba izan zan Mutarrif ibn Musa il eben.

806ko urtean frankoak, Nafarroa kontrolatzen eban Belaskotar jaurlari baten bidez.

812ko urtean I Luis Errikitsuak, gudalozte bat bialdu eban Iruñaren aurka, baiña itzulkeran Orreaga igarotzen egoala, baitu ebazan andra ta umeakaz babestu bear izan eban bere burua, itxaroten eukezan euskaldunak oso aserre egon ziralako.

824ko urtean Elbe ta Aznartar frankoak, beste guda talde aundi bategaz agertu ziran Iruñean, eta Aritzatar Iñigo bere suin Musa ibn Musa, ta Jakako Garziatar Txarra esaten eutsoenai aurka urtenda, frankotarrak astiñaldi gogorra emon ondoren, irureun zaldunezko nafartarrakin Jakaren Oroeleko aitz mendian izendatu eben Nafarroako errege, Arista edo Aritzatar Iñigo jauna.

843ko Loraillan Aritz edo Aristatar Iñigoren seme onek, Kordubako urian eziketatu-koa izanda, bere osaba Musa ibn Musari lagundu eutson Kodubako emigraren aurka.

II In Abd al Remanen erantzuna, Iruñaren aurka joatea zan eta Nafar osaba loba oneik menperatzea.

852ko urtean il zan Aritzatar Iñigo jauna.

**2ª.- 852-870eko urte bitartean, I Garziatar Iñiguez<sup>(3)</sup>** izan zan bigarren Nafarroako erregea.

859ko urtean I Garziatar Iñiguez au, Eskandinabiako Bikingo edo Normandoagaitik baituta geratu zan, 70.000 urrezko txanponagaitik askatu eben, eta bere senideko Banu Kasiren eragipenetik urrunduta Asturiaseko erregetzara urbildu zan.

859-860ko urte bitartean I Gartzatar Iñiguez onek Asturiasekoakaz batera Laturzeko mendiaren borrokan edo ta Klabiljoren borrokan, astintasan ederra emon eutsien mauritarrei, Banu Kasiren al izatea makaldu ebena, eta Kordubako emirraren erantzuna sortuazo ebena.

860ko urte onetan I Garziatar Iñiguez'en seme Fortun Garzez baitu eben mauritarrek, ogei urtean eurokaz egonda, eta I Garziatar Iñiguez 870eko urtean il zanean, Garzia Jiménez<sup>(4)</sup> bete eban erregetzaren ekintza errege orde lez 882ko urterarte.

Bere erregetzan, Konpostelako Santiagoren bideak babesteko neurriak artu ebazan.

**Konturatu bear gara, zelako indarra artuta euken Santiagoren guzur aundi orrek, kato-likotasunaren norkerizko asmakuntz orren ekintzagaz.**

(1) Aragoiaren Egiñeko Ibarra = Valle de Hecho. (2) I Luis Errukitsuagaz = Luis I el Piadoso. (3) I Garzia Iñiguez = 810-870ko urte bitartean bizi zana, 842ko urtetik aurrera errege-ordea eroa ebena, bere aita Aritzatar Iñigo urte orretatik aurrera, elbarrituta (paralítico) egoteagaitik. (4) Garzia Jiménez = Jimenotarren leiñukoa.



### 3.4. JIMENOtarren ERREGE-LEIÑUA.

3<sup>a</sup>.- 870-882 urte bitartean, Garzia Jimenezek bete eban Nafartar erregetzaren jaurkintza, mauritarrengandik Fortun Garzez baituta egon zalako.

### 3.5. ARITZAtarren ERREGE-LEIÑUA:

4<sup>a</sup>.- *Fortuño lekaidea* 882-905 urte bitartean errege.

Bigorrako kondea eta Sobrarbeko ipui edo alegiazko erregea, 870-905eko urte bitartean errege izan bear izana, Korduban mauritarrek baituta ez bazan egon.

Fortun Garzez au, begi bakar lez esagutzen zan, eta geroago lekaide lez.

Iruñako Garzia Iñiguez eta Urraka bere emaztearen semea zan.

Bere aita I Garziatar Iñigezek Banu Kasiren sendeakin euki ebazan elkargoak apurtu ebazanean eta Asturiaseko erregetzara urbildu, ortik aurrera eraman bear zituzten mauritarren eraso zitak.

852-886ko urte bitartean Kordubako emirra izan zanak, 860 urtean Iruñako erregetza erasotu eban, eta irutik emparantza bat menderatu ebenean, bertan arrapatu ebazan Fortun Garzez Begi Bakarra eta bere alaba Onneka.

882ko urtean Salduba edo Zaragozako mauritarren jaurlari Muhammad ibn Lop, Musa ibn Musaren birsemea izan zanak, Aibarreko gaztelua menperatu eban, borroka orretan Garzia Iñiguez erregea il da.

Eta Muhammad ibn Lop aurrera eginda, Sibranako gaztelua eta Monjardiñaren San Estebaneko gaztelua menperatu ebazan, gero Aragon ibaiaren Ibarra, Santo Domingoko mendi besanga, Tarazona, Muzkaria, Kalaorra, Bigera, eta Najerako Deyo lurraldea.

Fortun Garzez errege onek Kordubako baituratik askatu zanean, ostera berrezkuratu ebazan Banu Kasiren sendiagaz betiko adiskidegotasuna, Leireko lekaidetxean sarri baztertu edo zokoratuta, ainbat emaitza aundi emonda lekaretxerako, eta bere urrun aldi orreitan, Iñigo Garzek ezkerre ordezkoako beteta.



*Au da Aragon ibaia Milagroko erri ingurutik igarotzen doala, eta emen arrapatu ebazan Fortun Garzez eta bere alaba Onneka, mauritarrak Kordubara eroan ebezanak.*

Ⓔ



*Au da Leireko San Salbadarren lekaidetxean dagon arri-xafta, bertan illobiratu ziran erregeen izenakaz.*

### 3.6. Bizkaiko Jauntzaren sorkuntza.

Bere lekuan ikusi dogu, zelan 838tik 882ko urte bitartean Asturias eta Leoneko errege IIIIn Alfonso<sup>(1)</sup>, borrokalari sutsu, andi izen goitikoagaz ezagutu zanak, beren lurraldeak Mauritarren eskuetatik Duero ibaiaren beko alderarte berrezkuratuta, eta bere jabetasunaren zabalkuntza andiagotu naian, ekialdeko erriak mendean artzeko antolatzen asi zala.

Arabatik asi zala IIIIn Alfonso, eta Arabarrak euren jaun Elionegaz asarratuta egon ziralako, IIIIn Alfonsok, Elion kondea arrapatuta, Araba, borroka barik eskuratu ebala.

Eta bai gero, gaur baiño askoz aundiagoa izan zan Bizkaia menperatzera etorri zala, onen lurraldeak *sartaldetik* asita, Kastro Urdiales eta Menako ibarrak, *sortaldetik*, Deba errekek ureztatu egiten dauzan lurrak ta *eguerdi edo egoaldetik* Aramaiona ta Ayalako ibarrakaz osotzen ziranak.

Eta Bizkaitarrak aurre egin utsolako, Alfonsok beren bigarren seme Ordoñori deituta eta guda indar askogaz Orduña Amurrio ta Luxaondoko bidetik, Bizkaiara sartu zan.

Bizkaitarrak, Durangoko Jaun Eztegitzar Santxoren agindupean ipini ebazala guda indarrak, eta onek, Ordoñoren gualosteari Paduraraño sartzen itxita, bertan eta bear dan eran birrin-du ebazala Alfonsok ekarten ebazan gualozte indartsu orreik, geiago ez zitezen agertu.

Zelan Bizkaitarrak, bizirik geratzen ziranai atzetik erasota, auek jakin ebelako Euskaldunak Bizkaiaren Luxaondoko errian dagon *Malato* zuaitz mugatik ez zerala joango euren atzetik, Ayalako Gorobel menditik goiko mendietara igon ebenean, *a salvo somos* esan ebela, eta orregaitik esaten jakola lurralde orreri *tierra salvada*.

Padurako erriari ortik aurrera *Arrigorriaga* deitu eutsoela, borroka orretan inguruko lur ta arri guztiak odolez margoztuta geratu ziralako.

Borroka au, 888an San Andres jaia ospatzen dan egunean Azaroko 30ean egin zala, eta ortik aurrera, zelan Bizkaiko Askatasunaren itxurapenez artuta dagoela Ander deunaren kurutzeta gure ikurriñarako.

Eta or sortu zala Bizkaitarren jauntza, Gipuzkoa, Araba, Nafarroako erreñuaz alkar-gotuta, 1.224n urterarte iraun eban arte.

Eta ez espainiarrak esaten daben lez: *bizkaitarrak askatasuna lortu arte*, nafar, bizkaitar, arabar, gipuzkoar, benafar, lapurditar ta zuberotarren euskal askatasuna, bere izkuntza beste antziñakoa dalako.

### 3.7. Bizkaiko 1go Jauna.

*Emen sarrera txiki bat egin bear dautsagu.*

#### **SARRERA.**

Iturriza eta Zabalatar Juan Ramonen *Bizkaiaren Orokorrezko Edesti* liburutik artzen dodaz Bizkaiko Jauntzaren lenengo sei jauntzuen aldi urrena, gero Zelaia eta Ibarratar Adrianen liburuegaz aurrera egiteko.

(1) IIIIn Alfonso Aundia (majno) = Asturias eta Leongo erregea 866-912 urte bitartean errege eta 838-912 urte artean bizi zana. I Ordoñoren semea eta berak Portu eban erregetza, semeen artean bandu eban, Orduña egiten zan lez, indar geiago eukiteko danon asmo bardiña izan zan, Erromako katolikotasunezko aberritasunak lortzeko bidean.

Baiña egia jakiteko, Euskaldun edo ta Bizkaitar guztiak irakurri bear geunke: Labayru ta Goikoetxeatar Estanislao apaiza ta edestilariak idatzita daukan ***Bizkaiko Jauntzaren Edestia***. Beren gezurtabideko iturritik, egi garbiena artzen dogulako.

Espainol edestilari maltzurren esanetan, Manso Lopezen izena eta beste batzuenan nastuz, askorentzat ez da eurak eukena, edestilari orreik izen askorekin nastuten dabezelako, nai ezkontzan, adiñetan eta bizi ziran urteetan: Manso, Munio, Muso. Nuño, Fortun, Iñigo, Lope Fortunez edo ta Ortiz ta Alonso.

Eta bere emaztearen izena: Dalda, Alda, Nuña Bella, Maria, Blanka edo Belaskita, Teresa Urbinakoa eta Albira Bermui Lainez. Semearekin be beste ainbeste.

Arrigarriena: Dalda ama, Jaun Zuriaren aitagaz ezkondata agertzen ba dabe, Jaun Zuria eta beren semeagaz be ezkondata agertzen dabela, aitona aita eta semearen emazte lez agertuz.

Espainako edestilariak, euskaldun edo ta Bizkaitar edestia euren mende aldera bideratzeko, okertzaille edo ta eskerniatzaille ezereen lotsabage biurtzen dabe ***espaina imperial*** en edestia izan dagian, euren erabilketak elburu orregaz oiñarrizko.

***Durangoko Jauna eta Nafarroako erregearen ordezkoa izan zana*** Eztegitzar Santxo il da, Bizkaitarrak euren Batzar Nagusiaren legejaurkintzan babesteko eta antolabideak epaitzeko bearkuntzan agertuta, gudalburu ta epaillea aukeratzeko prestatzen asi ziran.

Padura edo gero Arrigorriaga deituko zan errian, Asturias Leoneko errege IIIIn Alfonsoaren aurka egin gendun sarraskiko borroka orretan, Busturiako gazte batek egin ebenagaitik aukeratu eben Bizkaiko Jaun lez.

Abizenez ***Lope*** euki ebena, eta bere amaren bidetik Eskoziako erregearen bir seme edo billoba zana.

Eztegitzar Santxoren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaiaren leenengo Jauna, ***Jaun Zuriaren*** izenagaz 888ko urtetik, arik eta 909ko urtean il zan arte.

Or sortu zan Bizkaitarren jauntza, Gipuzkoa ta Arabagaz batera Nafarroako erreñuaz elkargotuta, 1.224garren urterarte iraun ebana. Eta ez espainitarrak esaten daben lez ***bizkaitarrak askatasuna lortu arte, Euskal Askatasuna***, bere izkuntza beste antziñakoa dalako.

***Espainolak ez dabe esaten ba, Bizkaitarrak ez giñela iñoz laterritu. Or, nun dagoen berezkotasunaren "estadu edo laterritasuna".***

***Ostera, Nafar erregearen aria artuta.***

905eko urtean Fortun Garzez zarra Leireko San Salbadorren lekairtxera sartu zanean, Santos Garzek bete ebazan erregearen zeregiñak.

### **3.8. Bizkaiko 2n Jauna.**

909ko urtean Jaun Zuria ilda, Jaun Zuriaren seme, Dn. Manso Lopez edo Dn. Nuño Lopez izenenez ezagutzen zana izan zan Bizkaitarren bigarren Jauna.

Nafarroako Santxo Abarka erregea eta bere emazte Teudaren alaba Doña Blanka Belazkezekin ezkondu zan, eta Dn. Iñigo euki eben seme Ezkerra izan zan Bizkaitarren irugarren jauna.

Manso edo Nuño Lopez au, Gaztelako Gonzalo Nuñez kondea, Fernan Gonzalez kondearen aita izan zanarekin, adiñeko ta laguna izan zan.

920n urte inguruan il zan, eta bere gorpua, Morgan Meakaurreko San Martin eleizan illobiratuta dago, 1.404an Lope Garzia de Zalazarrek idatzitako Bizkaiko Kronikazetan esaten dauan lez.

Alonsotegiko Fr. Migelek esaten eban beren denboran, Eleiz orretan egon zirala il baten obi arriak, eta baleiteke 1.781ko urtean aldare aurea zabaltzeko egin ziren lanetan, agertu zan ilobi arria izatea.

### *Nafar erregetza.*

922ko urtean Leireko lekaidetxean il zan Nafar Iñigoren Leiñuko Fortun Garzez au. Eta Leireko Salbatzaille Santuaren lekaidetxean illobiratu eben.

### **3.9. Bizkaiko 3n. Jauna.**

Iñigo Ezkertiarra esaten eutsoenari, izan zan Bizkaitarren irugarren jauna.

Beren ezkontzagaitik ez da aurkitzen gauza garbirik, naita batzuk, Nafarroako errege Dn. Gartziaren alabagaz ezkondata egon zala esan.

Lope Garziak esaten dau, Iñigo onek lur zabalak irabazi eutsezala mauritarrai, eta Leongo erregeari aldatu eutsozala Enkarterriko lurraldearen truke, Bizkaiko Jauntzagaz alkartu zirenak, bizkaitarrak euki eben eskubide bardiñean.

Bizkaitarrak alegindu eben kondearen izen aundiki ori artu egiela, eta 924ko urtean il zanean, bere seme Lope Iñigezek artuko eban Bizkaiko Jauntza ondorengo lez.

### **3.10. JIMENO Nafartarren ERREGE-LEIÑUA.**

5<sup>a</sup>.- *I Santxo Garzez Nafar errege* 905-926 urte bitartean.

I Santxo Garzez au, 905-925eko urte bitartean izan zan Jimenaren leuñutik lenengo Nafar errege.

Garzia Jiménez eta Pallarstar Dadildisen semea zan eta Jimenotar leiñuaren lenengo erregea. Bere aita 870eko urtean il zanean, Baldonsellako jaurlaria izan zan, gero inguruko lurraldearen jaurkintzan sartu zana.

Oraindiño Fortuntar Garzezen bizitzan eta Asturiaseko IIIIn Alfonso ta Pallarseko kondeak lagunduta, Iruñako uria menperatu eban, ta Fortun Garzezen ondorengoan eskubi-deak ezereztuta, onen alabaso edo bir alaba Toda ren eskuetan jausi zan erregetza.

Eta 905eko urtean Toda I Santxo Garzezekin eskonduta egon zan lez, Iruñako errege izendatu ebazan, Fortun Garzez erregetzatik kendu ta gero.

Aragoiko IIIn Aznareztar Galindo kondea il zanean, I Santos Garzezek bertoko ondorengotasunaren eskubideari begitu barik menderatu ebazan Aragoiko lurraldeak, eta ekintza orreik izan ziran Ueskako Muhammad al-Tawil jaurlariagaz borrokak sortu ebazan, bera Santxa Aznarezekin eskonduta, lurralde orren ondorengotasuna euki ebalako.

Eta arazo ori konpondu eben, Galiano kondearen alaba Galindeztar Andregoto, I Santxo Garzezen seme I Garzia Santxez´ekin oraindiño umea zala, ezkontzeko itz emonda. Mauritarrekin euki ebazan borroka bidez, bere erregetzazko mugak zabaldu ebazan errioxako lurraldeetara eldu arte, eta Najera menderatu ebanean, bertan ezarri eban bere erregetzazko aulkia, Iruñako erregetzari bein betiko antolakuntzan ezarrita.

917ko urtean I Santxo Garzez onek II In Ordoñokin alkartuta, mauritarrak menderatu ebazan Goemazeko San Estebanen.

920 urtean baiña, III In Abd al Rahmaek, ondo astindu ebazan biok Baldejunkerako lurraldeetan.

I Santxo Garzez au izan zan leenengoz dirua atara ebena erregetza guztietatik, eta katolikotasunaren txeberazko sare orreitan erregetza guztietatik elburu nagusi edo zilborra izan zana.

Bere emazte Aznareztar Todarekin ezkontuta euki ebazan seme alabak:

-Santxez tar Urraka, Leoneko II In Ramirogaz ezkontuta.

-Iruñako Oneka, Leoneko IV n Alfonso lekaideagaz ezkontuta. 926-931eko urte bitartean Leoneko erregiña izan zana.

-Iruñako Santxa, Leoneko II In Ordoñorekin lenengoz ezkontuta, bigarreneko ezkontzan Erramelizko Albarorekin, ta irugarrenez Gonzaleztar Fernanekin Gaztelako kondeagaz.

-I Santxez Garzia Iruñako erregea, Galindeztar Andregoto eta Ramirez tar Teresa-rekin ezkontu zana, eta Teresa Leongo II In Ramiro errege ta Gutierrezar Adosinda erregiñaren alaba izan zana.

-Santxeztar Belaskita, Munio Belaz´egaz leenengo ezkontzan, bigarrenean Ribagorzako Galindo, eta irugarrenez Galindeztar Fortunegaz ezkontu zana.

-Iruñako Munia (Muña).

-Eta Iruñako Orbita, aita ezagutu barik il zana bere izenak esaten dauan lez, eta Ueskako jaurlari al-Tawil´ekin ezkontu zana.

I Santxo Garzez onek, beste alaba bat be euki eban Santzeztar Luparekin, Bigorratar Raimundo kondearen ama izan zana.

925eko urtean Abenduaren 10eko egunean il zan gure I Santxo Garzez au, Ebro ibaiaren bazterrean Resa inguruan, eta bere gorpua Monjardiñeko San Esteban de Deio´n illobiratuta dago.

### 3.11. Bizkaiko 4n. Jauna.

924ko urtetik aurrera, Lope Iñigo Diaz eta Ortiz izan zan Bizkaitarren 4n jauna, eta gaztelar Fernan Gonzalez eta Leoneko errege II Ramirogaz batera, 938ko urtean Dagonillaren 6an Azinazen borrokatu ziran Almanzor Mauritarraren aurka.

Emen be baiña naste aundia dago, Simankaseko borroka orreri batzuk, Azinazeko borroka zala esaten dabelako.





-Beste batzuk, III Abderramanen aurkako borroka ori Almanzorren aurka gure dabelako biurtu.

-Eta 940-1.002ko urte artean bizi zan Almanzor edo Abuamir Mohamed onek, 976ko urterarte ez zalako izan inor, 965-1.013ko urte artean bizi zan II Istxenen irugarrengo kalifatoan.

-929 urtetik aurrera, III Abderraman 891-961eko urte bitartean bizi zanak, ariñaukoa izan zalako Kordobako Kalifatoan.

-Beste aldetik, Fernan Gonzalez ez zan egon borroka orreitan eta orregaitik, Leongo errege II Ramirok, Munio Nuñezegaz batera espetxeratu ebazan Klabbijoko<sup>(1)</sup> gazteluan.

Edestilariak be borroka orren urteak ez dira argitzen:

-Karrillok 930ean izan zala.

-Garibaik eta Sandobalek 931n.

-Marianak 956-958 urte bitartean, Llorentek 939an, Burgosek 941ean, eta Apontek 927an.

Dana dala, Iturrizak esaten dau, 931ko borroka ori katolikuak mirariz irabazi ebalako, **Santiago apostolua zaldi gainean eurei laguntzen egoalako.**

-Fernan Gonzalez kondeak iru zaldun taldeetan banandu ebalako gudalozte ori, eskuin aldean Justo Gonzalez de Salas bere semeekin, 200 zaldun eta mendiko 6.000 oiñezko gudari.

-Ezker aldean Lope Iñiguez ipini ebalako, beste 200 zaldunekin Bizkaia, Bureba, Trebiño, eta Asturiasetik ekarri ebazan 6.000 oiñezko gudarikaz.

-Fernan Gonzalez atze aldean kokatuta irugarren zaldun taldeagaz eta 3.000 oiñezko gudarigaz.

-Gutziz, 450 zaldunakin eta 15.000 oiñezko gudarigaz osotzen zala gudalozte ori.

Iru gau ta egun ibili zirala borrokan esaten dau, eta Lope Iñiguez bertan il zanean, bere lagun gudiariak gorpuari begira egonda, esan ebela, **or, bizkaitar Lope kondea, sagarretan aberats eta txiro ogi ta ardotan.**

Lope Iñiguezek, Iñigo ta Garzia Santxez, urte gitxiko seme bi itxi ebazan borroka orreitan eta bien artean eroan eben Bizkaitarren Jauntza.

## ***Nafartar erregetza osterata artuta***

**6<sup>a</sup>.** - **I Garzia Santxez** 919ko urtean jaioa, Garzeztar Jimenoren ordezkoko erregetza 925-931 urte bitartean eroan ebana, eta 926-970 urte bitartean Nafarroako errege izan zana bera il arte. I Santxo Garzez eta Toda erregeñaren semea zan.

925eko urtean Abenduaren 10ean I Santxo Garzez il zanean, I Garzia Santxez onek sei urte bakarrik eukezan, eta bere osaba Jimeno Garzezen erregetzazko ordepean egon zanean, errege ordegotza orrek bere eztabaidak ekarri ebezan, eta eskerrak Toda bere ama ta III In Abderramaneri, eztabaida orreik bakeztu ziran.

931-934ko urte bitartean, I Garzia Santxez gaztea izateagaitik, bere ama Todaren errege ordezkotzan egon zan.

(1) Clavijo = lugar al S. de Logroño que conserva los restos del legendario castillo, donde en el 960 estuvo preso Fernan Gonzalez. La batalla de clavijo es un imaginario combate entre los ejércitos de Ramiro I, o II y Abderraman III, venciendo los cristianos con la ayuda del apostol Santiago.

933ko urtean I Garzia Santxez adiñetara eldu zanean, bere emazte Andregoto Galindezen errege ordetzagaz arduratu zan, eta beragaz Aragoiko konderriarena.

939ko urtean Leongo IIIn Ramirok, Fernan Gonzalez eta Asturias ta Galiziako gudaletzekaz elkarre bat eginda, IIIIn Abderraman mauritarra menperatu eben Simankasko borrokan.

943ko urtean I Garzia Santxezek, Andregoto Galindezekin euki eban ezkontza ezeztu eben ta bigarren andre Ramireztar Teresarekin ikusten da lenegoz urte onetan.

Bere ama Todari esker, Iruñako erregetza garrantzi aundikoa izango zan etorriko ziran urteetan, Garzia Santxezen arrebak, Urraka, IIIn Ramirogaz, Santas IIIn Ordoñogaz, eta Onneka IVn Alfonsogaz ezkondu ziran. Naparrak, orregaitik euki eben artu emon aundia Leoneko anai arteko gudan.

950ko urtean Leoneko IIIn Ramiro il zanean, nafartarrak Toda erregeñari lagundu eutsoen bere bir seme Santxok errege aulkira igon egian, eta gero bere beste bir seme Ordoño txarrak, Santxo bota ebanean erregetzatik, Toda bere amama IIIIn Abderramanengana joan zan laguntza eske, bere bir seme Santxo osteria ipinteko erregetzazko aulkian.

953ko urtean bere ama Todaren alegiñekaz emon eutsoen, Errioxako San Martin de Albelda lekaidetxeari, Kameroseko mendietan kokatuta dauan Bagibel erria.

961eko urtean Leongo erregetza ta Gaztelako konderri artean borrokan egon ziranean be, an egoan gure I Garzia Santxez au, eta Fernan Gonzalez kondea atrapau eutsoean, ez eutson mauritarrai eskuratu.

963ko urtean katolikotasunezko elkarre bat antolatu zan, IIIn Alhacen mauritarren aurka joateko, eta mauritar oneik bera menperatu eben.

970ko urtean Otsaillaren 22an il zan I Garzia Santxez au, eta Monjardineko gaztelupean dauan San Estebaneko eleiza txikerraren arkupean illobiratu eben.

**7a.- II Santxo Garzez "Abarka"** 938ko urtean jaiota, eta errege 970-994 urte bitartean.

I Garzia Santxez eta Galindeztar Andregotoren semea.


Galindeztar Andregoto au, Aragoiko IIIn Aznarztar Galindo kondearen alaba izan zan, eta ortik agertu jakon IIIn Santxo Garzezeri Aragoiko konderria, naita bere aitaren agindupean jaurkitu, gazte izan zalako.

971ean urteko Iraillan IIIn Santxo Garzezek ordezoak bialdu ebazan Kordubako Kalifatora IIIn Alhakenegaz egon zitezzen.

972ko urtean IIIn Santxo Garzezek, San Andres de Zirueñako lekaretxea eraiki eban.

975ko urtean IIIn Santxo Garzezeri, mauritarrek irabazi eutsoen Gormazeko borrokan.

976ko urtean IIIn Alhacen il ostean, bere seme eta Almanzorren laguntzagaz IIIn Hixen kalifatora igonda, baltzitu egin ziran ikuspegiak katolikoarentzat.



*Au da 990ko urte inguruan IIIn Santxo Garzezeri buruz Rodako eskuz idatzitako liburuan dakarrena*

978ko urtean Azaroaren 24an II In Santxo Abarka au, Garzia Fernandez Gaztelako kondea ta bere emazte Abak, euren alaba eta bere loba Urrakarentzat, Kobarrubiasen eraiki eben Infanterrian egon zan.

981eko urtean Almanzorren gudalozteak menperatu ebazan katolikoek gudalozteak Soriaren ego aldean dauan Torrebizenteko lurraldeetan, ta gero Osma inguruko Tarankueñako lurretan.

981eko urtean eta Tordesillaseko 12km-erora dauan Ruedan, katolikoak mauritarren-gandik menperatuak izan ziran.

982ko urtean II In Santxo Garzezek, bere alaba Urraka, Abda be deituko zana, emon eutson almazorreri emazte lez.

983ko urtean be, Gaztelako Garzia Fernandez, III In Ramiro erregea eta Santxo Abarkaren gudalozteak, Simankasen borrokatu ziran Almanzorren gudalozteakaz, eta katoliko oneik ikaragarrizko astintasuna artu eben.

987ko urtean eta Iruñako II In Santxo Garzez erregeak San Juan de la Peñako lekaretxeari emon eutsolako Alausteko uria, Nafarroako erregea izendatu zan, bera izanaz izen ori leen erabili ebena.

992ko urtean Almanzorrek leenengo ekitaldia egin eban Iruñako Uriaren aurka.

992an urteko Iraillaren 4an, Almanzorren aurka ez ziralako al izan ezer katoliko auek, II In Santxo Abarka bera joan zan bere erregetzaren ordezkoko lez Kordubara, Almanzor garailleari ainbat atsegin sariakaz, beragaz elkargo bat egiteko.

II In Santxo Abarka onek kalifatoaren gortean egoala, bere alaba Urraka ikusi eban eta orduan jakin eban zelan bir seme bat eukela Abd al Rahman izenagaz, eta Santxuelo ez izenarekin ezagutu zana, bere antz osoa eukelako. Kordubako kalifatoaren ondorengo zan II In Santxo Abarkaren bir seme au.

993ko urtean, II In Santxo Abarkaren semea joan zan Kordubara, Kalifari euren ziuertasunezko menpetasuna emoten.

994ko urtean il zan II Santxo Garzez, Abarka Nafartar errege au, eta Errioxako Najeraren Erregetzazko Santa Mariaren eleizan illobiratu eben.

### **3.12. Bizkaiko 5n. Jauna.**

Santxo Lopez izan zan bostgarren Bizkaitar jauna, eta 973ko edo 993ko urtetan Mauritarren aurkako borroka batetik etxera itzultzen egoala, Araban Morillaseko Subijanan, bere menpekoen artean bakeak egiten egoala, oarkabeko gezi batek il eban.

Juan Baskok esaten dau: Nafarroako errege Santxo Abarkaren semea, Blanka Belazkitagaz ezkondata egoala.

Pedro Salazar de Mendoza jakintsuak urten eutson bidera Juan Baskori, esanez: Belazkita, Manso Lopezekin egoala ezkondata, eta 20n. txatalean esaten dan lez, Iñigo ta Garzia Santxez seme bi itxi ebazala urte gitxigaz, eta Bizkaitarrak euren jaurkintzarako, bake ta gudarako gizona bear eben lez, Mansoren sasiko anai Iñigo ezkertia aukeratu ebala.

## *Nafarroako erregetzan.*

**8<sup>a</sup>.**- *II Garzia Santzez "Ikaratia"* 994ko urtean jaioa ta 1.000n urtean il, urte orrein bitartean Nafarroako errege eta Aragoiko kondea izan zan.

IIn Santxo Garzez, Abarka deritsona eta Fernandetar Urrakaren semea zana 994ko urtean bere aita IIn Santxo il zanean igon eban erregetzazko aulkira, eta ikaragarritzko alegiñak egin ebazan Kordubako menpekotasuna kentzen.

996ko urtean IIn Garzia Santzez Ikarati onek Almanzorreri aurka egin eutson, baiña Kordubara joan bear izan eben bakeak eskatzera.

997ko urte inguruan, Nafartarren talde bat joan zan Katalayudeko lurraldeetara eta jaur-lariaren anaia il ebelako, Almazorrek mendekatu eban 50 katolikuen buruak moztuta.

1.000eko urtearen inguruan eta Zerberaren borrokarako, Gaztelako Santxo Garzia, Leongo Vn Alfonso, Garzia Gomez Saldañakoa, eta IIn Garzia Santzez ikaratia elkartu ziran.

1.000eko urte onen inguruan il zan gure IIn Garzia Santzez ikarati au, eta bere erregetzaren ostean, IIIIn Santxo Garzez gaztea zalako, bere lengusu Bigerako Santxo Ramirezek bete ebazan erregearen ordeakoak 1.004ko urterarte.

**9<sup>a</sup>.**- *III Santxo Garzez "Aundia"* 999-1.035 urte bitartean Nafarroako errege zana.

990-992ko urte inguruan jaio zan eta 1.035urtean 18ko Urrillaren egunean il.

IIn Garzia Santzez ikaratiaren semea zan, eta bere ama Jimena Fernandez, Zeako Bermudez kondea ta Saldañako kondetxearen Elbira Diazen alaba izan zanaren semea.

1.000 ta 1.004ko urte bitartean egin eutsoen errege, bere amama Urraka Fernandez eta gotzaiñaren aolkularitzazko talde baten errege ordegotzapean, bere adiñetara eldu arte.

1.015eko urtean Sobrarbeko konderrria artu eban.

1.017ko urtean Ribagorzako konderrria be artu eban bere zainpean.

1.028ko urtetik, emaztearen ondorengotik agertu jakezan Gaztela, Araba ta Monzon euki ebazan bere jaurripean.

1.030ko urtetik Zeako konderrria be artu eban bere jaurripean.

1.032ko urtean eta IIIIn Santxoren agindupean, Najera-Iruñako erregetza, bere aundi-eneko zabaltasuna lortu eban Astorgatik Ribagorzaraño.

Eta 1.032ko urtean Urrillan Santxo Gillermo Gaskuñako kondea seme alaba barik il zanean, IIIIn Santxok zabaldu gura eban bere agintaritzza, Auñamendietatik Garona ibairano izan zan Bazkonian dukaterri guztiagaz, baiña ez eban lortu, Eudes aundia izendatu ebelako lurralde orrein arduradun.

1.034ko urtean Leon menperatu ebenean, erdiugarte onen lur guztiko kaisar izendatu ebela edo izendatu zala esaten dabe, Olibako abatak bere eskutitza baten Santxori, Rex iberikus esaten dautsolako. Dana dala, Najeraren uriko burni ola baten bere irudiagaz landuta agertu ziran diru txanponak, batzuk, bere ostekoak dirala esaten dabe.

Najeran bizi zan, eta Europako lenengo errege lez euki ba eben bere eragipenean, Auñamendietatik gorako lurraldearena izan zalako, Gaskuñako dukaterria bere eskuetan jausi zanetik.

Bere erregetza, Almanzor il zanean, mauritarren kalifatoko maldaberagaz batera ari zan, Taifaseko erregeak sortu ziranean amaituta.

1.034ko urtean Abenduaren 21ean III In Santxo Aundiak, Ponze gotzaiari aginduta, Palentziako gorrea barriztu eban.

### 3.13. III In Santxo onen odorioa.

999-1.035ko urte bitartean, III In Santxo Aundiagaz agertu gintzazanean, beragaz gure euskal eragipenezko lur zabalenetan agertu giñan, euskal izkuntzagaz lotuta egon ziran leiñu guztiak batera agertu ziralako, Loira ibaitik Akitania, ta Gaskuñaren dukaterriagaz iparraldetik.

Mendebaletik sortalderaiño berari lotuta geratu jakozan Leoneko erregetza, Gaztelako konderrria, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafar erregetza, Aragoi, Sobrarbe ta Ribagorzako konderrriak, Lleidaren amaierarte, ego aldetik mauritarren muga euki ebal.

1.035eko urtean Urrillako 18an III In Santxo Aundia il zan orduko, bere agindupean egon ziran lurraldeak euki ebazan lau semeen artean banandu ebazan Nafar legediak eskatzen ebazan eran:

**Iruñako euskal gurasoen erregetza** bere seme III In Garzia Santxezeri, Aragoiko lurralde batzuekaz.

**Gaztelarren konderrria**, bere emazte Muniak edo Mayor'en izen bi onengaitik esagutzen zanaren ezkontza bidetik ekarri eutson Gaztelako konderrria eta denbora onetan Leongo erreñuagaz lotuta egon zana anai bien artean banandu ebazan, Garziari Araba eta Gaztelako konderrriaren zati aundi bat, Bureba, Okako mendiak, Transmiera, Enkarterriak eta Gaztela Zaarra, eta Fernandori, 1.029ko urtetik izendatuta egon zan lez, Gaztelako konderrria, Duero ibaiaren arteko Burgoseko lurraldeak ziranak.

**Ezkondu bage euken lenengo seme I Ramirori**, Aragoiko konderrria Nafar lurralde batzuekaz.

**Eta Sobrarbe ta Ribagorzako konderrriak Gonzalori**, Aragoiko lurralde batzuekaz.

Aragoiko konderrria oraindiño euskalduna izan arren eta XVII In gizaldiraiño irau, Gaztelako konderrrian oraindiño euskera egin, eta orduko denboretan Nafar erregetzako gazte oneik katolikotasunezko batzangotasunean atrapauta geratuz errege egin ziranean, baita euren erregetzako zaletasunetik, laster biurtuko ziran Nafarroako aitaren etxeo etsai, euskal izatasunentzako kalte aundienak, euren-gandik agertuta.



III In Santxo aindiaren illobi arria Leoneko erakus-tokian dauena 1.190-1.200



Nafarroako erregetza III In Santxo Aundia 1.035eko urtean il zanean



Emengo aurrerako denboretatik asiko dira maldaberak gure nortasunezko euskerean agertzen, gura izan barik, katolikotasunaren batzangotasuna euskerearen aurkako etsai amorratua izan zana eta gure demokrazizko askatasunaren eritzizko nastetik, iñork ez eban ezer aituko, lokatz aundi baten asi giñan sartzen.

### ***III In Santxok euki zituzen seme-alabak.***

Ezkondubage eta Aibarreko Santxagaz, I Ramiro euki eban, gero Aragoiko konde ta errege izango zana, Gilberga Roger de Bigorrarekin leenengo ezkondu zana, eta 1.049ko urtean Akitaniako Inesekin.

I Ramiro au, 1.006-1.008ko urtean jaio zan eta 1.063ko urteko Loraillean il.

***Eta III In Santxo bere emazte Gaztelako Munia edo Mayorrekin 1.011ko urte inguruan ezkondata euki zituzen seme alabak onek izan ziran:***

-III In Garzia Santxez Najerakoa, Iruñako errege ta Foixeko Estefaniagaz ezkondu zana.

-Santxeztar Fernando Aundia, Leoneko errege III In Bermudoren arreba Santxagaz ezkondu zana.

-1.018ko urtean jaio eta 1.063ko urten il zan Santxeztar Jimena, Leongo III In Bermudo erregeaz ezkondu zana.

-1.020ko urtean jaio eta 1.045eko urtean il zan Santxeztar Gonzalo Sobrarbe ta Ribagorzako kondea.

**10.-** III In Garzia Santxez Najerakoa 1.012-1.054ko urte bitatean bizi zan, eta errege lez 1.035-1.054ko urte bitartean Nafar erreinua jaurkitu ebena.

1.012ko urtean jaio zan, eta 1.054ko urtean Irai llaren 15eko egunean Atapuerkako borrokan bere anai Fernandok il eban.

1.035eko urte onetan Najerako III In Garzia Santxez asi zan jaurkitzen lenengo anai Ramiroren lekuan, sasi seme au, aitak gaztetan ezkondu barik euki ebalako ondorengotik kanpo itzita, III In Santxo Aundia Nafar erregearen ta Gaztelako Muniadona Santxezen lenengo semea izan zan Nafarroako III In Garzia Santxez au.

1.037ko urtean bere anai Leongo I Fernandok eskatu eutsonean laguntza, bere koñatu III In Bermudoren aurka Pisuerga ibai ondoan borrokatzeko, III In Garzia Santxezek laguntza ori emon eutson, Tormaroneko borroka orreitan, Pedro dux edo Kantabriako auzi gizon aundiena izan zanaren azkeneko ondorengo semea ilda.

1.038ko urtean III In Garzia Santxez au, Barzelonan ezkondu zan Foixeko Estefaniakin eta bederatzi seme-alaba euki ebazan beragaz:

-1.039ko urtean IV In Santxo Nafarroako errege izango zana eta Normandiako Plazenziagaz ezkondata egon zana, 1.076ko urtean Ekaiñaren 4an bere anai arreba Ermene-sinda eta Raimundok, bien artean Peñalenen il ebena.



*Goian, Najerako erregetzaren Santa Maria lekaidetxea, III In García Santxezek eraikita.*

-Urraka Garzez erregearen alaba, Alberite, Lardero ta Logroñoeko Jauna izan zana. 1.074ko urte inguru Najera eta Grañoneko jauna izan zan Garzia Ordoñezekin ezkondu zana, eta 1.108ko urtean Loraillaren 30ean, Ukleseko borrokan il.

-Ermesinda Garzez, Yarnoz eta Yekeda Jaun Fortun Santxezekin ezkondu zana, eta 1.076ko urtean Ekaiñaren 4an bere anai Raimundogaz, euren anai zarrena Peñalenen il ebena.

-Iruñako Ramiro, Kalaorra, Kameroseko Torrecilla ta Ribafretxako urien Jauna. Teresarekin ezkondu, eta Leongo VI In Alfonsori laguntzen, Jalonen Ruedako gaztelua menperatzen egon ziranean mauritarrak il ebena.

-Iruñako Fernando, Buzesta, Jubera, Lagunilla ta Oprelako jauna. Bizkaia ta Najerako Iñigo Lopez Jaun eta kondearen alaba Nuña Iñigezekin ezkondu. 1.068ko urtean il zana.

-Iruñako Ramon edo Raimundo anai iltzaillea, Murillo eta Agonzilloko jauna. Peñalengo IVn Santxo anai zarra il ebenetik Al-Muktadir'en Zalduba edo Zaragozako gazteluan babestu zana. Urraka Raimundezen aita esan leike dala.

-Iruñako Jimena Garzez. Nabarreteko Korkuetos, Ornos eta Darokaren Jaun Andrea. 1.085eko urtean Loraillaren 27an il zana.

-Iruñako Garzeztar Mayor, Yanguas, Atayo ta Belillaren Jaun Andrea. Makoneko IIn Guy kondeagaz ezkondu zana. Eta 1.115eko urtearen ostetik il zana.

-Iruñako Santxa Garzez, Pankorboren inguruko erri baten, Kuebagallegoseko San Martin lekaimetxean, araubageko abat andrea izan zana.

Ezkontzatik kanpo be euki ebazan sasiko seme bi:

-Santxo Garzez, Unkasto ta Sangesako Jauna, Konstanzagaz ezkondu.

-Eta Menzia Garzez, Nalda, Leza ta Juberako Jaun Andrea, Kameroseko leenengo jaun eta Nalda, Leza ta Juberako Jaun izan zanaren Fortun Otxoagaz ezkondu. 1.073ko urtearen ostetik il zana.

1.043ko urtean IIn Garzia Santxez Najerako onek, bere anai Aragoiko I Ramirogaz Tafallan borrokatu zan, Ramiro menderatuta.

1.045eko urtean Kalaorra berrezkuratu eban, eta bertara eroan eban bere gorrea.

1.054ko urtean IIn Gazia Santxez Najerako onek, Atapuerkan bere anai I Fernandoekin borrokatu zanean, bertan il eban.

### 3.14. Bizkaiko 6n Jauna.

1.015-1.077ko urte bitartean bizi zan, eta azken edo ziurtasunezko zerrendatik, I Iñigo *Lopez ezkertia izan zan Bizkaitar jauntzan seigarren Jauna 1.040-1.077ko urte bitartean, eta lenengoa Bizkaiko Jauntzaren liburu agirietan agertzen dana.*

-Ezkertia izan bear izan eban, edo baliteke beren aitoren oroimenez, edo ta sasiko semea izatearren, ezkertia deituko eutsiela.



*San Juan de la Peñako lekaretxea, Bizkaiko Jaunak ainbat emaitza egin eutsoenai*

Dana dala, beren Iñigo Santxez lobari emon eutsozan Llodio ta Okendoko ibarrak, eta Luiandokoa Orozkoko Gartzinari.

1.020 eta 1.043ko urtearen Nafar agiriak, aberats lez aipatzen dabez Zaldun bi oneik, eta Mendozatar leiñu edo iturburu onek Iñigoren senditik, ainbat kardinal, gongotzain eta buru nagusi emon ebezan.

Bere senidetasurezko iturria, baleiteke Nafarra izatea, Belazkeztar Lopezen semia dalako bere anai Galindogaz.



*San Millaneko Suso Lekaretxea, Lope Iñigezek ainbat emaitza eginekoa zana eta bertan dago illobiratuta bere emazte Tikla, Gaztelako Gonzalo Salbadorezen alaba izan zana.*

Beste anai bat be euki eban Lope ta Galindo auek, Garzia de Botaya deitzen zana eta San Juan de la Peñako lekaidea izan zana 1.057ko urtean il zan arte.

1.040ko urtean aipatzen dautsoe leenengoz Iñigo Lopezeri Bizkaiko konderraren jaurkintz lez, Errioxaren Kukullako San Millanen bere izenagaz agertzen dan agiri baten.

Gero, 1.030eko urtean Araban, 1.051eko urtean Durangon.

1.063ko urtean Nafarroako errege IVn Santxo Garzezek Iñigo Lopezen zeatzasuna saritzeko, Errioxaren Najerako eukitze edo ordezeko jaurkintza emon eutson, 1.075eko urterarte egin ebana.

Eta Peñalengo IVn Santxo Garzez Nafarroako erregea il zan orduan, Errioxako Najerako lurraldeak eta beste gaztelu batzuk Leongo VI In Alfonsoren agindupean egon ziran lez, lur onen jaurkitza Garzia Ordoñez Urrakaren emazteari emon eutsoezan, Urraka IVn Santxo Garzezen arreba zalako.

1.053ko urtean IVn Santxo Garzez errege onek, Gazteluatzeko San Juan eta Peñako San Juanen lekaidetxeari ainbat emaitz emon eutsezan.

1.076ko urtean azken aipatzen dan lekua, San Millaneko lekaretxeari, bera ta bere emaztearen arimagaitik eskatzen dauanean, Kanprobineko uriaren emaitza eginda.

Iturritzak esaten dau, Iñigo ezkertari au baleikela, Nafarroako erregearekin ibiltea, Nafarroako jaurlaritzan, beren izeneko agiri batzuk dagozelako.

Larreategi eta Mendozako Zalazarrek ez dabe esaten ezer beren ezkontzari buruz, nai 1.051ko urtean Fortun Santxezen alaba Toda Fortunezegaz ezkontuta agertu.

Beste ager lekuak, bere seme Santxoren eriotzari buruz :

1.070an Toda Ortiz bere emazteagaz San Millaneri egindako emaitzan .

1071n Aragoiko San Juan de la Peña ta Mundakako Santa Maria lekaidetxearen emaitzan.

1.072an San Millan de la Kogollari, Iurretako San Martin lekaidetxearen emaitzan.

1.075ean bere emaztearen eriotza, eta 1.076an Nafarroako IV Santxo Peñalengoa il ebenean, badakigu bizirik egoala, eta Adrianek ta Labairuren esanagaitik, nai ta ziur jakin ez noz izan zan beren eriotzea, 1.077ko urtean il zala emoten dau.

Emen esan bear da, 1.076an IV Santxoren eriotz ostean, Aragoiko errege I Santxo Ramirezek euskal aldean, eta Gaztelako errege VI Alfonsok<sup>(1)</sup>, Naiarako erreñua esa-

(1) VI In Alfonso Leon eta Gaztelako erregea suar edo bioztun = 1.040ko urtean jaio eta 1.109ko urtean il. 1.040-1.109ko urte bitartean errege.

ten eutsienari egin eben mendekuagaz, Iñigoren sendia banandu zala, Fortunio Iñgez Nafartarrakin aurrera eginda eta Lope Iñgez gaztelarrakin alkartuta.

Artu eben erabagi ori, ez zan izan txarra Bizkaitarrentzat, Bizkaiko Jauntzaren askatasuna lortu zalako.

Ez eta Araba ta Gipuzkoarentzat be ainbeste, VI Alfonso gaztelarrak, naita aginteko maillan neurri aundia lortu, Euskaldunek ez ebelako ezer galdu askatasunean eta politika maillan, len Nafarroako alde euki ebazan zaldun jauntzak, aginpide bardiñakaz aldatu ziralako Gaztelar erregeagaz.

Bizkaiko batzarrak, Iñigo Ezkertaren urrena, Dn. Lope beronen semea izendatu eben.

### ***Ondorio labur bat.***

Adiñ onetako edestian, nai askoz aurretik etorrita be ikusten dogu, 1.035ean Gaztelako ta Aragoiko erregetzak sortu ziran urtetik aurrera, errege jaunen arremanak ugarituz gain, neurri bardiñean naspiltzen joan ziralta eta egoera ortatik urten ezinezkoa biurtu zen.

Erdiugarte onen erditik gorako gizartea, zoratuta bizi bear izan eban, bertoko eta Mauritarren aurkako borrokeagaz, ainbeste erromatargodo eritziz, goitik berako jaurkintzaren agindumailakaz eta ainbeste Kardinal, gongotzain, gotzain, abate, ta norke-riaren jauntzuketiarako egon ziranai, umajea egiterakoan.

Euren artean danak senide eginda, sortzen ebezan arazobidetik, noren aginpean, edo umajea<sup>(1)</sup> egon ?.

Eta emen Bizkaitarren gaiñetik Euskalerrri osoa aipatuko neuke, mirari aundi bat dalako, betiko Euskal sinismenean agertu gindezen.

1.043ko urtean Tafallako borrokan, bere anai I Ramiro Aragoiko erregea menperatu eban, Nafar erregetzaren ekialdeko mugak euren lekuetan ezarrita.

1.045eko urtean eta mauritarren Taifaseko erregetzaren makal aldiagaz baliatuz edo erabiliagaz, beren lurraldeak zabaldu ebazan Kalaorra bereganatuta.

1.52ko urtearen 12ko Abenduan Najeran, Erregearen Santa Maria Lekaidetxea be-deinkatu eban, eta inguruko Santuaren ugaritasuneko irudiekaz edertu.

1.052ko urte berean, San Felizes de Bilibiosen gorpua be gura eban eleiza ortara eka-rrri Arabako gotzaiaren laguntzagaz, baiña gotzaia Bilibioseko Riskoera joan zanean zaldun askoren laguntzagaz, eta illobia zabaldu ebanean, illobitik alboratu ebala igarri eban eta gotzaiari agoa okertu jakon, batera ekaitz gogor bat sortu zanean, mirari bat lez artuta, bertan itzi eben Santuaren gorpua, gotzaiaren agoa betiko oker geratuta.

1.053ko urtean Lorailaren 29an, San Millanen gorpua ekarte eban idiek, ez ebelako gura eleiz orreitara eroan, mirari bat lez artu eben, eta idiak geratu ziran lekuan lekai-retxebat eraikitea erabagi eban, ***San Millan de Yusokoa izango zan Lekaretxe au.***

IIIIn Garzia Santxez Najerako errege onek, IIIIn Santxo Aundia bere aitarengandik Iruñako erregetza artuz gaiñ, Araba eta Gaztelako Bureba, Trasmiera, Okako mendiak, Enkarterriak eta Gaztela zarrako lurraldeak artu ebazan.

(1) Umajea = rendir pleitesía.

1.054ko urtean Iraillaren 15ean III In Garzia Santxez onek, Gaztelako errege Fernando bere anaiagaz euren gaztelako lurraldeagaitik asarratuta, Atapuerkan borrokatu ziran eta Fernandok il eben anaia, nafarroako errege au.

Ortik aurrera, naita Nafarroako erregetza, beti egoaldearen antolakuntzazko arrematetara begira egon, bere euskal lurrairen babeserako bakarrik bizi, eta eleiztarren aolkularitzazko bidez beste erregeari, *Gaztelatarrai batez be* asko lagundu, Gaztelarrak eta Aragoitarrak, beti alegindu ziran goian esan doten kaizartzaren aundikeri naian, eta Nafarroako erregetzaren ama zatituten euren artean banatzeko.

Ekintza orreik ekanduzko arloan aurrera eroateko, ez eben eukiten ezeren zalantzarik.

*Kontuan euki bear da, denbora orreitan ez zala egon espainol asmakuntzarik, oraindiño Euskal lurrak izan ziralako alde batetik, eta gogo geienez, kaizar jaurkintza ta erlijiozko katolikotasunezko zaldun eusle edo zaindari nagusi izateko ametsetan ibili zirala bestetik.*

*Aztu barik baiña, menperatzailetasunezko ari ori, gaur daukaguzan Laterrietan oraindiño bizi-bizi geratzen dala, goian esan dodazan norkerizko asmakuntz guzti orrekaz.*

### ***Nafarroako erregetzan.***

**11<sup>a</sup>.**- IV Santxo Garzez Biotz Andikoa edo ta *Peñalengoa* 1.054-1.076 urte bitartean Nafarroako erregea.

1.039ko urtean jaio zan, eta 1.076ko urtean Bagillaren 4an Peñaleneko amiltegian bere anai Raimundo eta arreba Ermenesindak il eben.

IVn Santxo Garzez biotz andiko au, Najerako Santa Mariaren lekaretxean illobiratuta dago.

1.054ko urtean, IV Santxo Garzez Peñalengoa 1.054-1.076ko urte bitartean eroan ebenak Nafar jaurkintza, Atapuerkako borrokan, kanpaldiko oialpean 14 urte eukela izendatu eben errege.

Eta 1.058ko urtean 18 urte bete ebazan arte, Foixeko Estefaniak bere amaren errege ordegotzan bideratua izan zan.

Au be, euren arteko eta Mauritarren aurka, borroka askotan ibili zan.

1.063ko urtean IVn Santxo onek, bere Aragoiko osaba I Ramiro erregeagaz alkartuta, Salduba edo Zaragozako mauritarren Taifa zirikitzen asi ziran, Al-Maqtadirren menpe edo agindupea lortzeko, Saldubako Al-Muqtadirrek baiña, zergak ordainduz gain, IVn Santxo bere legusu, I Ramiroren semeakin aurka ipinten ebazan, bere lengusu onek 1.063ko urtean I Ramiro aita aldikatu ebalako erregetzaren jaurkintzan.

IVn Santxok, ainbat arazo euki ebazan, Nafarroako erregeak Gaztelako lurraldeetan ainbat jabetza eukitearren.

1.067ko urtean eta Gaztelako II In Santxo Indartsuaren gogoak bere erregetzaren lurraldeak zabaltzeko, iru Santxoren borroka sortu zan, Nafarroako IVn Santxo, Aragoiko Santxo Ramirez eta Gaztelako II In Santxogaz.

1.068ko urtearen ostetik ezkondu zan Normandiako Plazenziagaz, 1.088ko urtearen ostetik il zana, eta seme bi euki zituzen:

-Iruñako Garzia Santxez bere aita IVn Santxo Garzezen ondorengoa ta tituludunezko errege izanda, Aragoiko I Santxok alboratu ebana, Nafarroako lurraldeak Aragoi ta gaztelarren artean bananduta.

-Eta Garzia Santxez 1.092ko urtearen ostetik il zana.

IVn Santxo Garzez onek, beste seme bi euki zituzen, Jimena izenez euken emaztordeagaz:

-Eskirazkoz jauna izan zan Raimundo Santxez 1.071eko urtearen baiño irañago jaiio zana eta 1.110etik aurrera il zana.

-Eta Urraka Santxez, Larrasoaineko abat azlearen zainpean egon zana. 1.072ko urtearen ostetik il zana.

1.076an baiña, bere Ramon eta Ermesenda anai arrebak, anaiari eizaldi batera deitu eta Funeseko lurraldean Peñaleneko trokarte batetik amiltegira bota eben.

Erritarren asarrea ikusita, mutilla Zaldubako mauritarren etxean ostondu zan, eta neskatilla Gaztelako gortean.

1.076ko urtean IV Santxo Garzez il zanean, Aragoiko errege Santxo Ramirez eta Leon Gaztelako buru zoildun errege VIn Alfonsok, Nafarroatik zear sartu ziran al eben guztia ostuten, Leongo errege VIn Alfonso Errioxa bereganatuta eta Aragoiko Santxo Ramirez Nafarroako errege izendatu ebana.

Bitartean, Nafartarrak zalantza askotan ibili ziran errege bat aukeratzeko, eta azken baten, erregearen lengusu Santxo Ramirez Aragoiko erregea izendatu eben.

**3.15. Nafartar erregetzan, 1.076 – 1.134ko urte bitartean Nafarroa eta Aragoiko erregetza.**

**12<sup>a</sup>.**- *V Santxo Ramirez* 1.043ko urtean jaiio eta 1.094ko urtean Bagillaren 4an il. 1.063ko urtetik 1.094ko urterarte I Santxoren izenagaz Aragoiko errege, ta 1.076-1.094ko urte bitartean Iruñako Vn Santxoren izenagaz Nafarroako errege.

I Ramiro eta Foixeko Ermenesindaren semea izan zan. Eta 1.062 edo 1.063ko urtean lenengoz Urjeleko Isabelekin ezkondata jaiio zan Aragoiko errege aundia izango zan Aragoiko I Pedro.

1.064ko urtean, naita I Santxo Ramirez au, IIn Alejandro Aita Santuak mauritarren aurkako esagutzen dan lenengo gurutzada santuaren deiara joan ez arren, Barbastro artu eutson mauritarrei lenengo eraso aldian.

Frantzezak be egon ziran borroka onetan inguratzeko euren guda tresneriekaz.

1.065eko urtean Jorraillaren 17ko egunaren baiño ariñago il zan Barbastron, I Santxo Ramirezzen koñatu IIIIn Ermengol Urjeleko kondea, uriaren jaurkintza eukena eta borroka orreitan erria babesten egoala mauritarrek il ebana.

Gogorra izan zan borroka ori, Salduba edo Zaragozaren taifako errege Al-Muqtadir mauritarrak, al-Andaluz guztiko yihad edo laguntza eskatu ebalako, Zinkako ibar aberats ori babesteko.

1.065-1.067ko urte bitartean I Santxo Ramirezek, Alkezar menderatu eban, Buera, Kolungo eta Adaueskako uriakaz.



1.068ko urtean Otsaillaren 14an I Santso Ramirez au, Erromara joan zan II In Alejandro Aita Santuagaz egoteko, asi eban Aragoiko erregetza sendotzeko, eta Aita Santuak baietza emon ondoren, Aragoiko erregetzak, 500 urre gorritzko mankuso urtero Batiakanoko eleiz kaisar laterriari ordaintzea erabagi eben.

*Emen ikusten da argi, Europako laterritarren artean, nungo laterriak aginduten eban laterri guztien gainetik, eta gaur bardin irauten dauelako, betiko akatz au ez bada Europako lepotik kentzen, Europatarren arduragabetasuna izango da ikurra, gaur sortzen dan lez, katolikotasunezko batzangotasun onek gaur, ez daukelako arrazoirik era orreitan aurrera egiteko.*

*Gaur barregarritzkoa izanez gain, ez dago eskubiderik inork aurrera egin dagian faziztaren antolamenduzko ekintza onekaz, Jaunkoikoak bereztutako mundu onen aurkakoa dalako len, eta bigarren, munduko gizaren zentzuzko baitan, guztiz aurkakoa dalako.*

*Ulertu ote leike, alango zentzun gabekeririk ?.*

Ata guzti, Aragoiko erregetzak ez eutson ordaindu mankuso dirurik batikanoko eleiz laterritasunari 1.087ko urterarte, zerga ori ordaintzeko egin ziralako mankuso diru orreik, eta ez ziran Aragoiko erritik erabili, Aragoien ez dalako aurkitu bat bera esanda be, aurkitu diran guztiak Siria eta Turkiatik izan diralako.



*1.085ko urtean I Santxo Ramirez ez atara eban dirua.*

Eta Aragoiko erregetza Batiakanoko laterritasunagaz euki eban feudotasunaren mo-roitasunezko artu emonetik, Aita Santuaren ikur buruzko silluak eroaten ebazan urre gorritz margoztutako marrak dira, Aragoiko ikurriñak margoztuta daukazan marrak.

1.076ko urtean il eben bere anai arrebak Nafarroako IVn Santso Garzez biotz andiko edo Peñalengoa, eta nafartarrak ez ebelako gure euren erregetzan alango anai Ramonik, Aragoiko I Santxo Ramirez aukeratu eben euren errege lez, onek Iruñako erregetza Aragoiko erregetzagaz alkatuta.

1.077ko urtean Aragoiko I Ramiro eta Nafarroako Vn Santxo Ramirez onek, Jakako uria forutu eban lege zarrakin, sorturi baten biurtuta, gainera, Aragoiko uri nagusi ta gotzai uri izatera biurtu eban, Eleiz Nagusia eraiki egien aginduta, Santiagoren bidean, erri koskor baiño besterik ez izan zana.

1.078ko urtean Salduba edo Zaragozako zuatz guztiak moztu ebazan Ebro ibai ondoan Sarakustako Taifatik 20 km. gorago, El Kastillarreko gaztelua eraiki egien aginduta. Gero Sarakustako mauritar erregeari, berak agindu eutsoezan ordaintzeko zergapean ipinita.

1.083ko urtean Graus eta Ayerbeko erriak menperatu ebazan, ostera bir erritzeko agindu ebana, eurek zabaltzen eutsoezelako Zinka eta Uesca de Oyatik beko lurraldearen bideak.



*1.080ko urtean Jakako Pedro Deunaren eleis nagusian, arroin-gaiñeko irudiak, David erregea bere erregetzazko ezar auklian arranbel edo arkuko arrobita, edo txirrine joten beste soiñu-jotzaileen artean.*

1.084ko urtean eta lenengo Sakratuzko Gurutzada orretan, Barbastroko iparraldean dagon Nabal erria menperatu eban.

Eta 1.084ko urtean Jorraillaren 5ean, Muzkariatik 15km-erora dagon Argedaseko erria menperatu eban.

Eta menperatzen joan zan lurraldeetatik, I Santxo Ramirez Aragoi eta Nafarroako errege onek, Kastellarren egin eban lez, Loarreko gaztelua sendotu eban eta Obanos, Garisa, Montearagon, eta Ayerbepean dagon Artasonan, gazteluak eraiki ebazan beste askoren artean.

1.087ko urtean eta Zinka ta Esera ibaiak bat egiten dabean lekuan, Estada menperatu eban, eta Fraga baño 12km bera dagoen Zaidineraiño eldu zan.

Aragoiko I Santxo Ramirez eta Nafarroako Vn Santxok, Abiego, Eulalia Aundia Santua eta Labatako erriak sendotu ebazan, mauritarren eskuetan egoan Ueskako uria inguratzeko, Sagrajaseko borrokan be egon zan Leongo errege VI In Alfonsori laguntzearren eta Toledon be bai Bibar eta Diaztar Rodrigorekin babeseko alkargo bat izenpetuta.

1.094ko urtean Ekaiñaren 4an Ueskako urian mauritarrekin borrokan egoala, gezi batek il eban, eta lenengoz Montearagongo lekaidetxera eroan ebenetik, gero san Juan de la Peñako lekaidetxera eroan eben.

#### ***Ezkontza eta euki zituzen seme-alabak.***

Urgeleko III In Ermengol kondearen alaba, Urgeleko Isabelegaz ezkondu zan 1.062-63 urte bitartean, eta 1.068ko urtetik ez dalako agertzen agirietan, esan leike I Santxo Ramirezek, Isabel zapuztu edo utzi ebala, beragaz seme bat eukinda:

-I Santxeztar Pedro katolikoa, 1.068-1.104ko urte bitartean bizi zana, eta Iruña edo Nafarroa eta Aragoiko errege lez 1.094-1.104ko urte bitartean.

1.071ko urtean ezkondu zan bigarrenez Rouzy´ko III In Hilduino kondearen alaba Rouiziko Feliziagaz, eta ezkontza onetatik:

-Santxez de Aragoitar Fernando 1.071-1.094ko urte bitartean bizi zana.

-Santxeztar I Alfonso Gerlaria, eta Aragoi ta Nafar errege lez 1.104-1.134ko urte bitartean izan zana.

-Santxeztar II In Ramiro Lekaidea, 1.086-1.157ko urte bitartean bizi zana eta Aragoiko errege lez 1.134-1.157ko urte bitartean.

### **3.16. Bizkaiko 7n Jauna.**

III Lope Iñiguez jauna *ille gorri*, izan zan gure II In Jaun agiriduna, eta emendik asita aurrerako edestia, ziurtasuneko argitara agertzen garela esan nai dau orrek.

III Lope Iñiguez, Iñigo Lopez ezkerria eta Toda Ortizen semea izan zan.

1.061-1.067ko urte bitartean III In Lopez tar Iñiguez ilegorri jaun onek, bere aitaren seme nagusia izanda, aitaren orde zko jaurkintzak egiten ebazan denbora orreitan.

Nafar erregetzan be egon zan IV n Santxo Garzezen denboran, eta 1.063ko urtean Monte Laturzeko San Pruden zio lekaidetxeko agirietan Najerako edo Naiararen orde zko lez<sup>(1)</sup> agertzen da.

(1) Tenente ´ren arduran.

1.069ko urtean, Diego Alvarez de la Oka gaztelar aberatsaren alaba Tiklo Diazekin ezkondu zan.

1.074ko urtean Balbaneran agertzen agirian be bai, Alberiteko ordezkoko lez.

1.076ko urtean Peñalengo IVn Santxo Garzez bere anai arrebak il ebenean, Aragoiki Santxo Ramirez eta Leongo VIn Alfonsok, nafar erregetza banandu eban bion artean, eta Lope Iñiguez onek, bere aita, aitagiñerraba ta beste zaldun batzuekin, zintzotasunezko ziñez itz emon eutsoen Leongo errege VIn Alfonsori.

1.081eko urtean, Lope Iñiguez onek Arabazo ordezkotza eroan eban.

1.082ko urtean Bizkaia eta Gipuzkoa, Najerako lurraldearen ordezkoko Garzia Ordoñez IVn Santxo Peñalengoa il ebenetik eta Nafarroan sortu ziran eztaibadagaitik, beren aita Iñigo Lopezen antzera, Gaztelako VIn Alfonsoren eragipenera<sup>(1)</sup> ondortu zan, eta Bizkaitarren Jauntzaz gain, bere Naiarako aginterria galduta, IVn Santxo Peñalengoa il eben arreba Ermenezenda, Garziz Ordoñezegaz ezkondu egon zana-gaz Naiara<sup>(2)</sup> berrezkuratu ebalako, 1.085-1.090eko urte bitartean, berak konde lez jaurkitu ebazan Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde bi orreik.

1.085eko urtean jaun au, Toledo askatzeko borrokan be egon zan.

1.108ko urtean Lope Iñiguez 1.093ko urtean il da, eta urte onetan Ukleseko borrokan Garzia Ordoñez il ebenean, Lope Iñiguzen seme nagusi Aroko Lopeztar Diego Zuriak, Najerako ordezkotza lortu eban.

Eta 1.109ko urtean Grañonekoa.

Lopez Iñiguez eta Tikla Diazen seme alabak:

-*Lopeztar Diego*, bere ondorengoa zana Bizkaiko Jauntzan.

-*Lopeztar Santxo*, Pozako jauna.

-*Lopeztar Toda*, Gonzaleztar Lopez Buradon eta Eztibalizko ordezkoko zana-gaz ezkondu zana.

-*Lopeztar Santxa*.

-Eta Lopeztar Teresa, birriten ezkondu zana, lenengoa Loperekin Garzia Lopez semea eukinda, eta bigarrena Garzia Santzezekin.

III Lope Iñiguez, Zid kanpeadoren lengusu Andre Teklarekin ezkondu zan, eta euki ebezan seme-alabak:

-*Diego Lopez de Aro*, Bizkaiko jaurkintzan ondorengoa izango zana, eta Aroko etxean lenengo kondea.

-*Santxo Lopez*.

-*Andre Toda*, Arabako kondea izango zan Lope Gonzalezegaz ezkondu zana.

-*Andre Santxa*.

-*Eta Andre Teresa*, Garzia Santxezegaz ezkondu zana.

Bizkaiko Jauntzan zoritxarrez, beste garrantzi aundiko arazo bat sortu jakun Iñigo Lopez il zanean, Lopez Iñigok Bizkaiko Jauntza artu ebenean iñork ez ebelako ezer esan, ortik aurrera, sortzez, odolez edo ondorengo nagusigai<sup>(3)</sup> zanak artzen ebalako.

(1) VIn Alfonsoren eragipenera = a la influencia de Alfonso VI. (2) Naiara = Najera. (3) Ondorengo nagusi = primogénito.

Adrian ´ek esaten dauan lez: Bizkaitarrak, lotan egon al ziran aldi orreitan ?. Ez dot uste. Bizkaiko jaunak, Gaztelako jaurkintzan orain arte eta emendik aurrera artu ta artuko eben indarragaitik, Bizkaitarrak bat ala beste<sup>(1)</sup> sare arteko eragozpenean arrapatuta, gure jaun-tza Aragoi edo ta Gaztelar erregeen jabetzatik aldentzeko, alegin guztiak egin ebelako.

Zoritxarrez baiña, ondorengo bide orretatik Gaztelar errege I Juanen eskuetan jausi giñan.

Emen esan bear dogu, Iñigo Lopez eta bere seme Lope Iñigez Jauna, zelan aldatu ziran Nafarroako alkartasunetik, VI Alfonso gaztelatarren eragipenera.

VI Alfonso gaztelarrak, Iñigo Lopez eta Lope Iñigo gure Jauntzako aita semeak, Nafarroako jaurkintzan euki eben indarragaitik, Naiarako jaurkintzatik kendu gura ebezan eta Gartzia Ordoñez bere zaldunari emon.

Alfonso konturatuta baiña, Errioxan zelango Nafartar zaletasuna egoan, IV Santxo Biotz Aundiko edo Peñalengoa il ebenean, onen arreba Urraka, Gartzia Ordoñezegaz ezkondu eban, eta or, berrezkuratu eben Naiarako jaurkintza.

Ez gara aztu bear, VI Alfonso gaztelarra, IV Santxo Naparra, bere arreba Urraka eta Santxo Ramirez Aragoiko erregea, istar lengusuak<sup>(2)</sup> zirala.

Lope Iñigez, naste orren bidez ta buruan ondo ausnartuta, Alfonsoren aldera egokitzea erabakitu eban, ararte bere jaurkintzan izan zan Naiararen jaurkintzarako aolkuak emonez batera.

Orretarako, Diego Alvarez bere aitagiñarrebagoz, Santillana-Asturiasera joan zan Alfonsorengana menpekotasuna eskeintzera.

Eta egiz joan zala ziurtatzeko, Gaztelan bere jaurkintzan euki eban Bilibioko<sup>(3)</sup> jaun-tza, Alfonsori emon eutson.

Lope Iñigezek artu eban erabagi au, garrantzi aundikoa da edestirako, emendik eurre-ra eta urrengo gizaldian 1.224ko urtean guztiz aldatu arte, Bizkaiko Jaunak geienean, Gaztelako erreñuaren eragipenean ibili ziralako.

A ta guzti, Labairuk esaten dau: Lope Iñigo Jaunak, beti ibili zala Bizkaitarren Askatasuna zelan babestu, nai ta Zelaia ta Ibarratar Adrianek, bera ezbaikorra dala esan.

Nik uste dot, Labairuk arrazoia daukala, gaztelarren jaurkintza kolonigille izanez gain, goitik bera mendeko zaletasunean asi ziralako eraikiten, erromatar aberritasunezko kaizar katoliko elburu orreik lortzeko.

Lope Iñigez 1.093ko urtean il zan.

### ***Nafar erregetzaren aria ostera artuta.***

**13<sup>a</sup>.**- *I Santxeztar Pedro* 1.094-1.104 urte bitartean.

1.094ko urtean, Vn Santxo Ramirezen seme I Santxeztar Pedro, Sobrarbe ta Ribagorzako errege zana, izendatu eben Iruña ta Aragoiko errege, itz emonda Oska inguratzen iraungo ebala.

(1) Bat-ala-beste = dilema. (2) Istar-lengusuak = primos carnales. (3) Bilibio ´ko Jauntza = Ebro-ibai ondoan kontxaz de Aro ´n dago Bilibio ´ko gaztelu-zar edo jauregi-zarra eta tenientgoa (tenencia), Briñas ´etik urbil, Bañares erri-Iribilduan, Aro ´ko Udala ´ri dagokiona.

Urte bi igarota, Saldubako Mauritarrek Gaztelako Alfonsoren laguntzagaz, al eben indar gutzia egin eben inguratze ori apurtzeko. Nafar, Aragoitar ta Gaskoitarrak Alkorazen alkar baiña, ikaragarritzko triskantza egin eutsoen mauritar eta gaztelako gudalozteari.

1.068ko urtean Araneko ibarrean jaio zan Aragoiko I Pedro au eta 1.104ko urtearen Iraillan il, 1.094-1.104ko urte bitartean Aragoi ta Nafartarren errege zana.

Vn Santxo Ramirez eta Urjeleko Isabelen semea izan zan.

1.085eko urtean Vn Santxok I Pedoren aitak, Pedro gaztea zala, Sobrarbe ta Ribagorzako konderriak itzi eutsoezan jaurkitzeko errege izenagaz. Erabide au baiña, ez zan Pedoren aitena bakarrik izan, III In Santxo Aundiak be ibili ebalako, semeari erregezko izenburu ori emonda, beren lurralde batzuk jaurkitu egiazzen Tenente edo ordezeko lez.

1.089ko urtean Vn Santxo Pedro semeari, Zinka ibaiko ibarraren luzera erdian emon eutson Monzoneko errege izenburuagaz bere ordez jaurkitzeko, Leridako mauritar taifaren eraso ugari euki ebazalako inguru orrek. Ekintza orregaz Nafar Aragoiko erregeen oiturak aurrera eroanda, gazteak errege arduratan sartu zitezzen.

1.093-1.103ko urte bitartean Aragoi ta Nafar errege I Pedro, Zid´egaz elkartuta erdiugarte onen ekialdean mauritarren aurka ekiteko, Kulla, Oropesa, Mirabet, Montornes, eta Planako Kastellonen uriak menperatu ebazan

1.094ko urtean Aragoi ta Nafar errege izendatu eben, bere erregetza Aragoiko erregetzaren zabaltasuna esagura eban, geien erdi ta ekialdeko lurraldeetan Alkubierre ta Monegroseko mendikaterarte elduta.

1.096ko urtean I Pedrok, Saldubako Al-Musta´in mauritarrari Alkorazeko borrokan irabazita Ueskako uria menperatu eban.

1.097ko urtean Aragoiko I Pedro au Zid´ekin batera, Muhammad ibn Tasufin mauritarrak indar aundiko almorabidearen gudalozteak bialduta, len Zid´ek menperatu eben Balenziako uria ostera berrezkuratzeko, Baireneko borrokan zazkildu ebazan.

1.101eko urtean I Pedrok, Barbastro menperatu eban, eta Sariñena artuta Salduba erasotu eban.

1.104ko urtean Literako Tamarite inguratu eban eta errege semearen oiturak arautu ebazan. Mauritarren gudalozteak baiño, katolikotasunezko gudalozteak indar geiagoan sendotzen egoala, 1.104ko urte oretan Iraillaren 27 edo 30ean il zan.

1.086ko urtean ezkondu zan lenengoz Akitaniako Inesekin, eta euki zituzen seme biak, aitak baiño ariñaño il ziran, eta bere emazte Ines 1.103ko urtean.

1.097ko urtean Ueskan, Dagonillaren 16ko egunean ezkondu zan bigarrenez Bertarekin, Ueskako lurraldearen Galligerako lurrak eroan ebazanek ezkon sari lez, I Pedoren il ostetik urte batzuetan jaurkitu ebazanek, eta ezkontza onetatik ez ebalako seme alabarik euki, bere anai Alfonso igon eban Nafar-Aragoiko erregetzaren aulkira.

### **3.17. Bizkaiko 8n Jauna.**

1.093ko urtean I Lope Iñigez il zanean, bere seme III Diego Lopez, zuria esaten eutsoenak 1.093-1.124 urte bitartean artuko eben Bizkaitarren Jauntza, ta 1.121eko urtearen asieratik urte batzuk geroago abizen lez, Aroko erri tokiaren izena.

Aroko izena artzea, ez dau esan gura, eurak izan zirela Aroko erriaren sortzailleak, Xn. gizaldian Bilibioko agintarien babespean Aroko erri bazter orrek, bizitza eukelako.

IV Santxo Peñalengoak emon eutson Diegoren aita Lope Iñigori Bilibioko gaztelua jaurlitu egian, eta beragaz Aro ta inguruko lurraldeak, ia Miranda de Ebroraiño.

Lopeztarrak ortik aurrera, aundiak izan ziran Errioxako lurraldeetan, eta ez bakarrik ondore lez artzen ebazanagaitik.

Arotarrak, Nafarroako III Garzia Santxez eta bere seme IV Santxo Peñalengoaren erregetzazko aldibidetik artu eben Errioxako agintarien ardurak<sup>(1)</sup>.

Baiña, Gaztelako VI Alfonso guda bidez, Errioxako lurraldea mendetu ondoren, Arotarrak baztertu egin ebazan, eta Alfonso il zanean, bere alaba Urraka Gaztelako erregeña eginda, Aragoiko I Alfonso gudarariagaz ezkondu zan.

Urrakak, bere Gaztelako jabetza zaintzeko, Diego Lopez onen egi bide ta leialtasunaren zentzunezko serbitzu truke, Errioxa aldean euki eben ospeon bidez, ostera emon eutsozan lurralde orren ardurazko jabetzak.

Arotarrak artekari lez ortik aurrera, mailla aundiko ospedunak, aberats eta indartsuak biurtuko ziran. Bizkaitarren jauntzaz gain, Nafarroaren agintari aldian zentzuzko joan egin ebenagaz eta ortik aurrera Gaztelako jaurlintzaren eragipenera aldatuta, egingo ebazanarekin.

Lope iñigez *zuri* onen bizitzazko denboran, orduko mendezale erregeak, norkeriaren maltzurezko guzur naste bidez ekarten ebazan asmoak, edo ta aurka, sailean edo naasmaas borrokatu zan, eta danak begirune aundian artu bear izan eben euren aurrean, nai alde edo aurka jokatuta, ekandu aundiko gizon zentzuduna izan zalako.

Baiña baleike izatea, eta ni ziurtasunezko uste osoan nago, Arotarrak zentzu andiko gizonak izanez gain, Bizkaiko jauntzaren bidez, gudarako indar aundia euki eukela, eta edesti guztiko espainol aldeko edestilariak Bizkaiaren agiriak erre edo desagertuazo egiteagaitik, Bizkaitar agiririk agertu ez, egin ziran guda guztietan Euskaldun asko egon zirala.

Euskaldunak egon ziran bai, baiña Euskalerra erdian egoalako alde guztietatik, erregeak agintaritzazko maillan eta Mauritarren aurka katolikotasuna burutzeko Erromatik artzen eben nagusitasunetik, euki genduzan Jaunak, gugaz demokraziaren itzarmeneko oituragaz lotuta egon baziran be, beti egon ziran txeberazko sare orreitan arrapatuta, eta erregeen artean euren norkerizko borroka bidez, Euskalerritarren lurra bat edo bestearen mendean egonda, beti ibili giñan anai artean etenbako borroka baten.

Eta konturatu egin bear gara, Errioxa ta Aragoiko erritarrak denbora aietan Euskaldunak zirala.

Bestela, zelango zentzua dauka, Aragoiko erregeak XIIIIn. gizaldian Ojakastroko epaileari, euren epaiketetan Euskeraz egiela agindutea, erritarrak ez ebelako beste izkuntzarik jakin, ta Latiegitar Bizentek Ueskako agiritegian aurkitu eban XVIIIn. gizaldiko agerkaia, erritarrak Euskeraz berba egitea debekatzen eutson.

(1) Naiara ko erregetza esaten eutsienai batez be.



Dana dala, Bizkaiko Jauntzan eta Gaztelako jaurkintzan, Aroko leiñu au izango zan garrantzitzuena 276 urteetan, 1.093ko urtean III Diego Lopez de Aro eta gure jauntzan bigarrenak artu ebenetik, euren sendi bidetik, espainako errege 1.379-1.390 urte bitartean izango zan I Juanen eskuetan 1.369ko urtean amaitu zan arte.

Diego Lopez **zuri** au, Garzia Ordoñez kondearen arreba Maria Santxez´ekin ezkondata egoan eta lau seme euki ebazan:

-**Lope Diaz de Aro**, bere ondorengoa izango zana.

-**Gilo Diaz**.

-**Santxo Diaz**.

-Eta **Fortunio Diaz de Aro**.

III Diego Lopez Zuria, bigarrena gure jauntzan eta lenengoa Aro izenarekin 1.124ko urtean il jakun, eta Kukullako San Millanen illobiratuta dago.

### ***Nafarroako erregetza ostera artuta.***

**14<sup>a</sup>.**- I Santxez`tar Alfonso **Gudari edo Gerlaria** 1.073ko urtean Poleñinon jaiotako zan eta 1.134ko urtean Iraillaren 7an Aragoien il.

Santxo Ramirezen bigarren ezkontzan Rouzyko Feliziagaz euki eban bigarren seme ta I Pedoren anai ordea izan zana.

1.104ko urtean Iraillaren 27 edo 30eko egunean bere anai ordea I Pedro il zanean igon eban Aragoi eta Iruñako erregetzaren aulkira I Aragoikoa eta Vn Nafarroako lez.

Seme nagusi edo ondorengoa ez zalako izan, eta bere anai I Pedro errege zala, Aragoi aldeko añañamendietan Egindako<sup>(1)</sup> Ibarreña Siresako lekaidetxean ikasten egon zan Garzeztar Lope **erromesaren** irakasleagaz

Onak, erregetzan egin eban guztia, etenbako ospagarri bat izan zan, bere etorkizunaren ondorengoak, belaun aldiz belaunaldiko gudu eresietan abestuteko modukoak.

Kristau ta Mauritarraz etenbako borrokan ibili zan, bere izaeran nagusi zana ala ere, Gurtzearen gudarria zan.

Borroka gogorrak egin ebazan mauritarren aurka, bere erregetzaren lurraldeak euki eban baiño beste bestean zabalduta, Salduba edo Zaragoza mauritarrei kendu eutsonetik.

Gaztelako VI Alfonsoren alaba Urrakagaz ezkondu zanean, len onak indarkerian artu ebazan laterriak ostera berreskuratu ebazan.

(1) Egindako Ibarra = Valle de Hecho.



***I Santxeztar Alfonso Gudari edo Gerlaria Aragoi eta Nafarroako errege, Pradillako Franzizkok 1.879ko urtean egin eban giza-irudi au.***



*Au da San Pedro de Siresako I Santxezar  
Alfonsok ikasten egon zan lekaidetxea  
Ueskako lurraldean Auñamendiaren  
Egindako Ibarreña*

1.109-1.114ko urte bitartean eta Gaztelako Urrakagaz ezkondu eta egon zan bitartean,

Gaztela, Toledo, Nafarroa eta Aragoien agindu eban, Leongo Kaiserra eta erdiugarte onen edo espaina guztiko errege izendatu zan, arik eta Urrakagaz banandu zan arte, eta bere borrokak Kordoba, Granada ta Balenziaraiño eroan eutsoezan, mauritarrai Baltierran, Kutanda, Genil Subiko Anzulen, astintasun ederrak emonda.

Bere eriotzean, euki ebazan erregetzako lurraldeak Tenpleko Zaldun gulararien taldearen itzi gura ebazan, erreñuko zaldunak ez ebena gure eta jazarraldi andien ostean II Ramiro Lekaidea ipini eban Aragoiko errege, eta Iruñako Batzarrak Monzon eta Logroñoko jauna VI In Garzia Ramirez Berritzaillea izendatuko eben Nafarroako errege lez, ortik aurrera Aragoi-Nafar erregetza bananduta.

1.096ko urtean eta bere anai ordearen erregetzan eta gaztea zala, Alkorazeko borrokan Ueskako uria berrezkuratzen egon zan.

1.097ko urtean eta Zid'en laguntzan Balenziako lurraldeetan, Baireneko borrokan be egon zan mauritar Yusuf ibn Tasufinen almorabideari astiñaldi gogorra emonda.

I Alfonsok ez eban euki erregetzako ondorengotasunik, baiña bere anai orde I Pedro il zanean eta ondorengo barik euki zituzen seme biak 1.103 ta 1.104ko il ziralako, asken baten bera aukeratu eben Aragoi ta Nafar errege lez.

1.104ko urtean, I Alfonso errege koroatu ebanean, erregetzaren ondorengotasunezko arazoa agertu jakien, Alfonso 30 urtetik gorantza joan zalako eta bere anai Ramiro eleizarako ikasketak bakarrik euki ebazalako, bere ezkontza erregetzako arazo biurtu jakien.

1.105-1.106ko urte bitartean Santxo Ramirez eta I Pedro bere anai ordeak 1.101eko urtean Salduba inguruan eraiki ebazan gazteluak II In Al-Musta'in mauritar erregeari Saldubako uria kentzeko, sendotu ebazan.

1.106ko urtean Zaldunen Ejea artu eban, eta euren foruagaz ezarri ebazalako, or agertu jakien zaldunezko izen ori.

1.106ko urte onetan, Ebroko mendebalaren ibarrean Tauste eta Sadaba kendu eutsezan mauritarrei, ekintza orregaz ibar ori inguratzen ebazan bost erriakaz geratuta.

1.107ko urtean bere orde zko anai I Pedrok eukin menperatzeko gogoak eta ezinean itzi ebazalako, Literako Tumarite ta Literato San Esteban artu ebazan, ekintza orrekaz bere egoaldeko mugak Ebro eta Zinka errekekaz sendotuta.

1.108ko agiri batek esaten dau, I Alfonsok Aragoi, Iruña, Sobrarbe, Ribagorza, Pallas eta Araneko errege zala.

1.109ko urtean eta Gaztelako VI In Alfonso jakinda bere biziaren amaiera urbil egoala, Urraka bere alabea, Aragoiko erregeagaz ezkontzeko antolaketak asi ebazan, I Alfonsoren indarra eta onek gudarako euki eban trebetasuna bear ebalako mauritarren aurka, berak 1.108ko urtean Ukleseko borrokan mauritarrengandik artu eben astiñaldiagaz ta eukin seme bakarra be bertan ilda, naikoa euki ebalako.

1.110ko urtean Baltierra berreskuratu eban.

I Alfonso Urrakagaz ezkondu orduko, elkargo bat egin eben eukiko eben semearen gora beran, bera izan zedin Aragoi, Nafar, Gaztela, Leon eta Galiziako errege, Urrakak Borgoñako Raimundogaz euki eben Raimundeztar Alfonsoren, gero VIIIn Alfonso izando zan eskubideak errege izateko ezereztuta, aurrerantzean ainbat arazo ekarriko eutsozenak.

1.111ko Iraillaren 2an I Alfonso eta bere emazte Urrakak, Urrakaren semea VIIIn Alfonso amabost egun Galiziako errege izendatu orduko, Burgosen sinatu eben agiri bat, beragaz Oñako lekaidetxera emaitza on bat eginda, eta bardin egin eben Urrian Brieskako lekaidetxera beste ainbesteko emaitza emonda.

1.111ko urtean Iraillaren 17an, VIIIn Alfonso Raimundez izendatu eben Galiziako errege.

1.111ko urtearen Urrian edo Azaroaren illean I Alfonso, Portugaleko Borgoñako Enrike Gaztelako VIIIn Alfonsoren osabeagaz batera, Billangosen Ramireztar Alfonsoren alderdikoakaz borrokatuta, menperatu ebazan, eta olan apurtu ebazan Konpostelaren Santiagoko Gelmirez gotzaiñak egiten ebazan azpi jokoak.

Euki eben ondorengotasunezko arazoa ori, konpondu barik aundiagotzen joan jakien, IIn Paskual Aita Santuak euren ezkontza ezereztu arte. 1.112ko urtean IIn Paskual Aita Santuak I Alfonso ta Urrakaren ezkontzaren banaketa baiezteko, agindu bialdu eban, biok exkomunikatuta geratuko zirela eleizaren aldetik, ostera alkar egoten ba ziran, I Alfonso sinismen andiko gizon onek, Urraka betirako itzi eban, I Alfonso bere erregetzara joanda Aragoi ta Nafarroa jaurkitzeko eta mauritarrengandik Salduba askatzeko.

Ata guzti baiña, I Alfonsok Gaztelako errege izena aurrera eroan eban eta baita Leongo erreinutik oitura lez agertzen zan, erdiugarte edo ispaine guztiaren kaisertza.

Eta ez eben itzi berak erritu egin ebazan lurraldeak, ez eta bere ordezkioak jaurkitzen ebezan erri ta lurraldeak be, Euskalerra, Errioxa, Burgos, Soria eta Guadalajara bezela, Sigüenza ta Medinaceli Urraka il zanetik eta Tamaran egin ebezan bakezko batzarretan VIIIn Alfonsori itzulita 1.127ko urtetik.

1.114ko urtean Rotron bere kapitaiñak Pertxeko kondea izan zana, Muzkariako uria edo Tudela artu eban.

1.117ko urtean Muzkaria edo Tudelako lurraldeak berreztu ebazan mauritarrengandik, Fitero, Korella, Murtxante, Kaskante, Monteagudo, eta Zintruenigogaz geratuta.

1.118ko urtearen Epailan, Salduba Al Andaluzeko uri garrantzitsuena eta bere inguruan ainbat borroka bidez, askenean bederatzii illabetearen inguratuta euki ondoren, eraso gogor bategaz artu eban Saldubaren gazteluzko-yaure ori 1.118ko urtean Abenduaren 18an.

1.119ko urtean Fuentes de Ebro Alfajarin, eta urte orren Otsailan Muzkaria, Nafar erregetzak berrezkuratu eban azkeneko uria izan zana, ta Monkayoko larre edo Abel-bazka, Tarazona eta bere lurraldea, Errioxako Alhama ibaiaren ibarra Alhamako ibaiaren Zerbera buru dala, eta abar. Uri guzti oneik, Gaztelako erregetzagaz euki ebazan mugak sendotzeko egin ebezanak ziran.

1.119ko urtean ardurabage egon zan Soria erria bir eraiki eta bere lurraldeak erritu ebazan.

1.120ko urtean Ekaiñaren 17an, Kalatayud inguratzen egoala, ostera euki eban ezauntza, Almorabideak zelan Turia ta Guadalkibir ibaietatik Muzkarira edo Terueleko bi-

detik etorten zirala Salduba berriz askatzeko, eta Kalatayudeko ingurutasuna altzau ta Akitaniako IXn Gillermoren laguntzagaz I Alfonsok, Jiloka ibaiaren ibarreño Katan-gan aurkeztu ebazan almorabide orreik, ikaragarritzko sarrasketa eginda mauritarren gudozte orreikaz, mauritarrak Saldubako lurraldeetatik betirako bialduz.

Garaipen orren ostean Kalamotxa, Monrreal del Kanpo, bertan gaur dagon uria erai-kita, Kalatayud Jalo neta Jilokaren ibaien ibarrak, Bubierka, Aragoiko Alhama, Daroka eta Ariza artu ebazan Kutanda borrokaren ostean.

1.122ko urtean Beltxiten, Beltxiteko gudariaren anaitegia irasi eban, gurutzada sakra-tuetan egiten zan lez.

1.123ko urtean Leridano uriagaitik, IIIIn Berengertar Ramon Barzelonako kondearen aurka agertu zan, biok gure ebelako Leridano uri ori eta lerida inguratuta Gardeniko gazteluagaz geratu zan.

1.124ko urtean Almorabideak menperatu eben IIIIn Berengertar Ramon ori eta bere aldetik aske itzi eban Leridako uria menperatzea.

1.124ko urtean Monreal del Kanpon, *la Militia Christi de Monreal, Militia Caesaraugustana edo Monrrealeko anaidia*<sup>(1)</sup> irasi eban, beren eragipena Jiloka eta Muzkaria ingurua Segorberaiño izan zana. Bere burutakizunean Tortosa berriz artzeko elburua euki ebalako, Lurrarteko Itsasoaren sarrera eukiteko.

1.124ko urtean ta 50 urte euki ebazala, Al Andaluzen lurraldeetan be sartu zan Balen-tziako erreñuan sakon sartuta Benikadellerarte.

1.125ko urtean Balentziatik egoaldera joan zala, almorabidearen Granadazo uriari era-so eutson, bere asmoa Al Andaluzen biotzean uri katoliko bat eraikitea zalako, baiña uri barrukoak ez eutselako aterik zabaldu, Guadalkibirreko ibarretatik ibili zan al ebe-na menderatzen.

1.126ko urtean Epaillaren 10ean I Alfonso Kordobako lurraldea saskiltzen egoala, Ali ibn Yusuf'en seme Abu Bark'ek bere gudozteakaz Sebillatik urtenda I Alfonso ger-laria aurkitzeko, Genileko udalaren Subian, gaur Anzul izenagaz esagutzen dana eta Lucena ondoan aurkitu ebanean, bertan egin eben borroka ori, mauritarrak astintasan ederra artuta. Orren ostean Motril eta Malagako Belez'eraño eldu zan, eta ostera itzu-li zan aragoira Albarraziñeko mendikateen artetik.

1.126ko urtean Epaillaren 8an il zan Gaztelako I Urraka bere emaztea izan zana, 21 urte euki eban semea itzita, Leon eta Gaztelako ondorengo zana, eta ostera asi ziran borrokan Nafar-Aragoiko I Alfonso eta Leon-Gaztelako VIIIn Alfonso.

1.127-28ko urteetan, I Alfonsok Errioxa ta Soriako lurralde batzuk galdu ebazan, arik eta 1.128ko urtean Tamarako alkargoan I Alfonsok kaiserraren izena itzita, erri gaztelar batzuk Agreda, Almazan eta Soria bezela Aragoien eskuetan iraun 1.135eko urterarte.

1.127ko urtetik Zellako erria jendestatzen alegindu zan, ekintza orreik Pertxeko Ro-trouk bideratuta antza, eta lan orren orde, Korellako uria artu eban 1.127ko Azaroan.

1.128ko urteko Otsaillan Molina berrezkuratu eban, bere inguruan Kastilnueboren gaztelua eraikita, eta egoaldera joanda eta Guadalajarako lurraldean Traid menperatu eban, eta Dagonillatik urtearen amaieraiño Almazaneko uria sendotu eban Plazenzia-

(1) Mansión del rey celestial, esaten eutsoenari.

ren izena ipinita. Dueroko Berlanga be sendotu eban, eta Alfaro, Korella, Soria, Almazan, Gormazeko San Esteban, Aragoiko Molina, Traid eta Zella sendotzea amaitu ebanean, ego mendealetik Gaztelagaz euki ebazan mugak sendotu ebazan.

1.129ko urtean eta gaztelarrak alde egin ebanean, Balentzia gura eben berrezkuratu, Kulleran almorabideakaz aurkituta, I Alfonsok astintasun ederra emonda menperatu ebazan, baiña ostera iparrera joan bear izan eben eta bidean doala, iru urte ariñago Barzelonako kondea III In Berengertar Ramonek azpikeriz kendutako Monzon berrezkuratu eban.

1.130-1.131eko Frantziaren ego aldeko lagunari berak babesaren zorrak euki ebazanakaz Bearneko Gaston eta Foix ta Komingesekoari laguntzera joan zan Araneko ibarretatik Auñamendiak igarota, Akitaniako kondearen menpetasunetik askatzeko.

Ekintza onegaz, Akitaniako dukearen asmoak geratuta, onek Auñamendi osteko lurralde guztiak berentzat gura ebazalako.

1.131ko urte oso baten inguratu eban Baionako erria, eta urte onetan menperatuta euren foruak emon eutsozan.

1.131eko urte onetan eta Baiona inguratzen egoala egin eban bere azken naia, Jaungoikoaren alde egin ebana, Templarios, Ospitalarios ta Jeruzalenero Illobi Sakratuaren alde egin ebana.

*Ekintza onegaz bakarrik, baten bat konturatu leike, zelango itsutasuna egon zan katolikotasunaren aberritasunean batzangotzeko erlijioagaz, eta sinetzi ezin leikena, Jaungoikuaren izenean, norainoko sakratu mailletara igoten ebezan egiten ebazan sarraskitzailezko trsikantzak.*

*Bestela, sinetzi ote leikez, azkenai orreik ?.*

*Ez da lenengoa, eta ez da izango azkenekoa, gero ikusiko dogun lez.*

*Orregaitik gaur ulertu leike, ez dala erreza eritzi orretatik urtetea, 2.000 urteko sasi jainkotasunezko jokuak alboratu bear dabezalako, eta danok dakigu, fazizmoaren ERPE sakon orreik ez direzela errez kentzen, oraindiño ondo ebatuta dagozelako gizarte irabazkoi arlo batzuetan.*

1.131ko urtean I Alfonso Gaskuñan borrokatzen egoala, Bearneko IVn Gaston eta bere bigarrena izan zan Estebanek, Aragoiko ego ekialdean egon ziran borrokatzen almorabidearen aurka.

Maestrazgoa artu eben, azkeneko erasoetan baiña, mauritarrak Bizkondea il ebanean borroka euren aldera aldatu zan, eta beren burua moztu ondoren Granadara eroan eben bere burua aizta makil baten muturrean burua sartuta.

Asko ordaindu bear izan eben Gastonen gorputzagaitik, eta Saldubaren Pilarreko eleiz nagusian illobiratuta dago.

1.133ko urtean mauritarren eskuetan egon zan askeneko gaztelua Mekinezako uria inguratuta menperatu eban bera bakarrik, euskal bearnesak eta gaskoiaik euren etxetara joan ziralako.

1.133ko urte onetan Orta de San Juan berrezkuratu eban, Eskarp eta Morellagaz Aragoiaren mendebaleko mugak osotzen ebenak.

1.134ko urtean Ueskako lurraldearen Sariñenako errian aldatu eban 1.131kako azke-  
naia, I Alfonso katoliko aberrikoi itsu orrek.

1.134ko Uztaillaren 17an 500 zaldunekin Fragako gaztelua ikusten egoala, maurita-  
rren gudalozte bat gaztelutik urtenda euren gaiñera etorri ziran, euren artean triskantza  
aundia eginda.

I Alfonsok lortu eban iges egitea naita zauri sakonak euki, eta zauri orreik txarrera  
eginda il zan monegroseko Poleñino errian, Sariñena ta Grañen bitartean dagon urian,  
bere gorpua Montearagoneko lekaretxean illobiratuta.

Bere errege denboran ez zan egon beralakorik gudaren arloetan.

Bere gorpua ondarra birriten atara ebazan: 1.920ko urtean edestiko biltzar batera-  
ko eta 1.985eko urtean, bere ondarrak ikertzeko.

### 3.18. NAFARROAKO ERREGETZA.

15<sup>a</sup>.- Vn Garzia Ramireztar Juan *Berritzaillea*, Monzon eta Logroñoiko jauna eta  
1.134-1.150 urte bitartean Nafarroako errege.

VI Garzia Ramirez berritzaillea, Ramiro Ramirez Monzon eta Logroñoiko jauna ta  
Bibartar Elbiraren semea zan<sup>(1)</sup>, eta bai Kalaorrako Jaun Ramiro Garzearen biloba.

Nafartarrak Juan Ramiro Garzez au, Santxo Peñalengoa il zanean errege izendatu gura eben.

Au be, etenbako borrokan ibili zan.

Batak etxetik kanpora urtetan ebanean, bestea prest egoala etxe ortan sartzeko esan leike.

1.130eko urtearen baiño geroago ezkondu zan Vn Garzia ta Ramireztar Juan, Marga-  
rita L'Aiglegaz.

1.134an Olibako lekaidetxea eraiki eban.

Eta 1.134ko urtean, gotzai ta Nafar zaldunak egin eutsoen errege, I Alfonso Gerlaria-  
ren azkeniak kontuan artubage, eta nik uste dot geiago izendatu ebela errege, Nafa-  
rroa, Aragoiko lotuetatik banatzearren.

Gaztelako VII Alfonsok, truke egin gura eutson, Salduba eta bere ingurua, Logroño  
eta bere inguruagaitik.

Gaztelar saltzailleak baiña, Errioxa bere eskuetan geratu eban, eta Aragoiko lurraldea  
Ramiro lekaideari emonda.

Nafarroa, Gaztelar eta Aragoitarrak, euren artean erdibanatu gura eben.

Eta Leon ta Gaztelako errege VIIIn Alfonso Saldubako erritarren borondatezko men-  
pekotasuna artu ebanean, Nafarroa ta Gaztelako urruntasuna andiagotu egiten da, Aldi  
baten Nafarroako errege IIIIn Santxo Aindiaren jaurkintzan egoana.

1.137ko urtean Vn Garzia ta Ramireztar Juan, Nafarroako errege au, Portugaleko I  
Alfonsogaz alkartuta, Gaztelako VIIIn Alfonsoren aurka joan zan, naita beragaz emon  
eutson menpekotasuna euki.

1.139-1.140ko urte bitartean izenpetu ebazan bakeak.

(1) Bibar 'tar Elvira = Zid'en alaba izan zan.



1.144ko urtean Margarita L´Aiglegazetik alargundu zanean, Leonen Bagillaren 24an Gaztelako VIIIn Alfonsoren sasi alaba Asturiaseko Urrakagaz ezkondu zan, ortik aurrera Nafar eta Aragoiko erregeak Leon ta Gaztelako senidetasunean sartuta, Berengertar Ramon VIIIn Alfonsoren koñatu ta Garzia Ramireztar Juan VIIIn Alfonsoren suñe, biak onartuta VIIIn Alfonsoren menpekotasuna.

Ortik aurrera eta Nafarroaren erregetzari aurrera begituta, Gaztelako Trastamararen senidetasuna artuko eban, gero Nafar, Aragoi ta Gaztelarren artean, lenengo mallaren senidetasuna Artuko ebanak.

1.146ko urtean Nafartarrak, Tuesteko errian sartu ziran, eta VIIIn Alfonsok artekarien lanak egin ebazan.

1.147ko urtean, Vn Garzia Ramirez Berritzaille au VIIIn Alfonsoren alabeagaz ezkondu zanetik, beti lagundu eutson berrezkuratzeko lanetan eta urte onetan batez be, Almeriako ekitaldian, katolikoagaitik artuta geratu zana.

1.149ko urtean Vn Garzia Ramireztar Juan Nafarroako errege onek, Berengertar Ramonekin sinatu eben bakezko elkargo bat, Nafarroako I Blankagaz ezkontzeko baldintza euki ebena, naita katalana Aragoiko Petronilagaz itza emonda euki arren.

Baiña Nafarroako Vn Garzia Ramireztar Juan il zanean, ezan bete sinatu ebena.

1.150ko urtean Azaroaren 21ean Nafarroako Lorka errian il zan Vn Garzia Ramireztar Juan Berritaille au.

Nafarroako Vn Garzia eta Ramireztar Juan berritzaille au, 1.130eko urte ostetik Margarita L´Aiglegaz ezkondu, alaba- seme auk euki ebazan:

-VIIn Santxo Jakintsua, bere aita Vn Garzia Ramireztar Juan 1.150eko urtean il zanean, errege izando zana eta Gaztelako Santxagaz ezkondu egin zana.

-Nafarroako Blanka, 1.133ko urtearen ostetik jaio zana eta 1.151eko urtearen Urtarriaren 30ean Kalaorran, Gaztelako IIIIn Santxo Guragarriagaz<sup>(1)</sup> ezkondu zana.

-Eta Nafarroako Margarita, 1.150eko urtean Siziliako errege I Guillermo Txarragaz ezkondu zana ta 1.166-1.171ko urte bitartean Siziliako erregeordea izan zana, erriarrentzat maitagarria izan zalako.

Eta Vn Garzia Ramireztar Juan, Leon Gaztelako VIIIn Alfonso eta Gontrodo Perez maitaleakin euki eben Asturiaseko Urraka sasi alabeagaz bigarren ezkontzatik:

-Nafarroako Santxa, Bearneko Vn Gaston Bizkondeagaz ezkondu, eta 1.170eko urtean alargunduta, bigarrenez Larako Manrriketar Pedrokekin, Molina eta Mesako IIIn jauna izan zana, eta Narbonako XIIIIn Bizkondea eta Leongo IIIn Fernando erregearen etxezain nagusia zanakin ezkondu.

Eta Vn Garzia Ramireztar Juan onek, ez ezagutzen dan maitale bategaz, seme bat euki eban:

-Rodrigo Garzez Monteskgliosoko kondea, 1.167ko urtean Sisiliako IIIn Rojelioren sasi alabakin ezkondu zana, eta 1.172ko urtean il zana.

**16ª.-** VI Santxo Garzez *Jakintsua* Jimenatarren leiñukoa, aita Vn Garzia ta Ramireztar Juan, eta ama Margarita L´Aigleren bidetik, 1.130eko urtean jaio eta 1.194ko urtean Ekaiñaren 27an il, eta 1.150-1.194 urte bitartean, Nafarroa eta Iruñako errege.

(1) Guragarria edo itzarokorra = el deseado.



*Nafarroako VI In Santso Jakintsuaren argazkia*

***Bera izan zan Nafarroako lenengo errege, Iruñako erregetzaren izena kendu ebanak eta Nafarroarena artu.***

VI Santxo Garzez Jakintsuak, gazte igon eban erregetzara. Laster ikasi eban baiña, Gaztelatar eta Aragoiarren artean ibili ebezan maltzur guzurak, Nafarroako erregetza euren artean banatzeko ezerezean izten, Blanka bere arreba, VII Alfonso erregearen Santxo semeagaz ezkondata.

A ta guzti, eurakaz etenbageko borrokan ibili bear eban, eurak beti lez ibili ziralako.

Eta len, Frantzia ta katolikotasuna bakarrik euki ba eben etsai, Gaztela ta Aragoiarrak asmakizunezko talde orreitan kidetuta, lau bider aundiagotu egin jakozan larritasunak, VI In Santxok, erregetza kaskar bat artu eban, bere aita Vn Garzia eta Ramireztar Juanen eskuetik, beti erasotuta Leon Gaztelako errege VII In Alfonso ta Kataluña IVn Berengertar Ramonen bidetik.

Auek 1.140ko urtean eta Karrioneko elkargoa egin ebenetik Nafarroako erregetza euren artean banandutea gura ebalako.

Gaiñera, Aita Santuak ez eutsoen artzen errege lez, Aragoiko eta Nafarroako errege izan zanak I Alfonsok bere 1.131ko urtean Baionan idatzitako azkenaian, Nafarroako erregetza, Tenple lekaideentzat, Ospitalario lekaideentzat eta Jeruzalenen go Illobi Sakratuarentzat emon ebalako.

***Ortik aurrera Erromaren kaisertzazko katolikotasunaren aberkidezko batzango zale Aita Santu guztiak, Euskalerrak Nafarroagaz batera, Jainkoaren berezko legean daukazan aberritasunezko eskubideak kendu gura eutsozelako, eurak asmatu eben katolikotasunezko aberrikuntz fazizta orren mesederako.***

Orregaitik, Vn Garzia Ramireztar Juan, VI Santxo Jakintsua eta VII In Santxo Indartuari ***Rex deitu bearrean, Dux deitzen eutsoen*** nardatzeko edo arbuiozko norkearian.

Baita kontuan artuta, VI In Santso ***Jakintsuaren*** jaurkintzan, III In Zelestino Aita Santuak beren berun bulda edo idazkietan, beste erregeari ***rex*** izenagaz bialtzen ba eutsoezan agiriak, VI In Santsori, 1.194an Jorraillaren 13ko berun idazkian ta gero urrengo VII In Santsori bardiñ, dukearen izenagaz bialtzen eutsozala.

Batzuk esaten dabe, izenetan Aita Santuak egindako alde ori, erregeak katolikotasunezko lege bidez, edo erriak aukeratu egiten ebazanak, bata eta bestea zer direzan ezagutu zitezen dala.



***Nafarroako lurraldeak VI In Santxo Jakintsuaren denboran 1.154-1.194ko urte bitartean***

Eurak goitik berako aginduaren katolikotasunezko lege bidez *Rex*, Aita Santutik asita deitzen ebazala, eta erriaren bidez aukeratukoak *Dux*.

Zer esan gura dabe eritzi orregaz, berezkotasun guztia ezereztu egin bear zala katolikotasunean batzangotzekoaren alde ?.

Olan bada, *katolikotasunezko Rex itzori*, gizon lapurretatik datorrena da, eta *fazizta* gaiñera, 1.670eko urtetan odoljarioz aleginduta ekarri dabelako.

Mundu onetan agertzen jakun txar guztia, guk txarto egin dogulako da, ez dauelako mundu físico onetan gauza edo ta elemento guztiak egiten dabezan mugi aldi txikirenak izanda be, iturbururik ez daukenak, eta ordua da Jaungoikoak ipinitako legera aldatu gindezan, orainarte euki dogun nekaldizko eramana, naikoa izan dalako.

1.151ko urtean Urtarrillaren 27an Leon eta Gaztelako errege VIIIn Alfonsok, IVn Berengertar Ramonen adizkidetasunera urbildu gurean, Tulideneko elkargoa sinatu eben biak, Nafarroako erreinua euren artean banatzeko.

Eta iru egun beranduago Nafarroako VIIn Santxo, Leon eta Gaztelako kaisar VIIIn Alfonsorengana joanda, bere menpekotasuna berriztu eban, bere alaba sarrena Blanka, Gaztelako Santxo, VIIIn Alfonsoren seme neusiegaz ezkonduta.

1.157ko urtean Bagillaren 2an Nafarroako VIIn Santxo, Leongo errege VIIIn Alfonsoren alaba, Gaztelako Santxagaz ezkondu zan Palenziako Karrion de los kondezen, sei seme alaba eukinda.

1.157ko urtean beste alkargo bat egin eben Leon Gaztelako errege VIIIn Alfonso eta IVn Berengertar Ramonek, Nafarroako VIIn Santxoren erregetza bien artean bananduteko.

1.157ko urtean Dagonillaren 21ean il zan Leon eta Gaztelako errege VIIIn Alfonso, Nafarroako errege VIIn Santxori atsedean aldi bat emonda.

VII Alfonso Gaztelarra il zanean, ostera be berreskuratu ebazan galdutako lurraldeak, barriz galduta 10 urterako baitegian<sup>(1)</sup> itxi bear ebazalako. Eta Gaztelar ta Aragoitarrak ostera gudatan asi ziranean, berak Arabar eta Gipuztarrakin alkartuta aurre egin eutsen.

1.157ko urte orreitan eta Azaroaren 11n egin eben errege bere suin IIIIn Santxo, eta Nafarroako VIIn Santxok menpekotasunezko ziñezko itza emon eutson bere suineri.

1.158ko urtean Dagonillaren 31n inork ez eban itxaroten Gaztelako IIIIn Santxoren eriotzarekin, Gaztelako erregetza, bere iru urteko seme bakarraren eskuetara etorriko zala, VIIIIn Alfonsoren izenarekin ezagutuko zana, eta errege ordezkokoak egiteko Larako ta Kastroko etxearen artean sortu ziran eztabaidakaz, gaztelako erregetza makal ta lagun ezean aurkeztuta, Nafarroako VIIn Santxok ondo baiño obeto jakin eban aldi orretatik bere onurak ataraten, IIIIn Santxori emon eutson menpetasunezko itzetik alde egiteko.

1.162ko urtean Dagonillaren 8an il zan Kataluñako IVn Berengertar Ramon, Aragoiko erregetza eta Bartzelonako konderrriak bere Petrolina emaztearen eskuetan itzita.

1.162ko urtearen udagoinean Nafarroako VIIn Santxok, Gaztela erasotu eban gudutoki guztietatik, Errioxako zati bat berentzako artuta.

1.163ko urtean, gudalozte bat bialdu eutson Lobo erregeari, almohadesen aurka egiten egon zan borrokan laguntzeko, eraso aldi orretatik, trebetasun edo zuurtasunezko<sup>(2)</sup> aldira aldatzeko.

(1) Baitegian = en depósito. (2) Trebetasun edo zurtasunezko aldira aldatzeko = pasar de una actitud gerrera a una diplomática.

1.164ko urtean Aragoiko Petronila erregiña, zazpi urte euki eban bere semearen eskue-tan itzi eban bere erregetzaren ordezkotza, II In Alfonsoren izenagaz esagutuko zana, eta Nafarroako aitite VI In Santxori beste arnas aldi bat emon eutsonea, bere erregetzaren zabaltasuna lortzeko.

13 urteko elkargo bat sinatu eban Nafarroako VI In Santxok jakintsuak Aragoiko errege ordezkokaz, eta orregaz sendotu eban ekialdeko muga, Gaztelari erasotzeko.

Eta emen aldatzen dau VI In Santxo Jakintsuak Iruñako erregetzaren izena, Nafarroaren izenagaz.

1.165ko urtean Urtarrillaren 28an Nafarroako VI In Santxo erregeak, Leoneko errege II In Fernandorekin, Tudela edo Muzkariako alkartea sinatu eban.

1.167ren urteko Urrillan Gaztelagaz, bake une bat sinatu eban.

1.168ko urtean Abenduaren 19an Aragoiko II In Alfonsorekin, erabagi batera eldu ziran, mauritarren jabetzatik artzen ebazan lurraldeak, bien artean banatzeko.

1.169ko urtean Azaroaren 11n, Gaztelako VIII In Alfonsok 14 urte bete zituzenean, bere adiñetara eldu zala aldarrikatu eban, eta Gaztelako erregetza bereala sartu zan orekazko egokitasunera.

1.170eko urtearen Ekaiñan, Gaztelako errege eta Aragoiko erregeak, Ingalaterrako II In Enrikeren bitartekoakin Sahaguneko alkargoan, edozein etsaien aurka bien arteko laguntza erabagi eben, Tulideneko alkargoan artu ziran erabagien baieztasuna esangura ebana, eta orretarako, ezkontza bi antolatu ziran: Gaztelako VIII In Alfonso, Ingalaterrako erregearen alabeagaz Planjeneteko Leonorregaz ezkontzea, eta Aragoiko II In Alfonso, Gaztelako erregearen izekoa zan Gaztelako Santxagaz ezkontzea, erabagi orregaz 1.157ko urtean Leridako alkargoan artu ziran erabakiak beteta.

Gaztela ta Aragoi ta Akitaniako dukaterriaren alkartasunagaz<sup>(1)</sup>, Nafarroako VI In Santxo ogitarteko baten antzera, ostera geratu zan inguratuta, eta ararte euki ebazan aberats adiskide batzuk, Aragoi ta Gaztelako aldera aldatu ziran.

1.173ko urtean Gaztelako VIII In Alfonso, Nafarroa erasotzera aldatu zan ezberdiñetako alditan, eta laster berrezkuratu ebazan 1.162ko urtean galdu ebazan lurraldeak.

1.173ko urtean lenengo eraso aldian, agiri baten irakurtzen da zelan Urtarrillaren 27an Almazanen egon zala.

Beste Uztaillaren 31ko agiri baten, zelan Nafarroako eraso gogor baten ostetik, Enzi-zotik aldatu zirala.

Eta lenengo gudaldiaren baiño gogorragoa izan zan bigarren gudaldian, udagoienean antolatu zana zelan Urrillaren 23an Iruñaraiño sartu zan, eta Abenduaren 10ean bere gudalozteak Burgosera itzuli zirala.

1.174ko udabarrian gaztelar ta aragoitarrak, beste gudaldi bat antolatu eben Nafarroaren aurka joateko, eta Uztaillako illean Aragoiko II In Alfonsok, Milagroseko gaztelua erasotu eta deuzetu egin eban, eta Gaztelako VIII In Alfonso beste aldetik, Nafartarren gudalozte ezereztu eban eta Urrazen uri ondoan Legineko gaztelua inguratu eban, bertan Nafarroako errege VI In Santxo egonda, eta estutasun aundiakaz alde egin eban.

(1) Akitaniako dukea, Ingalaterrako II In Enrike izan zan.

Eta Dagonillaren 15ean bien gudalozte oneik Burgosera itzuli ziran.

1.175-1.176ko urte bitarean, beste gudaldi bi egin ebazan Gaztela eta Aragoiko erregeak. Lenengoa udan, Gaztela eta Aragoiko gudalozteak alkartuta. Eta bigarrena udan izan zan, Gaztelako gudalozteak bakarrik borrokatuta, banaketa onek gudarte bat ekarrita.

1.176ko urte orretan eta Dagonillaren 25ean Nafarroako VI In Santxo ta Gaztelako errege VIII In Alfonsok amaitutzat emon ebezan borroka orreik, eta zazpi urteko gudar-te bat siñatu eben Ingalaterrako II In Enrrikeren artekaritzagaz, ia lortzen eben euren arteko ezberdintasunak konpontzea.

1.177ko urtean Epaillaren 16an agertu zan epaiketaren erabagitasuna, eta gudaz lortu ebezanak 1.158ko mugatara eroan bear izan eben, Nafarroako VI In Santxok, Logroño, Navarrete, Entrena ta Ausejo itzuli bear eutsoezan Gaztelako VIII In Alfonsori ta Gaztelako VIII In Alfonsok Nafarroako VI In Santxori, Portillako uria, Legin eta Don Go-diñeko gazteluak eta 10 urteko epean urtero, 3.000 marabedi.

1.179ko urtean Jorraillaren 15ean Nafarroako eta Gaztelako erregeak Najera eta Logroño bitartean batu ziran, euren erregetzazko mugak egokitzeko, ta eukezan eztabaidak bakezteko.

Eta emen sortu zan gauza arrigarriena, ez jakola agertu iñundik iñora Nafarroako VI In Santxoren menpetasuna gaztelako erregeari, Gaztelako III In Santxo il zanetik aienatu zana.

1.180ko amarkada baketsua izan zan, Nafarroako VI In Santxok bere errientzako antolakuntzazko arduratan sartuta.

1.180ko urte inguruan, Donostia jendezkatu edo bir erritu eban, Iakako fueroak emonda eta ongarriko lege arauan erantsita.

1.181ean Gazteiz deritson inguruan Bitoriako uria eraiki eban, Logroñoren eratorriko<sup>(1)</sup> fuero ekartsuak emonda.

1.190eko urtean Iraillaren 7an, Nafarroako VI In Santxo eta Aragoiko errege II In Alfonso Gaztelatik urrunduta egon zanagaz, Borjano errian sinatu eben laguntasunezko alkargo bat, Gaztelako VIII In Alfonsok eraso baten bat egiten ebanerako.

1.191ko Uztaillan Nafar Aragoiko erregeak osterata batzen dira Tarazonako urian, euren adizkidetasuna baiezteko.

1.194ko urtean Bagillaren 27an il zan Nafarroako errege VI In Alfonso, eta bere gorpua Iruñako eleiz nagusian illobiratuta dago.

***Nafarroako VI In Santxo Gaztelako Santxagaz ezkondu, sei alaba-seme euki ebezan:***

-Berengela, 1.165eko urtean jaio eta 1.230eko urtean il zana, Ingalaterrako errege Bildurgabeko Biotza<sup>(2)</sup> euki eban Rikardogaz ezkondu zana.

-VII In Santxo Indartsua, 1.170ean jaio ta 1.234ko urtean il, 1.194-1.234ko urte bitartean Nafarroako errege izan zana.

-Blanka, 1.177ko urtea jaio ta 1.229ko urtean il, Txanpainaiko III In Teobaldogaz ezkondu zana eta I Teobaldoren ama, gero Nafarroako errege izando zana.

-Fernando 1.207ko urtean il zana.

-Eta Teresa ta Constanza, gaztetan il zirenak.

(1) Eratorriko = derivado. (2) Bildurbageko biotza euki eban Rikardogaz ezkondu zana = casada con Ricardo Corazòn de leòn rey de Ingalterra.

### 3.19. *Emen, gogarketa labur bat egin bear dogu.*

1.150-1.194 urteetan VI In Santxo Jakintsuaren errege denboran agertzen gara, gure Euskalerrri ta izkuntza aunditasun guztiaz *Lingua Navarrorum*, eta Iruñako erreñuari *Reino Navarrorun* izendatu ziranak.

Zergaitik baiña, aldarrikapen orreik ?.

Erlijio bidez katolikotasunezko lateraren indarragaz, Nafarroako gorte edo erregetxean aolku edo argibide bat bera esanda be, ez zalako sekula idatzi euskaraz, eta latinez ez bazan idazten, erromantzezko latinkumean idazten zan, latin menperatzaille ori katolikotasunaren batzangotzeko ikur bat izan zalako.

Kristoren izenean asmatutako katolikotasun ori erlijio lez ezartzeko, Jainkoak Izadi oneri bereztu eutsozan legearen guztiz aurkakoa da, aberetasunetik asita gizakume jai barri guztietan baituta daukaguzelako Jainkoaren zentzuzko lege orreik.

Eta premitasun edo larritasunezko leian agertuta, ez ziralako atzeratu, aurrerantzean neurri gogorragoak artuta inkisizio edo fede zaintzaren zigortasunezko suteakaz, gurutzada sakratuekaz eta egon ziran edo al eben guda tresneri guztiekaz, Europako gizarte guztiaren edestia, odoljarioz ekarri eban.

A ta guzti be, euskerearen sendokuntza galtzen joan arren, errian baiño, goortetan edo erregetxetan joan zan geiago galtzen, erriarena ez dalako aiñ errez galtzen, XVIIko gizalditik aurrerantza euskerea, ebrai izkuntza ta mauritarrena sinesgaitzazko zabal-kundean ezarri ebezalako.

Ortik agertzen dira, geroago guk be ainbeste bider entzun doguzan gure euskeraren aurka azpizkeriz ta bai maltzurkeriz iruzurtizko esaerak: *hable usted en cristiano* eta abar.

Baiña arrigarritu egiten nauena, zergaitik ez ote dabe esaten: *“hable usted en katoliko”* Jesusen irudi ta izena euren asmakizunezko zikinkerietan sartu barik ?.

Gauza onekin apur bat konturatzeke esan bear dogu: 1.200engo urtean Gaztelako erregeak Ojakastrori, Fueroak emon eutsozala, epaiketa guztietan euskerea erabili egien, Ojakastroko erriak ez ebalako beste izkuntzarik jakin.

Emendik aurrera gero ta argiago ulermenduko dogu, euskaldunak Europa maite onetan eta zaarrenak izateagaitik, oso ezagunak izan garela beti, eta erriak nai erregea nor beren errikoa edo atzerriko erregeakaz itzarmen edo elkargotu egiten ba ziran, euren nortasunezko legeen babeserako alkartzen zirala esan bear da, katolikotasunezko sare orreitan atrapauta egoteagaitik, ez gendulako irten biderik.

1.200eko urtean Araba, guda keiñuz gaztelatarren gaitik menperatua izan bazan be, 1.332ko urtean Arabarrak beartu eben Gaztelako erregea euren Jauna izan zedin.

1.224ko urtean Bizkaia, Nafarroako elkargotik banandu zan.

Zoritxarrez baiña, 1.370eko urtean amaren Aroko Juana Manuelaren ondorengotasunetik gure jauntza Trastamara leiñuzko Arotar Juanen eskuetara aldatu zan, eta 1.379ko urtean, bere buru gaiñean gaztelatarren koroia ezarri eutsoenean, Bizkaia, Gipuzkoa, ta Arabako jaunek, Gaztelako erregeak izan dira, 1.839ko urtean Agorrillaren 31n Esparterok Bergaran, Euskalerrria oinpean menderatu arte.



Emen aitatu egin bear doguna, Gaztelatarren erregeak, Nafarroako erregeak baiño obeto aituten ebala euskal askatasunaren egarria, Nafarroako erregeak eritziz katolikotasunezko legeakaz nastuta egotearren, naita barneko eritziz demokrazizko askatasunezkoak izan ba ziran be, *beart arazleen premiñazko, indar, edo ta beartzekoak zirala*.

Orregaitik Obanoseko zaldun Nafartarren erantzuna erregeari: “*ni zure beste, danok batera zu baiño geiago*”. Aztu barik, orduan danak Euskeraz egiten ebela.

Orregaitik gure Euskalerriko laterrietan, batzangotasunezko babesak eta Jaurkintzazko ekintzak, beti izan diralako *Foruko legeen* alkargo bidez, gure erri bereziko jokabidearen *une* askatasunaren zentzuzkoa izan bear dau, bestela ez da ulertzen inñundik inñora begituta be.

### 3.20. Bizkaiko 9n Jauna.

Jakin daigun zelako garrantzi aundia euki eben gizon onek, nai Bizkaiko jauntzan eta Gaztela eta Naiarako Jaurkintzan, aurkitu dodazan zertzelada geienak aurkeztuko dautzuedaz.

1.124ko urtean III Diego Lope Zuria Jauna il zanean, bere seme IV Lope Diaz de Aro izan zan Bizkaitarren Jauna 1.124-1.170eko urte bitartean.

Iturriza ta Labairuren liburuetatik artuta, Lope Zuria birritan ezkondua egoala esaten dau, Menzia, Arias kondearen alabagaz ezkondu zala leenengoz, eta Aldonza Rodrig ez andrea, Rodrigo Fernandez Kastroko kondearen alabeagaz bigarrenez.

Aroko Diego Lopez izan zan leenengo semea, Bizkaiko Jauntzan bere ondorengoa izango zana.

Aroko Lope Lopez, gizon aberatsa gaztelanian, eta erregearen agiriak baieztu egiten ebana.

Aroko Santxo Lopez, Kalaorrako Eleiz Nagusiaren epaitegiko batzarkidea<sup>(1)</sup> izan zana.

Aroko Rodrigo Lopez, gaztelanian gizon andikia.

Aroko Martin Lopez, gaztelanian gizon andikia.

Aroko Pedro Lopez, gaztelanian gizon andikia.

Aroko Alonso Lopez, gaztelanian gizon andikia.

Aroko Urraka Lopez, Leongo II Frnando erregeagaz ezkondu zana.

Aroko Menzia Lopez, ezkondua eta kondesa izan zana.

Aroko Toda Lopez, abat andre izan zana.

Aroko Aldoza andrea, 1.169an bere aita Aroko Lopezek, Errioxako Kañasen eraiki eben Santa Maria lekaimetxean abat-eme izan zana.

Eta Aroko Lope Diaz, Siguenzako gotzaia izan zana.

1.122an, Diego Lopez Zuria bere aita il baño urte bi lenago, VII Alfonso<sup>(2)</sup> gaztearengana joan zan umajea<sup>(3)</sup> ta beren serbitsua eskeintzera, eta 1.123an, Aragoiko I Alfonso gudarariaren eskuetan egoan Burgoseko gaztelua berrezkuratzen lagundu eutson.

1.134an, Nafarroa eta Aragoiko errege I Santxeztar Alfonso *Gudalaria* il zanean, Nafarroan 1.134ko Urrian V Gartzia Ramirez *Berritzaillea* aukeratu eben errege, Araba, Gipuzkoa eta Durango aldeagaz batera, eta Aragoin, Ramiro *Lekaidea*.

(1) Arcediano = Juez del cabildo de la catedral. (2) VII Alfonso = 1.105-1.157 urte bitartean errege izan zana.

(3) Umaje = pleitesia.

Baiña, Gaztelako errege VII Alfonso, urrengo urtean Kaisar Jaun<sup>(1)</sup> izendatuko ebela arro, ta Nafarroa ta Aragoiko erregetzaren jabe eskubidea berak eukala siniskoi, Errioxa osoan sartuta, danagaz jabetu zan, Aroko Lope Diaz Bizkaitarren Jauna ta bere anai Santxo Diazen laguntzagaz. 1.135ean Anai biak egongo ziran Leongo erregetxean VII Alfonso *kaisar* koroatu ebenean. 1.137an, IV Lope, Gaztelako VIIn Alfonso erregearen alde egon zalako, *Nafarroako VIIn Garziaren aurkako borrokan*, Bizkaitarrak kendu eben jauntzatic eta Nafarroako erregeagaz alkartu ziran.

Arotarrak, sarri eroan eben Gaztelako errege bigarren, ordesko izatea edo ta Alferezgo agintaritza.

Ararte ziranen artean danen gaiñetik nabaritu zana baiña, 1.157ko Dagonillaren 21ean VII Alfonso ilda, ta bere seme III Santxo *Itxarokorra*<sup>(2)</sup> esaten eutsoenai izendatuta, Aroko Lope Diaz, izan zan Gaztelako erregetzan bigarren edo alferazgoko agintaritza eroan ebana.

1.158ko Iraillan edo Urrillan il zan Gaztelako errege III Santxo *Itxarokorra* eta Gaztelako erregetzaren agintaritzan, Kastro ta Larako etxeak, bekaizkeri bidetik eztaibada gogorretan ibili ziran lez, Aroko Lopezek ez dauka aipamenik aldi onetan.

1.162an agertzen jaku, Gaztel-Ugatxeko San Juan eleiza lekaidetxea biurtu gurean, egiten dauan emaitza gaitik.

1.162ko urte onetan, Aroko Lopez Diaz onek, Bizkaiko Jauntzaren gain, Naiara, Ojakastro, Gaztela zarra eta Trasmieraren jaurkintza euki eban, eta Kastro ta Lararen bekaizkeri bidez sortzen eutsezan eztaibadak Gaztelako jaurkintzan bere aurka egon ziran lez, alango gauzarik ez eban onartzen, eta beren ardurazko jabetzak zain geratu zan.

III Santxoren semea, VIII Alfonso<sup>(3)</sup> *Ona* esaten eutsoenai, 1.157-1.214 urte bitartean izan zan Gaztelako errege, eta 1.168an Toledon Koroatu ebenean, Leongo errege II Fernando bere osaba, Toledon bertan inguratu eban.

VIII Alfonsok gero, nai ta 13-14 urte baiño euki ez arren, Zurita berak inguratu eban, eta Zurita menperatzeko beren zaldunai deituta, oneik, Aroko Lope Diazeri ez eutsoen ezer esan, Kastro ta Lara gaztelar etxeok euki eutsen bekaizkeriagaitik.

Lope gure Jauna baiña, jakiñerazita, bera joan zan batu ebazan Bizkaitar Zaldun ta gudarmitillakin Zurita inguratuta egoan lekura, eta erregeari eskatu eutson, aundieneko arrisku lekuan ipini egiala.

Lope Diazek, ikasbide ederrena emon eban guda ori garaipendu ondoren.

Lope Diazek, VIII Alfonso diru aldetik euki eban larritasunagaz oartuta, eskeiñi edo ordaindu bear eutsozan diru, edo ta guda ondakiñetik artu bear eben zatitik, ez eutson artu ezer.

VIII Alfonsok, bere basailu edo menpekoa izatea gaitik Naiarako erregetza esaten eutsienai emon eutson maiztergo edo feudopean, eta ortik esaten eutsen Nafarroako Lope Diaz kondea. Bai, betirako Aroko iribildua bera eta beren ondorengoai emon be.

1.169an Errioxan, Kañaseko zisterzienzen lekaimetxe ta eleiza eraiki eban.

Dirua be atara eban, eta armarrarian otso bi edergarrian irarrita euki ebazalako, txanpon diru orrei *Lobiseko* izenagaz ezagutu ziran. Gero otso bi orreik Bizkaiko armarrarian irarri ziran Gernikako aretx ondoan.

1.170eko Lorailaren 6an Siguenzako Gotzaindegian istripuz jausita il zan, eta Naiarako Santa Maria erregearen lekaidetxeko zimitorioan<sup>(4)</sup> illobiratuta dago.

(1) Kaisar-Jaun = emperador. (2) IIIIn Santxo itxarokorra = Alfonso VIII el deseado. (3) VIIIIn Alfonso Ona Gaztelako erregea, = 1.155-1.214ko urte bitartean bizi zana. (4) Zimitoria = claustro de la iglesia.

### 3.21. Bizkaiko 10gn. Jauna.

Aroko Diego Lopez *Ona* esaten eutsoenai izan zan urrengo Bizkaitarren Jauna 1.170 1.214ko urte bitartean, eta Rodrigo Jaun artxapezpikuak<sup>(1)</sup> esaten dauan lez, Aroko Diego jauna, indartsu, zentzunduna, gudaria, aunditasun andikoa, eta espainako aundikien artean andiena, izan zala.

Aroko Lope Diaz bere aitak, jaurkitzeko itzi eutsezan lurraldeak baiño geiago zabaldu ebazan, eta 1.180ko urtean Bizkaiko Jauntzaren gain, Bureba, Errioxa, Gaztela-zarra, Balpuesta, Belorado, Grañon, Kanpooko Agilar, Monteagudo, Logroño, Soria, Kalao-rra, Naiara maiztergoan<sup>(2)</sup>, Gaztelan ibar-yaurerri<sup>(3)</sup> aundiena, eta Gaztelako errege-tzaren alferzagoa euki eban.

Egon ziran erregetza guztien andiena izan da, alkartuta egon ziran erregeai ez eban euki ezeren bildurrik arpegia emoteko, eta banan banan, Leon, Gaztela, Nafarroa eta Aragoiko erregearen aurka egiteko.

Bizkaiko Jaun Aroko Diego Lopez *On* onek, orduko denboran aĩn gizon garrantziduna izan da, eta erregeak katolikotasunezko garaipenak lortzeko, Mauritarrakaz etenbageko borroka baten egonda, ez eben euki urten biderik borroka aietatik aldentzeko. Eta alan ikusten dogu, Gaztelako VIII Alfonso erregeak eskatuta, 1.212an Tolosako Nabasetan egin zan borroka nagusi orretan.

Aroko Diego Lopez, Maria Diaz edo Manrrique de Lara, Nuño Lara kondearen alabegaz ezkondu zan lenengoz, eta izeneko IIIIn. Aroko Lope Diaz, *Suar-Buru*<sup>(4)</sup> esaten eutsoen semea euki eban, Bizkaiko Jauntzan bere ondorengoa izango zana.

Maria gazterik il jakon eta Ruiz de Azagratar Pedoren alaba Pereztar Andre Todagaz ezkondu zan bigarrenez.

Onegaz, euki ebazan seme-alabak oneik dira:

- Urraka andre, Larako etxearen Albaro Nuñezegaz ezkondu zana.
- Maria andre, Larako etxearen Gonzalo Nuñez kondeagaz ezkondu zana.
- Menzia andre; eta Pedro Diaz.

1.177an Aroko Diego Lopezek Toda bere emazteagaz, Naiarako Santa Maria erregearen lekaidetxea aukeratu eben euren eriotzeko orduan gorpuak illobiratzeko, diru asko emonda.

### 3.22. Itz edo taket artean esan bear dotena.

**Len:** Europa, beti izan dala berezitasunezko legetik kanpo, batzangotutako gorputz bat, 325eko urtean Nizean siñezkintzatuta ipini zanean, asmatu zan katolikotasunezko elburu ori, danok Aita Santu ta kaizar baten mendean bizi gindezan, Europako dan guztia alkarlotu eben eritzipe orreitan.

Eta guzti au ziurtzeko ez da bear besterik, inkisiziozko fede zaindi santua ta Gurutzeko guda sakratuak euki eben oñaztapena, lortzen ziran aurrerakuntza edo bilbakuntza<sup>(5)</sup> guztiakaz ikusi baiño.

Orregaitik, Europaren errien arteko politikan, erlijio, edo ta ekonomi aldeko arazoak konpontzeko, Errroma edo ta Estraburgosera joatea, eurakaz zer ikusi ez daukan batek edo alderdi baten arazoak epaitu dagiazan, ez da gaurkoa bakarrik.

(1) Artx-apezpikua = arzobispo. (2) Maiztergoa = feudo. (3) Ibar-yaurerri = merindad. (4) Suar-Buru = cabeza brava. (5) Aurrerakuntza edo Bilbakuntza = evolucion.

Katolikotasunaren eleiz batzarrakaz alde batetik, eta Labairuren bigarren liburuan 162ko orrialdean esaten dauan lez: 1.176an, erregeak be norkeriaren bidez eukiten ebazan eztaibadak, alderdibageko errege<sup>(1)</sup> batek epaitu egiten ebazala<sup>(2)</sup>.

Labairuren liburuan dakarrena baiña, zelan bete, errege guzti orreik katolikotasunean alderdikidetuta eta bereztasunaren aurkako guzur baten gaiñean zaldikatuta egon ba ziran ?.

Gura bai, berezko baitaren arrazoiak alderdibagekeri berori eskatzen dauelako, baiña nora joan Euskalerrriaren demokrazizko askatasunera izan ezik ?.

Europako errege guztiak, nai Alemanak, Ingeles, Frantzez, Italiar, espaniar eta abar, danak izan ziran, Euskalerrria izan ezik, katolikotasunean batzango zaleak.

Eta orren esan naia, nortasunbageko Europa baten billa ibili dirala beti esan gura dauan lez, nun aurkitu alderdibageko gizon ura ?.

Gaurko Europa ikusita, naita ez emon bear jakie Europatarrai euki bear daben erri ta gizakiren nortasuneko ardurak, euren eskubidezkoak izanez gaiñ, mundu físico oneitan, sekula ez dogulako ikusi egazkin bat bultz egille barik.

**Bigarren:** Jakin daigun zelako maltzur jokia egiten eben guztiz sartuta egon ziran espainol edestilariak, katolikotasuneko batzangotasun alde, Labairuk liburu oneitan nor guzurtatu<sup>(3)</sup> egiten dauan geien aurkeztuko dautzuet, euren ikasketak eta bizitzazko maixutasunean idatzi ebazanek aurkeztuta, baita Aroko Diego Lopezeri buruz, Labairuk gezurtatu egiten dabena.

### 3.23. *Labairu eta Goikoetxeatar Estanislao Jaime.*

Delfin de Labairu eta Monet´tar Nikolas, Filipinaseko Batangas eskualdeko guda jaur-lari, eta Bilbaoko, Goikoetxea ta Lezeatar Bonifasia Antoniaren semea izan zan.

1.845eko Lorailaren 7an Batangasen jaioa, eta 1.904ko Urtarrillaren 22an Bilbaon, birietako miñagaz il zana.

Filipinasetik aita-ama eta iru anaiak Bilborako bidean itzultzen zirala, aita il jakien.

Lenengo ikasketak Bilbaon, Gazteiz, Burgos eta Bartzelonan eginda, 1.871n Toledon, eleizaren ikastetxe nagusian, eleiz araudietan maixu mailla artu eben eta 1.872ko urtean apaiz egin zan.

Orduko denboran egoan erlijioaren politikazko eztaibadagaitik, albizaritzaren berri idazlearen eragipeneko indarrak deituta, Eleiza, Euskadi eta Bizkaiari buruz, ordaindu ezinezko ainbat gauza idatzi ebazan, artean, nik aurrean daukat **HISTORIA GENERAL DE BIZKAI**A liburu eder au dala.

### 3.24. *Llorentetar Juan Antonio.*

Espainiako idazle ta apaiza, 1.756ko urtean Logroñoko Rincon del Soton jaioa eta 1.823ko urtean Madrillen il zana.

Kalagurriko apaiz ta Bikario Nagusi, eta ezereztu gura eben inkizizioaren, idazkari nagusia izan zana.

(1) Europako errege guztiak senitartekoak izan arren, Berezko-Legeak beartuta, erdiko izatea eskatzen daualako. (2) Frantzia edo ta Ingalterra´ko erregeak, Nafarroa eta VIII. Alfonso gaztelarren arteko arazoak konpontzeko. (3) Guzurtatu = refutar.

I Bonapartetar Joseren jaurlintzan laguntzaille izan zana, eta 1.792ko urtean Fuero juzgoaren legea sortu ebana.

1.818an Frantzez izkuntzan espainako inkizizioaren ikertutako edestia, 1.822ko urtean Gaztelera itzuli ebana, eta *Portraist politiques des papes* idaztearren Frantzitik kanporatu egin ebana, eta abar.

**Labairuk Llorenteri arrazoi aundiekin**, Maltzur guzurti, edo Eskerniatzaille jokuan arrapatutako erruduna dala esaten dautso.

Eta bere guzurtapeneko lanean itandu egiten dau: **Gizon jakintsu batek, zelan euki leukio Euskalerraren Euskereari eta Bizkaitar izatasunari batez be, ainbeste gorroto.**

1.202-1.206ko urte aldi illunak ziran Diego Lopezeri buruz, Garibay, Zurita ta Moretek, urte orreitan gertatu zan guztia 1.206ko urtean kokatzen dabena.

Labairuk dagozan zeaztasun gitxigaz, 1.202, 1.203, 1.204, 1.205eko urteetan kokatzen dabezanak.

Dana dala, gertakizun oneik, Diegoren arreba Aroko Urraka Lopez alargundu zanean asi ziran.

**Moret eta Garibayk auxe esaten dabe:** Gaztelako VIIIn. Alfosoren semea, Leongo errege II Fernando il zanean, onen semeak, Urraka Lopez bere emazteak euki ebazan jabetzazko ondasunaren billa asi zan indarkeriz, eta Aroko Diego Lope bere arreba babestera joanda, Leongo errege IXn. Alfonsogaz borrokatu zala.

Gaztelako VIIIIn. Alfonso, Leongo IXn. Alfonsoren lengusua izanda, oneri lagundu eutson, eta Aroko Diego Lopezek Gaztelako erregetzatik urrunduta, Nafarroako erregetzara urbildu zala.

VIIIn. Santxo indartsuak, Diego, Lizarran babestu eben, eta onek Lizarratik Gaztelarrak zirikituta, Gaztelako VIIIIn. Alfonso eta Leongo IXn. Alfonso lengusu biak Lizarrara etorri zirala Diego zigortzen.

Baiña guduxkaren alegin batzuk eginda, eta Gaztela ta Leongo erregeak Lizarrako or-maren sendotasuna ikusita, ostera itzuli zirala euren erreñuetara.

**Eta Zuritak:** Leongo errege IXn Alfonso, Urraka bere ama ordeak Agilar eta Monteagudon euki ebazan gazteluak, VIIIIn. Alfonsogaz indarrez kentzera joanda, Aroko Diego Lopezek eurei aurre eginda eta gero asarratuz, gaztelako erregetzatik urrundu egin zala, Nafarroako erregetzara urbilduz.

Eta Diegok, Nafarroatik Gaztela zirikituta, eta Lengusu biak etorri ondoren, ezetu egin zan borroka audienetarikoa egin ebela, Nafartarrak galtzaile dirala.

Gero, Aragoiko Andre Santxak erregiñaren eskabidez Alfaron, bera ta bere seme Aragoiko errege IIn Pedro, Gaztelako VIIIIn Alfonso, Leongo IXn Alfonso eta Nafarroako VIIIn Santxo **Indartsua** batzartuta egonda, eta Diego babes barik itzi ostean, au Balentziako Mauritarren gana joan zala, eurakaz Aragoiko erregearen aurka egiteko.

Borroka orreitan, Aragoiko errege IIn Pedro zaldi barik geratuta, Diego berak bere zaldia emon eutsela, eta Balentziako Mauritarren bildur, berak IIn. Pedro ez ebalako mendetu, Marruekoeko Miramamolín mauritarrengana bere zaldunakin aldatu zala.

**Labairuk, bere gezurtapenean esaten dau:** Gauza guzti oneik, ezin dirala zuzendu, 1.202, 1.203, 1.204ko urteetan sortu ziranak, euren sortutako urteetan ez ba dira kokatzen. Gertakizun guzti orreik batera, ezin ziralako 1.206ko urtean egin.

Diego 1.205an, Leongo erregearen zerbitsuan ikusten dalako aginpide aundiekin.

1.206ko urtean Leongo erregeagaz oster, Diegoren semea Extremadurako teniente-goa bere arduruan eukinda.

1.206ko urtean, Gaztelako errege VIIIIn. Alfonso, eta Leongo errege IXn Alfonsok Kabreroseko bakeak egin ebenean, Diego Lopez eta bere seme Lopez Diazek, aitor lez siñatzen dabelako bake ori, Diegok, Gaztelako bigarren edo alferazgoa euki ebal.

Eta urte berean, Diegoren semea Lopez Diaz, Leongo IXn. Alfonso eta bere semea, Gaztelako errege izango zan IIIIn. Fernando **Santuaren** izenagaz, egin eben bakean.

**Labairuk esaten dau:** Ikerketa au ondo egin ezkerok bakarrik aurkitu leikena, 1.205, 1.206, eta 1.207ko urteetan, ez ziralako egon alango borrokarik, eta bakarrik agertu eginen dana, Diego, 1.205eko urtean ez zala adiskidetuta egon Gaztelako errege VIIIIn Alfonsorekin.

Aurrera joanda, eta Gaztelako VIIIIn. Alfonsok deituta, Diego **Navas de Tolosako** guda nagusian ikusten dogu, katolikotasunarentzat garrantzi aundikoa izan zana, eta Diegok katolikotasun artean euki eban indar eta garrantzi aundiekin, ezin eutsona ukorik egin.

Leen baiña goazen ikustera, aurretik zelako alegiñak egin ziran katoliko erregeak al-kartzeko, eta Europan katolikotasunezko aolkurarizko agintaritzan eleizak euki eben nagusitasunaren bidetik zer egin zan, 1.212ko guda nagusi ori indartzeko.

VIIIIn. Alfonso, bere sendi guztiagaz Talaberan egonda, 1.211ko Urrillaren 14an, Fernando semea il jakon.

Gertakizun orrek ez eutson geldituazo, eta aurrera egin eban guda orretarako bear ziran antolakuntzak prestatzen.

Toledoko gorteak batu ta ospatu ziran, guda nagusi au gurutzada santu lez izendatzeko, eta IIIIn. Inozentio Aita Santuak parkamen osoa agindu eban, gurutzezko guda orretara joan bear izan eben guztiei.

Gaztela, Aragoi, Nafarroa eta Bizkaiko atzerritar guda indarrak Toledora asi ziran ur-biltzen, eta Ekaiñaren 20-21eko egunetan asi ziran Aroko Diego Lopez, Lope Diaz eta Pedro Diaz bere semeak, euki ebazan loba asko eta 2.500 Bizkaitarrekin<sup>(1)</sup>, Atzerritarren<sup>(2)</sup> kapitan nagusi lez, beti aurretik mugitzen.

Eta 1.211ko Uztaillaren 16an Aroko Diego Lopez izan zan bere Bizkaitar ta atzerritarrekin lenengo aurreratu zana.

VIIIIn. Alfonsok garaipena lortuta, Diegori agindu eutson gurutz-santu orren bidez lortu ziran aberastasunezko ondasunak erregeen artean banandu egiazala.

VIIIIn. Alfonso Diegori sari lez, Nafarroako errege VIIIn. Santxo Azakarrari ostu eutson Durango 'ko Iribildua, berea izan balitz bezela emon eutson betirako, Durangoko aldea Bizkaiarekin alkatuta.

(1) Labairu 'k esaten dau, 2.500 Bizkai 'tar geiegi direla, Bizkaia 'k denbora orreitan erritar gitxi euketzalako. (2) Atzerritar guda-indar orreri "Ultramontanos"en izena ipini eutsen.



Aroko Diego Lopez Bizkaiko Jauna, 1.214ko Iraillaren 16an il zan, eta beren gorpua Naiarako Santa Mariaren Eleizan illobiratuta dago, berak agindu eban lez.

### ***Nafarroako erregetzaren aria osterartuta.***

17<sup>a</sup>.- VII Santxo Santzez ***Azkarra edo Indartsua*** 1.194-1.234ko urtearen Otsaillaren 12rarteko bitartean Nafarroako errege izan zana.

1.170ko urtean Jorraillaren 17an bere aita Nafarroako VI In Santxo Jakintsua eta ama Gaztelako Santxaren bidetik Tudela edo Muzkariako gazteluan<sup>(1)</sup> jaio zan, eta 1.234ko Jorraillaren 7an Tudela edo Muzkariako gazteluan il, bere gorpua Orreagaren ikastetxeko Santa Mariaren eleizan illobiratuta dago.

VII In Santxo bere ingurukoak ***Indatsuaren*** izenagaitik ezagutzen ba eban, goi aldean 2,23-2,31m. gizabeteko gizon indartsua izan zalako da.

1.195eko urtean VI In Ramon Tolosako kondearen alaba Konstanzagaz ezkondu zan, eta seme-alabarik ez ebalako euki apurtu zana, bigarrenez Alemaniako I Federico ***Bizar-Gorri*** erromatar kaiserraren alaba Klemenziagaz<sup>(2)</sup> ezkondu zan, eta onek be ez eutson seme alabarik emon, naita berak ezkontzatik kanpo batzuk euki arren.

VII In Santxok, bere aitagaz itzemandakuekin aurrera egin eban, Aragoikoakaz gaztelarraz baiño artu emon geiago eukinda.

1.196ko urtean eta Erromako Aita Santuaren Kabuz, Agreda ta Tarazona bitartean batzartu ziran Gaztela, Aragoi ta Nafarroako erregeak, katolikotasunezko erreñu orreik alkartzeko, katolikotasunak gura eban batzangotasuna agirian itzita.



*Nafarroako VII In Santxo Indartsua edo Azkarra*

(E)



*Santxoren arrano beltza ta zijilua*



*VII In Santxo Azkarraren babeskia*

***Argi agertzen da emen, katolikotasunaren asmoak ez ebalaberezko erri ta gizartearen eskubideak on artzen, ezeretako kontuan ez ebalalako artzen, euki ebazan eskubideak beti zapalduta ekarri dauzenak ezeren begirune barik, gaur sortzen dan lez.***

(1) Naita ziur jakin ez arren. (2) Agirien ezean ziurtasunik ez egon arren.



*Nafarroako erreinua VII In Santxo Indartsuaren denboran.*

1.199ko urtean Gaztelako VIII In Alfonsok Araban sartu zan, Gasteiz, Gipuzkoa eta Durango aldea inguratu ebazanak.

1.207ko urtean Urrillaren 29an, VII In Santxok eraso au geratzeko, almohade mauritarren laguntza eskatzen joan zan, berak beste gudu toki batetik eraso orreik geratzeko, ez eban lortu mauritarren laguntza, eta Nafarroako erreinuaren lurralde asko galdu ostean, gaztelar erregeagaz Guadalajaran sinatu eban bost urteko gudu arte bat, Nafarroak ez ebana txartxat artzen euskal lurra galtzea. Ortik agertu zan Araba, Gipuzkoa, Durango aldea eta Bizkaitarrak Nafarrotik

banatzea. Eta gaztelarren sendotasuna, naita Araba, Gipuzkoa, Durango aldea ta bizkaitarrak, euren eskubideak ondo babestu gaur arte.

1.212ko urterarte Nafarroako VII In Santxok ta Gaztelako VIII In Alfonsok euki ebazan artu emonak oso gogorrek izan arren, urte onetako Nabas de Tolosako borrokan beragaz, ondo baiño obeto konpondu zan.

Nafarroako VII In Santxok, borroka orretan Miramamolín edo Muhammad An-Nasirren dendan artu eban ospea aundia izan zan, baiña bere jarduera euskaldun begiakaz ikusita, VII In Santxoren alperraldi bat ikustenda, naita euskaldunaren aurka sortzen zan guztia, katolikotasunean batzangotzeko asmoetatik agertu, kontuan eukinda VII In Santxo beste guztien antzera katoliko sutsoak zirela, itsutasunezko urloi orreitatik katolikotasunean batzangotzeko asmatzailleak euren garaipenak lortuta.

***Ezertxo be ez dauena balio izan gaur ikusten dan lez, naita eurak tinko edo euren lanean aurrera egin danoen kalterako, asken baten mundu oneri Jaungoikoak bereztu eutsozan oiñarrizko legeetara joan bear garelako.***

VII In Santxo Azkarra edo Indartsua gurutze gudatan ibili zan denboran, ordezko jaurkintzan geratu ziranak okerkeri galantak egin ebazan eta VIII In Alfonso gaztelarrak Araba erasotzen ibilita, Euskalerriko lurralde naguziak: lurralde nagusiko Nafar erregetzatik, Araba ta Gipuzkoa 1.200ean eta Bizkaia 1.224an banandu ziran.

1.231ko urtean Nafarroako VII In Santxo eta Aragoiko I Jaimek Tudelan batzartuta, semekuntzazko<sup>(1)</sup> alkargo bat sinatu eben, bietatik batek iltzen zanean, besteak eskubide osoa eukela erregetza orreitan errege izateko. Ez zana bete.

***VII Santxo Santzez indartsuagaz (1.194-1.234), Auñamendiaren berezko Nafartarren erregetza amaitzen da.***

***Gertakizun onek, amaitzen diran gauzen edertasuna dauka.***

***Albijensen aurkako gurutzadaren abeslariak ospatzen eban, "Tudelak daukan erregea, iñoiz zaldi gainean eseri dan zaldunik onena zala" abestuz.***

***Eta, Alfonso gaztelar ta Portugesai aipatuz, euren arpian gogor emoteko, "Zentzun gabeko alfer aundiak, berak botoi baten balioan be ez dabezala onartzen" esan eban.***

(1) Semezko edo semekuntzazko = prohijamiento.

*Azken baten Nafarroako erregetzak ta berak txarto amaitu eben. Gurutzadetan ibili zanean VIII Alfonsok Araba kendu eutselako, Gipuztarrak aldendu jakozan fueroak ez ebazalako zaintzen, Nafarroan bertan Fueroak zaintzeko alkarteak sortuta, eta naita bere koñatuak Ingalaterrako Rikardok Be-Nafarroa ostera itzuli, Zuberoa gaur Nafarroagaz, biar Frantziagaz eta etsi Inglateragaz ibili zan.*

*Lapurdi 1.193ko urtetik aurrera Ingalaterrako errege zan Akitaniako Dukeagaz alkartuta egon zan.*

*Len esan doten lez, Nafartarren etsaiari<sup>(1)</sup> denbora falta jakien etxeko jabea etxetik urtetan zanean eurak sartzeko. Eta umekeri ta zikiñezko gauza orreitan ibili ziran edesti guztian III Santxo Garzez Aundiaren ostetik ona.*

*Nafarroako erregeak, Euskaldun on bezela berba aundikoak ziran, euren izatasunezko ekanduan beste gauzarik ez ebalako ulertzen. Eta Katolikotasuna babestearren, ez eben euki lotsarik Gaztelar ta Aragoitar etsaiari laguntzeko.*

*Joko orreitan, baldintza ezbardiñekaz ibili ziran jokatzan, errezagoa dalako maltzurkerian jolastea, eginda dauan on guztia norberaganatzeko, norberen gogameneko alegiñagaz sort araztea baiño.*

*Joko orreitan, Otso Aundia izan arren, etsai askoren artean etzun eben.*

*Nafartar erregetzan egin eben beste okerkeri galanta, Nai ta "Nabarra Baskonun" aldarrikatu, gorteko agiri guztiak erdira zaleen eragipenak bultzatuta Latiñez edo Nafar Aragoiko latin kumeetan idatzi.*

*Gaur be leku ber beran gagoz, berezitasunaren aurkako ori, etsaitasun bardiñak daukazelako.*

*Esan leike, dan guztia suntsituarte edo lokatztuarte ez dirala geratuko.*

*Eta gero zer !*

*Beste borroka nagusi bat egin, berezko errigizarteak ekandubako egoera bardiñetan ezartzeko ?.*

*Argi ikusten da, zelako sasi jainkoagaz dabizen.*

*Europa ta Mundu guztian, Euskalerrria da izar bakarra oraindik, burua guztiz makurtu barik daukana.*

*Lortuko dabe ?.*

*Lenago "MORO" esaten gendun.*

*Euskalerrriak, bere gazteen artean arduradun asko bear dauz, eta ori jakintzagaz lortzen da.*

*Jakintz orreitan alegindu bear gara, gure izarraren dirdaira Mundu guztira zabaldu daiten gura ba dogu.*

*Orretarako baiña: "Euskerea, Euskal Nortasuna, Euskal Ekandua eta EUSKAL LURRAK" berrezkuratu bear doguz.*

VIIIn Santxo Santzez *Indartsu edo Azkar* errege onegaz, berezko Nafartarren erregetza amaitzen da, ortik aurrera, Txanpañako errege etxera aldatuta.

(1) Gaztelatar eta Aragoitarrak batez-be.

### 3.25. *TXANPAÑA*ko *ERREGE-LEIÑUA*.

**18<sup>a</sup>.**- Nafarroako I Teobaldo eta Txanpañako *IVn Bertsolaria* Frantziren Troyeseko urian jaio zan 1.201eko urtean eta 1.253ko urtean Uztaillaren 8an Iruñako urian il, bertan Iruñako eleis nagusian dago illobiratuta.

1.234-1.253ko urte bitartean VIIIn Santxoren ondorengo lez izan zan Nafarroako errege. Nafarroako I Teobaldo *Bertsolarien* izenagaz ezagutu zana asten da Txanpañako errege leiñua Nafarroako erregetzan.

VIIIn Santxo Indartsuaren loba izan zan. Nafarroako Blanka eta IIIIn Teobaldo Txanpañako kondearen semea, Brie ta Txanpañako IVn Teobaldo kondearen izenagaz.

VIIIn Santxo Indartsuaren azken borondatea, Teobaldo ez ebalako begi onean artzen, Nafarroako erregetza, Aragoiko I Jaimeen eskuetan iztea zan.

Nafartarrak baiña, gogo orreik kontuan eukibage, Santxo il zanean illabete geroago Teobaldo deitu eben eta Iruñako Gotzain Eleizan Foruak zinduz gain Frantziko gor-tearen oituran igortzi<sup>(1)</sup> eben.

I Teobaldo bere erregetza sendotzeko, Gaztela, Aragoi eta Ingalaterragaz alkargotu zan, bere Nafarroako jaurkintzarako, Txanpañako gortetik laguntza aundia artuta.

Tenencias edo lurraldearen banaketako jaurkintza arduragabetu eban, eta lau lurraldetan bananduta Nafarroko erregetza, lau meriñu edo ibar jaunen ardurapean ezarri eban Nafarroko jaurkintza, Nafarroako euskal oiturak batzea aginduta Orokorrezko Foruan idazteko.

Gaztelako adizkidetasuna lortzeko, IIIIn Fernando Santuagaz alkargotu zan, bere alaba Blanka gero X Alfonso Jakintsua izando zanakin ezkontzeko, IIIIn Fernando Santuak ezkontza orren truke, Gipuzkoako lurraldeak emonda bera bizi egingo zan bitartean.

IIIIn Fernandok, ez eutson emon I Teobaldori Arabako lurraldea, itsasora berezko irten bide bat eukiteko onek gura eban lez, azken baten elkargo ori bertan itzita, eta urte bat beranduago I Teobaldok bere alaba Blanka, Bretainako kondeari agindu eutson.

1.238an Lur Santuaren gurutzeko gudaldi sakratua bideratu eben, eta Tauro mendian betiko ospea lortu ondoren, 1.240ko urtean ostera Nafarroara itzuli zan.

1.246an Foruen gora beran, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzainarekin euki ebezan estabaidetan, onek zalantzan ipiniten eutsan Nafarroko erregetza.

Eta 1.250eko urtean lurraldeko eleiz batzar nagusi baten, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzain orrek exkomunikatu eban I Teobaldo.

Aita Santua I Teobaldoren arazo orregaz oartuta baiña, lege berezi bat agertu eban, bere baimenik gabe, iñork ezin ebala Teobaldo eleizatik kanporatu, esaten ebana.

*Emen ikusi leike ostera be, katilikotasunean batzangotzeko legeekin ibiltzen zirela Europako errege maltzur orreik, erri ta gizartearen nortasunezko desberdintasunak kontuan artubage, geroago eta Fernando katolikoarekin aundigotuta ikusiko dogun lez.*

*Onentzat bardin zan, txino, mongola, euskalduna, ruso, alemana, edo edozer gauza izan, katilikotasunezko zorro orreitan sartzeko.*

*Arrazoiz, sinistu ez egitekoa dana.*

(1) Igortzi = ungi.

Sarri ibili zan Txanpainā ta Nafarroaren arteko bidaiak egiten, eta 1.253an Uztaillaren 8an Txanpainātik itzulkerā baten il zan.

Teobaldotarrak, Txanpaināren zelaikadakoak ziran eta beti begituten eben Frankoen jaurkintzari, goitik berakoa guztiz al osokerizko erdiranai baten zana.

VIIIn Santxo Indartsuak, Teobaldo erregea ez eban onartzen, guztiz aurkaldekoa zalako. Teobaldotarrak zelaikadako erdirazaleak eta Santxo mendi ta basoak berez emoten duan askatasunekoa izanda, oso ezberdiñak izan ziran.

Argi dago askatasuneko demokraziaren nortasunean egon zala desberdintasuna. Mendian norbera izan bear dalako eta zelaikadan errezagoa dalako besteen alegiñean joatea.

Txanpain errege leiñua, ez zan Napar erritarren ta buruzagien atsegintasunekoak.

Len, erdiugarte onetan Nafar erregetza, Europaren osoko erregeen artean eskontzen ziralako, ekonomiaren aldetik artu emon estuak eukiten ebezan.

***Eta ekintza orregaz oituratu ziran merkataritzaren irabazpidekoak, salerosketetan danok batzangotuta egon ezkeru, neurribageko irabaziak eukiten ebezalako.***

Mauritarren aurkako gurutzearen gudaldi sakratuak berezkoak ziralako eta oraindiño euskal eragipenekoak alkar lotuta joaten ziran egoaldera begira.

Au ez da guztiz egia baiña, errege katolikoan artean asarratzen ziranean, mauritarrekin alkartzen ziralako, bata bestearen aurka egiteko.

Txanpainātar oneik, Aita Santuakaz egon ziran bat eginda, Europatik batuten ebazan gudaldiak, Afrikaren ekialdeko lur santuetan borrokatzeko, goian ikusi dogun lez.

Jakintza ta garbitasunaren arloan Gaztelarrak baiñu, goi maillakuak izan ziran frantzezak eta ingelezak, ta orregaitik bideratu ebazan nafartarrak bitartekotasuneko eragipen orreitara euren oarkera. Geiāgo, I Juana Frantziako errege IVn Felipe ***Ikusgarria*** izango zanagaz ezkondu zanean.

Nafarroako erritarrentzat, zoraldiko denborak ziran oneik, Gaztela ta Aragoitarrak alde batetik, Frantzia eta alde bietako gurutz gudaldiko ekintzaren bidez, eta bakoitzak bere asmakuntzan indartu naian, Nafartarrai alde guztietatik tiraka ibili ziran. Nafartar zaldun eta erritarren artean zatiketak edo etsaigotasuneko egoera larriak sortu zitezen iturriak ziranak.

Eta Nafartarren Nortasunarentzat oso denbora latzak, berezko izatasuna lotsagizunaren garbitasuneko arduran zaintzeko.

I Teobaldo bera izan zan leenengo idatzi ebazanak Nafartarren askatasuneko eskubide demokratikoak Foru Zaarreko liburuan, eta ortik aurrerako oiturak be batu ebazan, bere erregetzako denboran.

### ***I Teobaldoren ezkontzak.***

Iru bider ezkondu zan I Teobaldo.

-1.220ko urtean leen ezkontzan, Dagsburg´tar Gertrudisekin, eta 1.222urtean alaba semerik bage banandu ziran.

-1.222ko urtean bigarreneko ezkontzan, Beaujeutar Inesekin, VI In Beaujeutar Gikardo ta Flandeseko Sibilaren alaba zana. Eta ezkontza onetatik euki eben alaba Nafarroako Blanka, 1.226-1.283ko urte bitartean bizi zana, Bretainako I Juan dukeagaz ezkontuta, Bretainako II In Juan dukearen ama izan zan.

1.231ko urtean il jakon Ines, eta I Teobaldo Borboneko Margaritagaz ezkondu zan irugarrenez, Margaritagaz sei alaba- seme eukinda:

-1.233ko urtean Leonor, gazterik il zana.

-Pedro ¿?-1.265 urte bitartean bizi zana.

-Nafarroako Margarita Lorenako dukesa 1.238-1.303ko urte bitartean bizi zana, eta 1.255eko urtean Lorenako III In Federico dukeagaz ezkondu zana.

-Nafarroako II In Teobaldo, 1.238ko urtean jaio ta 1.270 urtean Abenduaren 4an il, eta 1.255eko urtean Frantziako Isabelegaz ezkondu zana.

-Nafarroako Beatriz, 1.242ko urtean jaio eta 1.295eko urtean il. 1.258ko urtean Borgoñako IV n Ugo dukeagaz ezkondu zana.

-Nafarroako I Enrike, 1.269ko urtean Artoistar Blankagaz ezkondu zana.

I Teobaldo bere ezkontzatik kanpo be euki ebazan beste alaba bi:

- Lopez da Radako markesagaz, Gil de Rada sasi-alabea euki eban, Aragoiko I Jaimek euki eban sasi-semea Fernandez de Ijartar Pedrogaz ezkondu zana.

Bestea, Nafarroako Ines, Albarraziñeko Jaun Albar Perez de Azagragaz ezkondu zana.

### 3.26. Bizkaiko 11gn. Jauna.

1.214an Aroko Diego Lopez il zanean, bere seme Lope Diaz de Aro eta Manrrike de Lara *Suar-buru* esaten eutsenai artu eutson aldia, 1.236ko urtean Azaroko 14an edo 1.237ko Urtarrillaren lenengo egunetan il zan arte.

Diego bere aitagaz ibilita, zentzun askoko borrokalaria izan zan, eta orregaitik *Suar Buru* izena ipini eutsoen.

1.217an, Gaztelako errege I Enrike il da, III Fernando *Santuak*, Gaztelako erregetzan bigarren izatea edo alferazgoa emon eutson.

1.219ko urtean, Gaztelako III Fernando *Santuaren* arreba eta Leongo errege IX n Alfonsoren alaba, Andre Urraka Alonsogaz ezkondu zan.

Euki ebazan seme-alabak:

-Diego Lopez, bere ondorengo izango zana.

-Albaro Perez, Gaztelan andikia.

-Andre Menzia, leenengo Albaro Perez de Kastrogaz ezkonduko zana, eta bigarrenez, Portugaleko errege II Alfonso *Ospatsuagaz*<sup>(1)</sup>, Portugaleko zaldunak erregetzatik kendu ebazanak.

-Alonso Lopez, Gaztelan andikia.

(1) Santxo-Kapelo esaten eutzienai.



-Aroko Lope Lopez, edo Lope *Txikerra* Gaztelan andikia.

-Fernando Lopez, abade eginda, Bizkaiko artzediano izango zana eta Kalgurriko eleiz sariduna<sup>(1)</sup>.

-Manrrike, Gaztelan andikia.

-Aroko Diaztar Berengela, IIIIn. Fernando *Santuaren* etxezain nagusia izan zan Rodrigo Gonzalez Jironegaz ezkondu zana.

Eta, bere emazte Andre Urraka Alonsoren ezkontzatik kanpo, Teuda de Santa Gadeagaz:

-Diego Lopez de Salzedo sasi-semea euki eban, Gipuzkoan aurrerango nagusi izango zana eta Gaztelako ibar jaun<sup>(2)</sup> nagusia.

1.223ko urtean, IIIIn. Fernandogaz, Kesadan lortu egin zan garaipena bideratu eban, eta 1.227ko urtean Baezako.

Bere aldian, Kaltzadako Santo Domingon, eleiz nagusi egin eben, Kalagurrikoagaz batera Bizkaiko eleiza guztien ama izango zirenak.

1.229ko urtean, bere emazteagaz batera, Urduñako erria Iribildu eben Gazteizko Forua emonda.

Balmasedako erria nai ta antziñako 1.199ko urtean Logroñoeko Foruakaz iribilduta egon arren, 1.234ko urtean Bizkaiko jabetasunean geratu zan Lope Diazekin, eta Uri bi oneik, erregeakaz egon ziran eztaibadagaitik, bata besteen eskuetan ibili ba ziran be, gure jauntza Gaztelako errege II Juanen eskuetan geratu zanean, Bizkaiko jauntzarenak izan dira beti.

1.236ko urte inguruan, Bermeo Iribildu eben Logroñoeko Fuegoagaz, eta orren eskutitza desagertu bazan, zeozer dakigu bere billoba Lopezen bidetik, 1.285eko urtean Burgosen ziurtu ebalako.

Bardin antzeko bat sortzen da Iribildu eben Plentziako itsas bazterragaz, baiña emen be zeozer dakigu, 1.289ko urtean beren billobak Palenzuelatik bialdu eben eskutitzaren bidez.

1.236ko Azaroaren 14an il zan Aroko Lopez Diaz au, edo 1.237ko Urtarrillaren leenengo egunetan. Pedro Nobia de Salzedok, 1.239ko Azaroaren 15ean il zala, esaten dau.

### 3.27. *Bizkaiko 12gn. Jauna.*

Lope izeneko IIIIn Aroko Diego Lopez jauna izan zan Aroko Lopezen ondorengoa 1.237 1.254ko urte bitartean, errioxako Baños de Rio Ojan busti ontzi<sup>(3)</sup> bateko ura irikiten egoala sartu ta errearen zauriakaz Urrillaren 4ko urtean il zan arte.

Pedro Nobia de Salzedok esaten dau, ureztatzen egoala, eta gorputza *Alkrebitegaz* bustita egoan izara bategaz inguratuta, morroi batek gura izan barik sua emonda, iñork ezer ezin aginik erreta il zala.

Gaztelako IIIIn. Fernando *Santuaren* loba izan zan, bere ama Urraka Fernandoren arreba zalako.

(1) Eleiz-sariduna = prebendado. (2) Ibar-Jaun nagusi = Merino mayor. (3) Busti-ontzi = bañera.

Diego Lopez, Gillermo de Monkada Bearneko kondea eta Sabraneko Garzenda bere emaztearen alaba, Bearneko Konstanzarekin ezkondu zan, eta euren ezkontzatik seme-alaba oneik euki ebazan:

-Lopez Diaz, Diego Lopezen ondorengoa izango zana;

-Aroko Diego Lopez, au be, Bizkaitarren Jauna izango zana.

-Aroko Andre Urraka Diaz, Fernando Ruiz de Kastro, mugaren aurrengo nagusia zarenarekin ezkonduko zana.

Eta Aroko Teresa Diaz, Juan Nuñez de Laragaz ezkondu zana, Bizkaiko jauntza onen ondorengo eskuetan geratuta.

Diego Lopez, 1.237tik-1.240ko urtera, Gaztelako alferazkoa euki eban, baiña urte onetan asarratu egin zan IIIIn. Fernandogaz eta eztaibada askoren bitartez Fernandok birriten parkatuta, aurrerantzean len euki ebazan alferazgo ardurakaz, Fernandorekin oso adiskidetuta jarraitu eban, 1.252ko Loraillaren 30ean IIIIn. Fernando *santua* il zan arte.

1.252ko urtean, Gaztelako Xn. Alfonso *Jakintsua* errege egin ebenean, Diego Lopezek, IIIIn Fernandorekin euki ebazan ardura guztiakaz jarraitu eban, arik eta Xn. Alfonsorekin asarratuta, Aragoiko errege Jaime *Menderatzaillearengana* bere sebitzuak eskaintzera joan arte.


### 3.28. *Oar txiki bat.*

Emen amaitzen dot ale onen idaz lana, ondorio lez ezer ipini barik, laugarren aleko aurkezpenean joango dalako ondo zeaztuta, emen leku barik geratuta aurrerantzean ezindotena esan.

Jaungoikuaren laguntzagaz laster izango dana.

Atutxa'tar Paul

*Zornotza'n 2.015'eko urtean Epaillaren 3'an*







Euskeraren Erri Akademia  
Academia Popular de la Lengua Vasca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

---

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)